- "Euskal herri-aginteek genero ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten", honela ulerturik genero ikuspegiaren integrazioa: "emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezkoei dagokienez dauden ezberdintasunak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea" (3.4 artikulua).

Oinarri horiek ezarririk, Gipuzkoako Foru Aldundiak garrantzi handiko printzipiotzat jotzen ditu **“ekintza positiboa”, “genero ikuspegiaren integrazioa” eta “lankidetzaren eta koordinazioa”**, horiek gabe ezingo bailirateke iritsi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako Planak dituen helburuak.

Plan hau emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko ibilbide luze baten hasiera da, eta bere ebaluazioa eta arrakasta lehen aipatutako lankidetzaren eta koordinazio horren esku egongo da Alabaina, ezin dugu saihestu gaur egun baditugula 4/2005 Legea eta IV. EEEPPa, guztiok nahitaez bete beharrekoak; beraz, gure politikak ez daude borondate hutsaren esku, ditugun baliabide arauemaileen aplikazio zuzenaren esku baizik.

Herritarren parte hartzea ere giltzarri izango da plana garatzeko eta, gero, baloratzeko orduan. Ez dugu ahaztu behar foru plan bat dela, baina gizartean eragin sendoa izan nahi duena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren lorpenean aurrera jarraitu ahal izateko.

2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GIPUZKOAKO PLANA GAUZATZEKO EGITURAK. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA.

2.1.- PLANAREN EGITURAREN OSAGAI NAGUSIAK lau dira: ARDATZAK, ARLOAK, PROGRAMAK ETA HELBURUAK.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako Foru Planaren oinarri diren lau elementu nagusi horiek Eusko Jaurlaritzaren IV. EEEPP planean zehaztuta daude.

Ardatz estrategikoak: horiek zehazten dituzte berdintasunaren lorpenean aurrera egiteko lehentasunekoak diren gaiak eta estrategia nagusiak. Honako hauek dira aipatutako strategi horiek:

- MAINSTREAMING: Gipuzkoako Foru Aldundian genero ikuspegia sartzea. Edo beste modu batean esanda, genero zeharkakotasuna.
- AHALDUNTZEA: Emakumeen parte-hartze soziopolitiko.
- ERANTZUKIZUNAK PARTEKATZEA ETA BIZITZA PERTSONALA ETA LANA BATERAGARRI EGITEA
- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA.

Arloak: esku hartzeko esparru funtzionalak dira. Arloka egituratzea lagungarria da osotasunaren ikuspegia izateko. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, arlo banaketa, batez ere, departamentuen arabera egingo da; nolana ere, departamentu bakoitzaren eskumen eremua kontuan hartuta, litekeena da arlo batean baino gehiagotan eragitea.

Programak: jarduera esparruak dira. Horien bidez zehazten dira departamentu bakoitzean berdintasun politiken ardatz estrategikoak. Horretarako, arlo bakoitzari urteko jarduera programa bat egitea proposatzen zaio, jarduerak, helburuak, aurrekontua eta ebaluazio sistema zehaztuz.



Helburuak: Programak aldatu nahi den gizarte errealitatea definitzen duten helburuez osatuta daude. Helburuek ezartzen dituzte lehentasunak eta zehazten dituzte ekintzak. Adierazleen bitartez, helburu horiek zenbateraino bete diren neurtzen da.

Horrenbestez, helburuek honelakoak izan beharko dute: zehatzak, neurgarriak, eraginkorrak eta ulergarriak.

Gure asmoa garbia da, benetako berdintasuna lortzeko urrats sendoak ematea; eta badakigu horretarako, lehenik eta lehentasun gisa, gure politika publikoak egokitu behar ditugula. Helburu hori lortzeko ezinbestekoa dugu aurrerapauso nabarmena ematea berdintasuneko politikak gehiago zehazteko bidean, eta horrek eskatzen du asmo-adierazpen hutsetatik ekintza zehatzetara pasatzea. Abian jarri behar ditugu, besteak beste, jakintzarako eta sentsibilizaziorako tresnak, eta ekintza positiboko neurriak, aldaketa erraztuko duten azpiegiturak ere sortuz.

Aurrerago egin beharko den plangintza errazteko eta balizko proposamen gisa, helburuak lortzeko esku hartze **ESTRATEGIAK** eta horiek garatzeko **EKINTZA** proposamenak adierazten dira.

Estrategiak: Estrategietan biltzen da, alde batetik, helburuaren aldeko ikuspegia eta, bestetik, helburua lortzeko lan prozesurik egokiena. Estrategiak honako hauek dira:

- **Ekintza positiboa:** aukera berdintasuneko ohiko politiken barruan sartzen da; politika horiek genero desberdintasunetik sortzen diren arazo espezifikoak konpondu nahiak sortu ditu, eta Aukera Berdintasunerako Europar Batasuneko Aholku Batzordearen arabera honela definitzen da: "ekintza programa bat da, berdintasun aukera benetan ezartzea helburu duena, gizarteko ohiturek eta gizarte sistemak berak eragindako bereizketak murriztu edo desagertzea bideratutako behin-behineko neurriak erabilita.
- **Zeharkakotasuna edo genero mainstraming-a.** Zeharkakotasuna ezinbesteko estrategia da politika hauetan eta honako hau da: neurri politikoak hartzean tartean sartuta egon ohi diren eragileek prozesu politikoak antolatzea edo berrantolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, politika guztietan genero

berdintasunaren ikuspegia txerta dezaten, maila eta etapa guztietan. Hori dela eta, estrategia hori berdintasun arloko gauzatze oro egituratuko duen ardatz bilakatzen da; beraz, planaren diseinuan estrategia hori praktikan jartzeko beharrezkoak diren mekanismoak jasotzen dira.

Bi estrategiak osagarriak dira berdintasun politikak gauzatzekoan. Zeharkakotasunak aldaketa ahalmen handia du baina, egiturazko alderdi nabarmenenetan eragina duenez gero, denbora behar da indarrean jartzeko; beste alde batetik, ekintza positiboak askoz azkarrago eragiten du desberdintasun espezifikoak dauden egoeretan.

Ekintzak: Estrategiak aurrera eramateko proposamen zehatzak dira.

Foru plan honetan, helburua erdiesteko lehentasuneko abiapuntutzat jotzen dira. Proposatutako ekintzak, aurrerago xehetasun handiagoz azalduko direnak, administrazioak esku hartzeko dituen **tresna ezberdinen** arabera sailkatzen dira:

- Jakintza
- Sentsibilizazioa
- Prestakuntza
- Zerbitzuak eta baliabideak
- Arauak
- Jarraipena

2.2.- ERAKUNDE BARRUAN ETA ERAKUNDEEN ARTEAN PLANA BULTZATZEKO ETA KOORDINATZEKO EGITURAK

Plan honen ardatz eta arloetatik datozen helburuak eta ekintzak lortu ahal izateko, planari bultzada eman eta jarraipena egiteko eta ebaluatzeke zenbait egitura antolatzen dira. Egitura horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko politikarien nahiz teknikarien ahalegina eta konpromisoa batuko dute.

A) ERAKUNDE BARRUKO KOORDINAZIOA: *BERDINTASUNEKO ZUZENDARITZA, BERDINTASUNEKO BATZORDE POLITIKOA, BERDINTASUNEKO BATZORDE TEKNIKOAK*

- **Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia:**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren barruan legegaldi honetan sortu den Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ardura izango da Plana eta planak berak eragindako konpromiso guztiak egituratzea, sustatzea eta garatzea.

Horrez gain, gai honen inguruan aholku emango die foru administrazioa osatzen duten gainerako organo eta erakundeei, eta Berdintasunerako Foru Plana gauzatzearen jarraipena egingo du.

Lehenengo lan esparrua da Gipuzkoako Foru Aldundian berdintasunerako politikak garatzeko baldintzak sortzea. Departamentuek beren zereginen genero ikuspegia modu egokian ezarri ahal izan dezaten, eta ahalduntzea, baterako erantzukizunak eta familia- eta lan-bizitza uztartzea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko borroka sustatzeko lan egin ahal izan dezaten, behar beharrezkoak dituzte hainbat zerbitzu orokor -berdintasuneko helburuak garatzeko laguntza, koordinazioa, prestakuntza eta aholkularitza eskainiko dutenak-, eta horretarako nahitaezkoak diren bitartekoak eta tresnak.



Bigarren lan eta jarduera esparru nagusia da gizarteari zuzendutako ekintzak egitea, berdintasun politikak ezarri, ebaluatu eta hausnartzerakoan interes eta jakintza maila, inplikazioa eta parte hartzea handitzeko.

- **Berdintasuneko Batzorde Politikoa**

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuaren bidez aurreko legegaldian sortutako batzorde honi dagokio, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundian Planaren egikaritzea koordinatzea, horretarako programazio, jarraipen eta ebaluazio prozesuak dinamizatuz, eta gaiaren inguruko departamentu arteko batzorde bat bultzatzea. Beraz, planak arrakasta izan dezan ezinbestekotzat jotzen dugu batzorde eragile horren inplikazioa.

- **Departamentuartereko Talde Teknikoa**

Aurreko legegaldian Departamentuartereko Batzorde Tekniko gisa eratutako talde tekniko horrek partaideen balorazio positiboa jaso zuen. Batzorde honek Aldundiaren berdintasun politiken programazioa, jarraipena eta ebaluazioa kudeatuko ditu, eta gai honetan departamentuen artean koordinatutako ekintzak egitea bultzatuko du. Batzordeak egoki funtziona dezan eta gero bere lana Departamentu barruko Batzordera behar bezala iris dadin, departamentu bakoitzeko idazkari tekniko talde teknikora atxikia egongo da.

- **Departamentu barruko lan unitateak**

Departamentu barruko lan unitate tekniko horien ardura da departamentu bakoitzean ekintzak gauzatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea.

2008ko irailaren 9ko 68/08 Foru Dekretuaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Batzordearen, Departamentuartereko Talde Teknikoaren eta Departamentu barruko Unitateen sorrera, eraketa eta funtzionamendua arautzen dira.

B) ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA: *GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO BERDINTASUNERAKO POLITIKEN BATZORDEA, EMAKUNDE, GIPUZKOAKO UDALAK, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEFENTSA ERAKUNDEA.*

- **Gipuzkoako Batzar Nagusietako Berdintasunerako Politiken Batzordea.**

Legealdi honetan sortutako batzorde hau gertaera garrantzitsua da berdintasuneko politiken barruan. Horrenbestez, ezinbestekotzat jotzen dugu Gipuzkoako Batzar Nagusietako Batzordearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetzak eta koordinazioa.

- **Emakunde.**

Plan honek funtsezko osagaitzat jotzen du Emakunderekiko koordinazioa eta horren erakusgarri da planak zorrotz betetzen dituela Emakunderen IV. EEEPPren egitura irizpideak.

- **Gipuzkoako udalak.**

Diputatuen Kontseiluak, **2008ko ekainaren 10**eko bileran onartu zituen Gipuzkoako udalek eta udalez gaindiko entitateek emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta proiektuak abian jarri eta garatzeko beharrezkoa duten laguntza teknikoa jasotzeko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak.

- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea.**

Koordinazioa hobetearren lan ildoak zabaltzea eta horietan aurrera egitea.

2.3.- GIZARTEAN EZARTZEKO EGITURAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak, legealdi honen hasieran, gure lurraldeko emakumeen elkarteekin irauteko xede garbia duen elkarrizketa libreko organo bat sortzeko konpromisoa hartu zuen, elkarte horien eskaerak eta kezak ezagutu eta bideratu ahal izateko. Organo horrek erakundeen eta herritarren arteko zubi lana egingo luke.

2008an zehar emakumeen elkartegintzari zabaldutako partaidetza prozesu baten ondoren, eta emakumeen beraien erabakiz, organo hori GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO **FOROA** izango da, eta bertan parte hartzeko aukera izango dute, ez bakarrik elkarteetan antolatutako emakumeek, baita inongo elkarteetan ez daudenek eta maskulinitate berriek ere.

Gizartean ezartzeko eta politika publikoetan parte hartzeko egitura bat da. Horretarako, sortu berria den Emakumeen Elkarteen Gipuzkoako Federazioa hartu da abiapuntu gisa, foroaren beraren egitura eta eginkizunak koordinatzeko asmoz.

Halaber, berdintasuneko politikak garatu eta gauzatzeko garrantzitsuak diren erakunde eta agenteekin lankidetzaz bideratzeko sare batzuk antolatuko dira.

Diputatuen Kontseiluak, **2008ko ekainaren 10eko** bileran, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea helburu duten Emakumeen Elkarte eta Federazioei eta irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuei diru laguntzak emateko oinarriak onartu zituen.



3.- PLANA EZARTZEKO KUDEAKETA SISTEMAK.

3.1.- PROGRAMAZIOA

Programazioa benetan abian jarri ahal izateko, aurrez Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako lurralde historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan dagoen errealitatearen diagnostikoa jaso, aztertu eta, behar izanez gero, osatu egin behar da.

Aldi berean, Foru Administrazioan nahiz gizartean bertan sortutako sustapeneko eta koordinazioko egiturak baterako hausnarketa eta plangintza bultzatuko duten mekanismoz hornituko dira.

Oso garrantzitsua izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak urteko egitarau bat prestatzea, eta bertan zehaztea, batetik, egin beharreko lana jardueren arabera, eta bestetik, egitaraua abian jartzeko behar den aurrekontua.

Era berean, sustatu nahi da Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzak urteko programazioa prestatzea, bultzatzeko egituren bitartez eta legeak ezartzen duen moduan, eta bertan urteko jarduerak, baliabideak, ebaluazio adierazleak eta dagokion egutegia zehaztea.

3.2.- EBALUAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundian eta gizartean bertan izandako eragina eta lortutako gizarte aldaketaren maila, kuantitatiboki nahiz kualitatiboki, ebaluatzeko sistema bat ezartzen da.



Era berean, ebaluatuko dira betetze mailaren bilakaera eta plana gauzatu z lortutako emaitzak. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, eta hala dagokionean, udaletako arlo bakoitzak helburuak betetzeko egin dituen jarduerak, eta sortu dituen egiturak eta koordinazio dinamikak aztertuko dira.

Ebaluazioaren oinarri izango den ebaluazio sistema bat prestatuko da, aurreikusita zeuden prozesua, tresnak eta ebaluazio adierazleak jasota.

4.- ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Lehen adierazi den moduan eta Eusko Jaurlaritzaren IV. Planarekin bat eginez, lau dira berdintasuneko politiken inguruko ardatz estrategikoak edo lehentasuneko gaiak:

I. ARDATZA.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA. GENERO ZEHARKAKOTASUNA EDO MAINSTREAMING-A.

Honek esan nahi du herri jardueran sistematikotasunez kontuan hartu behar direla emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatu behar direla.

Bereziki kontuan hartu behar dira, hainbat diskriminazio egoera eragin dezaketen faktore bat baino gehiago (arrazak, jatorri etnikoa, erlijioa, ezgaitasuna, sexu orientazioa, edo beste) berekin dituzten emakumeak edo emakume taldeak.

II. ARDATZA - EMAKUMEEN PARTE HARTZE SOZIO-POLITIKOA. AHALDUNTZEA.

Gure gizartean, emakume eta gizonen arteko berdintasunerantz urrats handiak egin badira ere, oraindik desberdintasun handiak ditugu botere banaketari, baliabideei eta onurei dagokienez.

Emakumeen parte hartze sozio-politikoak zehar lerro bat da, lanari begira lau lan ildo hauek dituenak: autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta sozio-kulturala.

Estrategia horiekin batera, gizonen sentsibilizazioa bilatzen duten formulak asmatu behar dira, haiek ere maskulinitasunaren eredu tradizionala alde batera utzi eta bestelako gizarte mota bat, demokratikoagoa, zuzenagoa eta berdina, eraikitzen saia daitezten.

III. ARDATZA.- ERANTZUKIZUNAK PARTEKATZEA ETA BIZITZA PERTSONALA ETA LANA BATERAGARRI EGITEA.

Berdintasun plan honen asmoa gizartea modu berri batean antolatzea da, lan banaketa orekatua oinarritzat harturik, hau da, emakumeek eta gizonak erdibana harturik, alde batetik etxeko lan eta zaintza lanei, eta bestetik produkzio lanari, dagokien erantzukizuna.

Foru Aldundiak lortu nahi luke Gipuzkoako gizartea, etxeko lan eta zaintza lanen multzo guztiari balio sozial eta ekonomikoa aitortzen dion gizarte bat izatea.

IV. ARDATZA - EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA.

Sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Horren barruan sartzen dira ekintza horiek egiteko mehatxuak eta bizitza publikoan nahiz pribatuan gerta daitezkeen derrigortzeak edo bidegabeko askatasun-gabetzeak.

Emakumeen aurkako indarkeria da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen larrienetako bat. Horregatik erakunde publikoak koordinatuta jardun behar dugu, eta gizarteko gaitz horrekiko ez dugu inolako tolerantziarik izan behar.

Giza eskubideen urraketa onartezin hau erro-errotik ezabatzeko, ezinbestekoa da biktimei laguntzeko neurriak hartzea eta bitartekoak xedatzea, eta, aldi berean, emakumeek bizitzako eremu guztietan nozitzen dituzten diskriminazioen aurka gogotik borroka egitea.

Bide horretatik, prebentzioa, heziketa eta sentsibilizazioa proposatzen dira abiapuntu modura eta, ondoren, biktimei laguntzeak duen garrantzia azpimarratzen da.




Gizarte Politikako Departamentuarekin elkarlanean eta koordinatuta jarraituko dugu, departamentu horren eskumena baita tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzea.

5.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2007-2011 KUDEAKETA PLANA. BERTINTASUN PLANAREN JARRERA HARTZE ESTRATEGIKOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gipuzkoako Foru Planak, zein testuingurutan eta lege esparrutan garatu beharko den kontuan izateaz gain, **Gipuzkoako Foru Aldundiarentzako Plana** izan behar du, eta ondorioz Kudeaketa Planean txertatu behar da eta bertatik zabaldu, planak zehazten dituen estrategiekin eta indarraldiarekin bat eginez.

Gipuzkoako Foru Aldundian genero ikuspegia sartzeko jarduerak Kudeaketa Planaren helburu estrategiko guztiak ukituko badituzte ere, berdintasun plana da Kudeaketa Planaren **3. helburua: Ongizatearen Gipuzkoa** garatzen lagunduko duen tresnetako bat.



6.-DIAGNOSTIKOA. TESTUINGURUA

Berdintasuneko Foru Plana egokia izan dadin eta Gipuzkoako gizartearen errealitatea kontuan har dezan, diagnostiko bat egin da.

Diagnostiko hori 3 ardatz nagusitan egituratu da:

- Gipuzkoako Foru Aldundian, barne kudeaketan, emakumeen eta gizonen egoera, lortutako emaitzak eta plantila osatzen duten pertsonen beharrak eta itxaropenak aztertzea.
- Genero berdintasunaren zeharkakotasuna ziurtatzeko aukerak detektatzeko xedez, Diputazioak garatu dituen eskumenak eta jarduerak aztertzea.
- Interes taldeen (udalak, emakumeen elkarteak, enpresak, genero berdintasuneko adituak, Gipuzkoako gizartearen beste ordezkari batzuk) iritziak, premiak eta itxaropenak.

Lortutako emaitzak aztertuta, Gipuzkoako lurralde historikoan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko esku hartze globala diseinatu da, eta hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako 2008-2011 Foru Planean islatu da.

7. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO DEPARTAMENTUEN EKINTZA KOMUNAK ETA BERARIAZKOAK

Ondoren aurkezten diren ekintzak Diputazioa eta gipuzkoarrak eskatzen ari diren berdintasunarekiko konpromisoa lortzeko Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak Foru Aldundiko zuzendaritza bakoitzari behar duen bultzada emateko egindako lanaren emaitza dira.

Beraz, ekintza horiek dira aurreikusitako helburuak betetzeko eta proposatu genituen ardatzak eta programak garatzeko departamentu bakoitzak emandako erantzunak.

Bukatzeko, foru plan honen 2. epigrafean adierazten denez, ekintza horiek erakundeen balizko jarduera motak kategorizatu eta sailkatzen dituzten tresna batzuen arabera sailkatuta daude.

Aipaturiko tresnak ondorengo hauek dira:

- Jakintza
- Sentsibilizazioa
- Prestakuntza
- Zerbitzuak eta baliabideak
- Arauak
- Jarraipena

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen ekintza komunen eta berariazkoen proposamena (2008 - 2011 legegintzaldia)





BERDINTASUNAREN ARLOA

LANKIDETZAKO, GIZA ESKUBIDEETAKO ETA
BERDINTASUNEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

**LANKIDETZAKO, GIZA ESKUBIDEETAKO ETA BERDINTASUNEN
Zunzaritza Nagusiaren EKINTZAK
Berdintasunaren Arloa**

ARDATZA: GENEROAREN ZEHARKAKOTASUNA: MAINSTREAMING

PROGRAMA MAINSTREAMING
DEPARTAMENTUAN GENERO IKUSPEGIA SARTzea

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
M1.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren organigraman beharrezko egiturak sortzea eta behar beste baliabidez hornitzea, legediak nahiz Diputazioaren estrategiak galdatzen dituen emakumeen eta gizonen berdintasuneko politikak bultzatzeko.	Plan hau garatzeko sortu beharko diren emakumeen eta gizonen berdintasuneko politiken inguruko estrategiak zuzendu eta koordinatzeko gaitasuna eta eskumena izango duten egiturak izatea GFAn.	Zerbitzuak eta baliabideak	M1.1 Zuzendaritza Nagusi bat sortzea, Gipuzkoan, 2008-2011 aldian, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foru Planak garatzen dituen jarduerak zuzendu eta koordinatzeko gaitutako langileak izango dituen.	- Berdintasunaren Arloa osatzen duten pertsonak.
		Arauk	M1.2 GFAko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Departamentu arteko Batzordearen eta Talde Teknikoaren, eta Departamentu barruko Unitateen sorrera, eraketa eta funtzionamendua arautzea.	- Garatutako arauak
		Zerbitzuak eta baliabideak	M1.3 GFAko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Departamentu arteko Batzordeko, Talde Teknikoko, eta, Departamentu barruko Unitateetako partaidetza dinamizatu eta koordinatzea.	- Bilera deialdiak - Parte hartutako bilerak - Bileretan parte hartzearen ondorioz egindako jarduerak
		Arauk	M1.4 Berdintasunerako Planean proposatutako	- Ekintza garatzeko jarduerak

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
			helburuak egoki garatzeko beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak jartzea jarduera horietarako.	<ul style="list-style-type: none"> - Proposatutako helburuak egoki garatzeko jarduera motak - Xedatutako aurrekontua, eurotan - Xedatutako aurrekontua, ordutan
M2.- GFAn emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzea	GFAko langileak nahiz herritarrak, oro har, berdintasunerako politikak abian jartzeko beharraz jabearaztea.	Jakintza	M2.1 GFAREN hasierako diagnostikoa egitea emakumeen eta gizonen egoerari buruz	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarrizketatutako pertsonak - Egindako galdeketak
		Sentsibilizazioa	M2.2 Gipuzkoako Foru Aldundiaren hasierako diagnostikoa zabaltzea	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako zabalkunde jarduerak - Egindako zabalkundeko ekintza motak
		Arauk	M2.3 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako bilerak
		Sentsibilizazioa	M2.4 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gipuzkoako Planaren inguruan hartutako konpromisoa zabaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Konpromiso formal hori ezartzen duten jarduerak - Egindako zabalkunde jarduerak - Zabalkundeko jarduera motak
			M2.5 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gipuzkoako Plana barruan nahiz kanpoan zabaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Editatutako zabalkundeak - Hartzaileak. - Egindako zabalkunde motak
		Zerbitzuak eta baliabideak	M2.6 Berdintasunerako Foru Planaren ekintzak garatzeko GFAko departamentuei aholkularitza eskaintzea	<ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza jaso duten departamentuak - Aholkularitza mota
			M2.7 Departamentuan hizkuntza, irudi eta edukien berdintasunezko erabilera ez-sexista eta ez-androzentrikoaren erabilera arautzen duen komunikazio politikarako berariazko	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasuneko komunikazioari buruz idatzitako arauak - Eskura jarri diren tresnak - Arau horiek zabaltzeko egindako jarduerak

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
			jarraibidea onartzea eta garatzea.	
		Arauak	M2.8 Diru laguntzak arautzen dituen araudiaren inguruan eta kontratu legeriak onartzen duen kasuetan, esleipen irizpideen artean sartzea genero ikuspegia aurkeztutako eskaintzan eta diruz lagundutako proiektu edo jardueran egotea baloratzen duen bat.	- Berrikusitako diru-laguntza arauak - Sartutako irizpideen tipologia
		Sentsibilizazioa	M2.9 Hizkuntza mota ororen erabilera ez-sexista egitea, zuzenean edo hirugarren pertsona edo erakunde bitartez sortzen dituen agiri eta euskarrietan.	- Berdintasunaren ikuspegitik berrikusitako agiriak - Hirugarren pertsona edo erakunde bitartez zeharka sortuak izanik berrikusitako agiriak
		Jakintza	M2.10 Hizkuntza modu sexistan ez erabiltzeko eta berdintasunezko komunikaziorako gomendioak prestatu eta banatzea, Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomo eta mendeko erakunde publikoetako langileei zuzenduak.	- Prestatutako materialak - Diputazio barruan eta kanpoan banatutako aleak
M3.- Berdintasun arloan GFAko langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzea	GFAko langileak gaitzea berdintasunerako politikak gara ditzaten	Sentsibilizazioa	M3.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizazio ekintzak egitea, Foru Aldundiko eta bere mendeko erakunde publikoetako langileei zuzenduak.	- Egindako sentsibilizazio ekintzak - Egindako barne sentsibilizazioko ekintza motak - Egindako kanpo sentsibilizazioko ekintza motak
		Prestakuntza	M3.2 Foru Aldundiko langileak prestatzea, genero ikuspegia	Egindako prestakuntza ekintzak - Diputazio mailan ikastaro horietan parte

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
			hainbat jarduera alorretan sartzeko.	hartu duten emakumeak eta gizonak - Asebetetze maila
			M3.3 Bultzatzea Langileentzako Prestakuntza Planean sartzea desberdintasuna, neurri zuzentzaileak, eta berdintasun alorreko bestelako araudiaren aplikazioa ezagutzera zuzendutako prestakuntza ekintzak.	- Sartutako berdintasuneko moduluak - Guztizkoaren aldean sartutako berdintasuneko orduak - Egindako zabalkunde ekintzak
		Jakintza	M 3.4 Langile guztientzako barne hedapeneko gida prestatu eta zabaltzea, jarduerak eta programak diseinatu, antolatu eta ezartzeko jarraibideak eta praktika onak bilduko dituen.	- Jasotako praktika onak - Egin diren barne zabalkundeko ekintzak - Egin diren kanpo zabalkundeko ekintzak
M4.- Informazioa bildu, landu eta hedatzean genero ikuspegia sartzea	Jarduera eremu ezberdinetan emakumeen eta gizonen arteko diferentziak ikusaraztea	Jakintza	M 4.1 Informazio bilketan sistematikoki sexu aldagaia sartzeari; horretarako, galdetegietan edo memorietan parte hartzen duen pertsonaren sexua identifikatzea ahalbidetzen duen laukia jarri beharko da.	- Sexuen arabera banatuta jaso diren galdetegiak - Sexuen arabera banatuta jaso diren galdetegi motak - Parte hartzaileen sexua identifikatzeko aukera emanda egin diren memoriak
			M 4.2 Aztergai diren aldagai ezberdinak eta sexu aldagaia gurutzatzea, garrantzitsua denean edo izan daitekeenean.	- Guztira egindako aztelanak - Datuak sexuen arabera banatuta ematen dituzten azterlanak - Datuak sexuen arabera banatuta ematen dituzten azterlan motak
		Araukak	M 4.3 Hirugarren erakundearen parte-hartzea behar duten jarduerak egiteko baldintza teknikoaren proiektua	- Eskakizun kopurua - Eskakizun hori jasota duten baldintza teknikoaren agiriak

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
		Sentsibilizazioa	M 4.4 Foru Aldundiaren eta, bereziki, Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Zuzendaritzaren programa eta baliabideei buruzko informazioa emakumeen baldintza, egoera eta berarizko beharretara egokitzea.	- Emakumeen baldintza, egoera eta berariazko beharrak aintzat hartuta berrikusitako programak - Emakumeen baldintza, egoera eta berariazko beharrak aintzat hartuta berrikusitako baliabideak
		Jakintza	M4.5 Eremu ezberdinetan emakumeen eta gizonen egoera bereizgarria aztertzea	- Egindako aztelanak - Azterlanetan landutako eremuak
			M 4.6 Alor guztiei Gipuzkoako Foru Aldundiko emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko egoera ikusgarri egiten duten autodiagnostikoko tresnak ematea.	- Zabaldutako autodiagnostikoko tresnak - Tresna horiek jaso dituzten alorrak edo zuzendaritzak
			M4.7 Emakumeen lan baldintzetako balizko diskriminazioak eta desberdintasunak identifikatzeko beste erakunde batzuk egindako genero azterlanak eta diagnostikoak aztertzea	- Bildutako aztelanak - Aztertutako diagnostikoak
M5 Aliantzak ezartzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren garapenean eragina duten beste erakunde batzuekin.	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeekin elkarriketa erraza eta egonkorra ezartzea	Zerbitzuak eta baliabideak	M5.1 Berdintasun politketan sartuta dauden beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea eta lana koordinatzea	- Egindako bilerak - Garatutako neurriak - Lortutako akordioak

ARDATZA: AHALDUNTZEA

PROGRAMA AHALDUNTZEA,
EMAKUMEN BALDINTZAK ETA POSIZIOAK HOBETZEA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
E1.- Gizarte, politika eta ekonomia arloan emakumeen parte hartzea ahalbidetzeko gizarte eragileen konpromisoa bultzatzea	Gipuzkoan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna helburu duten ekintzak proposatu eta gauzatzekoan gertutasuneko eta lankidetzako harremanak ezartzea, sinergiak eta esperientzia partekatuak sortuz eta oraindik ere sentsibilizatu gabe dauden eragileak kontzientziatuz	Sentsibilizazioa	E1.1 Emakumeek gizartean duten partaidetzari buruz egindako diagnostikoen emaitzak gizarte eragileen artean zabaltzea	- Diagnostiko horien zabalkunde ekintzak - Diagnostiko horien zabalkundeko ekintza motak
		Arauk	E1.2 Diru laguntzen araudiari dagokionez, esleipen irizpideen artean sartzea emakumeen ahalduzarekin zerikusia duten alderdiak baloratzen dituen bat	- Berrikusitako diru-laguntza arauak
E2 Emakumeek gizartean parte hartzeko baldintzak hobetzea	Emakumeen ahalduntzea eta desberdintasunak desagerraraztea lortuko duten partaidetza eta topaketa prozesuak abian jartzea	Zerbitzuak eta baliabideak	E2.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lanean ari diren elkarteentzat partaidetzarako toki bat sortzea	- Antolatutako topaketak - Parte hartu duten emakumeak eta gizonak - Parte hartu duten elkarteak
		Sentsibilizazioa	E2.2 Emakumeen lanari balioa emateko, esperientziak trukatzeko, sareak sortzeko eta abarrerako jardunaldiak eta topaketak egitea	- Egindako topaketak eta jardunaldiak - Parte hartu duten emakumeak eta gizonak - Parte hartu duten elkarteak
		Zerbitzuak eta baliabideak	E2.3 Emakumeen egoeraren errealitate zehatzak ikusaraziko dituzten argitalpenak egitea	- Argitaratutako aleak - Hartzaileak.

ARDATZA: ERANTZUKISUNAK PARTEKATZEA ETA BIZITZA PERTSONALA ETA LANA UZTARTZEA

PROGRAMA ERANTZUKISUNAK PARTEKATZEA ETA BIZITZA PERTSONALA ETA LANA UZTARTZEA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
C1.- Zuzendaritzako langileen artean bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko eta erantzukizunak partekatzeke lan baldintzen hobekuntza sustatzea	Erantzukizunak behar bezala partekatu ahal izateko eta bizitzako alor guztiak bateragarri egiteko beharrezkoak diren baldintzak sustatzea	Jakintza	C1.1 Lan bilerak edo hainbat pertsonen parte hartzea eskatzen duen beste edozein jarduera zein ordutegitan egin behar diren aztertzea eta definitzea, jarduera horiek familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko eta erantzukizunak partekatzeke oztopen izan ez daitezen	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera orduetako bertaratutako pertsonen buruz bildutako datuak - Bilera ordutegiak malgutzeko aurrekusi diren neurriak - Proposamen horien arabera egindako bilera
C2 - Enpresetan bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko eta erantzukizunak partekatzeke neurrien garapena sustatzea		Arauk	C2.1 Laneko eta familiako bizitza eta norberarena bateragarri egiteko zerbitzuak edota neurriak sustatzea Gizarte Erantzukizun Korporatiboko programetan.	<ul style="list-style-type: none"> - Baterako erantzukizuna eta bateragarritasuna ahalbidezteko neurriak ezarri dituzten enpresak - Baterako erantzukizuna eta bateragarritasuna sustatzeko ezarritako neurriak - Neurri motak
C3 - Gizonen eta emakumeen artean denboraren berdintasuneko erabilera sustatzea, emakumeen ahalduntzea eta gizonen baterako erantzukizuna sustatuz	Emakumeen eta gizonen artean denboraren erabilera modu orekatuagoan banatzea lortzea	Jakintza	C3.1 Denboraren erabilera galdeketa berrikustea, behar denean adierazle berriak proposatuz.	<ul style="list-style-type: none"> - Proposatutako adierazleak - Adierazle motak
		Jakintza	C3.2 Zaintzaren eta gizon eta emakumeen baterako erantzukizunaren kulturaren integrazio maila eta Foru Aldundiaren esparruko esperientzia berritzaileak ebaluatzea, gizartean zaintzaren eta baterako erantzukizunaren kultura sustatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako ebaluazioak - Foru Aldundiaren esparru bakoitzean aztertu diren esperientzia berritzaileak

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
		Sentsibilizazioa	C3.3 Gure erkidegoan nahiz kanpoan ezagutzen diren baterako erantzukizunaren inguruko praktika onen emaitzak eta esperientziak zabaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Baterako erantzukizunari buruz bildu diren esperientziak - Baterako erantzukizunari buruz aztertu diren esperientziak - Baterako erantzukizunari buruz zabaldu diren esperientziak
C4 - Gazteak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko baterako erantzukizunaren beharraz jabearaztea	Gizartean pentsamolde aldaketa bat sustatzea, etxean eta familia giroan emakumeen eta gizonen baterako erantzukizunaren alde	Sentsibilizazioa	C4.1- Gazteen artean kanpainak egitea berdintasunezko hezkuntza sustatzeko	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako kanpainak - Parte hartu duten neska-mutilak

ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

PROGRAMA INDARKERIA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
V1- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean gizarte eragileen konpromisoa bultzatzea	GFAko langileak eta herritarrak, oro har, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta errotik kentzeko beharraz jabearaztea	Sentsibilizazioa	V1.1 Printzipio deklarazio bat egitea Gipuzkoako Foru Aldundiak jazarpen sexista prebenitu eta desagerrarazteko duen konpromisoa adierazteko, zero tolerantziaren filosofiari jarraikiz.	<ul style="list-style-type: none">- Adierazpen hori ezarri duten dokumentuak- Dokumentu motak- Printzipioaren zabalkundea
			V1.2 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sentsibilizazio kanpainak sustatzea.	<ul style="list-style-type: none">- Sustatutako kanpainak



1.- DIPUTATU NAGUSIA

1.1.- Diputatu Nagusiaren Kabinetea

1.2.- Komunikazio Zuzendaritza Nagusia

DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEAREN eta KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN

EKINTZA KOMUNAK

ARDATZA: GENEROAREN ZEHARKAKOTASUNA: MAINSTREAMING

PROGRAMA MAINSTREAMING
DEPARTAMENTUAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
M1.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren organigraman beharrezko egiturak sortzea eta behar beste baliabidez hornitzea, legediak nahiz Diputazioaren estrategiak galdatzen dituen emakumeen eta gizonen berdintasuneko politikak bultzatzeko.	Plan hau garatzeko sortu beharko diren emakumeen eta gizonen berdintasuneko politiken inguruko estrategiak zuzendu eta koordinatzeko gaitasuna eta eskumena izango duten egiturak izatea GFAn.	Zerbitzuak eta baliabideak	M1.2 GFAko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordean, Talde Teknikoan, eta, departamentu bakoitzeko Departamentu barruko Unitatean parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera deialdiak - Egindako bilerak - Bileretan parte hartzearen ondorioz egindako jarduerak
			M1.2 Berdintasunerako Planean proposatutako helburuak egoki garatzeko beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak jartzea jarduera horietarako.	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza garatzeko jarduerak - Egindako jardura motak - Xedatutako aurrekontua, eurotan - Xedatutako aurrekontua, ordutan
M2.- GFAn emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzea	Diputazioak egindako edo bideratutako jardura, araudi, proiektu eta ekintzetan generoaren ikuspegia egokitzea orokor bihurtzea.	Sentsibilizazioa	M2.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gipuzkoako Planaren inguruan hartutako konpromisoa hedatzea. 2008-2011.	<ul style="list-style-type: none"> - Konpromiso formal hori ezartzen duten jarduerak - Egindako zabalkunde jarduerak - Zabalkundeko jardura motak
		Araukak	M2.2 Departamentuan hizkuntza, irudi eta edukien berdintasuneko erabilera ez-sexista eta ez-androzentrikoa arautzen duen Berdintasun Zuzendaritzaren komunikazio politikako berriazko jarraibidea ezartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasuneko komunikazioari buruz ezarritako arauak - Arau horiek zabaltzeko egindako jarduerak

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
			M2.3 Diru laguntzak arautzen dituen araudiaren inguruan eta kontratu legeriak onartzen duen kasuetan, esleipen baloreen artean sartzea genero ikuspegia aurkeztutako eskaintzan eta diruz lagundutako proiektu edo jardueran egotea baloratzen duen bat.	<ul style="list-style-type: none"> - Berrikusitako diru-laguntza arauak - Sartutako irizpideen tipologia
M3.- Berdintasun arloan GFAko langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzea	GFAko langileak gaitzea berdintasunerako politikak gara ditzaten	Sentsibilizazioa	M3.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizazio ekintzak egitea, Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomo eta mendeko erakunde publikoetako langileei zuzenduak.	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako sentsibilizazio ekintzak - Egindako barne sentsibilizazioko ekintza motak - Egindako kanpo sentsibilizazioko ekintza motak
			M3.2 Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea, zuzenean edo hirugarren pertsona edo erakunde bitartez sortzen dituen agiri eta euskarrietan.	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasunaren ikuspegitik berrikusitako agiriak - Hirugarren pertsona edo erakunde bitartez zeharka sortuak izanik berrikusitako agiriak
		Prestakuntza	M3.3 Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomoetako eta erakunde publiko independenteetako langileei berdintasunaren inguruko prestakuntza eskaintzea, genero ikuspegia hainbat jarduera alorretan sartzeko.	<ul style="list-style-type: none"> - Departamentuak parte hartutako prestakuntza ekintzak - Ekintza horien ordu kopurua - Diputazio mailan ikastaro horietan parte hartu duten emakumeak eta gizonak - Erakunde autonomoen mailan parte hartu duten emakumeak eta gizonak - Mendeko erakunde publikoen mailan parte hartu duten emakumeak eta gizonak - Parte hartzaileen asebetetze maila

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
		Sentsibilizazioa	<p>M3.4 Berdintasuneko Zuzendaritzak Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomo eta mendeko erakunde publikoetako langileentzat, berdintasun politikak planifikatu eta ezartzeko, prestatutako orientabideak zabaltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako zabaldunde ekintzak - Egindako zabalkunde motak
			<p>M3.5 Berdintasun Zuzendaritzak hizkuntza modu sexistan ez erabiltzeko eta berdintasunezko komunikaziorako prestatutako gomendioak hedatzea, Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomo eta mendeko erakunde publikoetako langileei zuzenduak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako zabalkunde ekintzak - Egindako zabalkunde motak
M4.- Informazioa bildu, landu eta hedatzean genero ikuspegia sartzea	Jarduera eremu ezberdinetan emakumeen eta gizonen arteko diferentziak ikusaraztea	Jakintza	<p>M4.1 Informazio bilketan sistematikoki sexu aldagaia sartzea; horretarako, galdetegiaren edo memorietan parte hartzen duen pertsonaren sexua identifikatzea ahalbidetzen duen laukia jarri beharko da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sexuen arabera banatutako galdetegiak - Sexuen arabera banatuta jaso diren galdetegi motak - Parte hartzaileen sexua identifikatuta egin diren memoriak
			<p>M4.2 Aztergai diren faktoreak eta sexu aldagaia gurutzatzea, garrantzitsua denean edo izan daitekeenean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Guztira egindako azterlanak - Datuak sexuen arabera banatuta ematen dituzten azterlanak - Datuak sexuen arabera banatuta ematen dituzten azterlan motak
		Araukak	<p>M4.3 Hirugarren erakundearen parte-hartzea behar duten jarduerak egiteko baldintza teknikoaren agiriaren proiektua</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eskakizun kopurua - Eskakizun hori jasota duten baldintza teknikoaren agiriak

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
			emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren araberakoa dela bermatzen duen eskakizuna sartzea.	
		Sentsibilizazioa	M4.4 Foru Aldundiaren programa eta baliabideei buruzko informazioa emakumeen baldintza, egoera eta berariazko beharretara egokitzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen baldintza, egoera eta berariazko beharrak aintzat hartuta berrikusitako programak - Emakumeen baldintza, egoera eta berariazko beharrak aintzat hartuta berrikusitako baliabideak

ARDATZA: AHALDUNTZEA

PROGRAMA: AHALDUNTZEA.
EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA POSIZIOAK HOBETZEA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
E1.- Gizarte, politika eta ekonomia arloan emakumeen parte hartzea ahalbidetzeko gizarte eragileen konpromisoa bultzatzea	Gipuzkoan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna helburu duten ekintzak proposatu eta gauzatzekoan gertutasuneko eta lankidetzako harremanak ezartzea, sinergiak eta esperientzia partekatuak sortuz eta oraindik ere sensibilizatu gabe dauden eragileak kontzientziatuz	Sentsibilizazioa	E1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan egindako diagnostikoen emaitzak gizarte eragileen artean zabaltzea	- Diagnostiko horien zabalkunde ekintzak - Diagnostiko horien zabalkundeko ekintza motak
		Araukak	E1.2 Diru laguntzen araudiari dagokionez, esleipen irizpideen artean sartzea emakumeen ahalduntzearekin zerikusia duten alderdiak baloratzen dituen bat	- Berrikusitako diru-laguntza arauak

ARDATZA: ERANTZUKIZUNAK PARTEKATZEA ETA BIZITZA PERTSONALA ETA LANA UZTARTZEA

PROGRAMA: ERANTZUKIZUNAK PARTEKATZEA ETA BIZITZA PERTSONALA ETA LANA UZTARTZEA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
C1.- Zuzendaritzako langileen artean familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko eta erantzukizunak partekatzeke lan baldintzen hobekuntza sustatzea	Erantzukizunak behar bezala partekatu ahal izateko eta bizitzako alor guztiak bateragarri egiteko beharrezkoak diren baldintzak sustatzea	Jakintza	C1.1 Lan bilerak edo hainbat pertsonen parte hartzea eskatzen duen beste edozein jarduera zein ordutegitan egin behar diren aztertzea eta definitzea, jarduera horiek familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteko eta erantzukizunak partekatze oztopo izan ez daitezen	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera orduetara eta bertaratutako pertsonen buruz bildutako datuak - Bilera ordutegiak malgutzeko aurreikusitako diren neurriak - Proposamen horien arabera egindako bilera
		Arauek	C1.2 Zerbitzu jakin batzuk emateko Departamentuak kontratatutako enpresetan lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko hainbat zerbitzu edo neurri ezar dituzten sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Baterako erantzukizuna eta bateragarritasuna ahalbidetzeko neurriak ezarri dituzten enpresak - Baterako erantzukizuna eta bateragarritasuna sustatzeko ezarritako neurriak - Neurri motak

ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

PROGRAMA: INDARKERIA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
V1 Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean gizarte eragileen konpromisoa bultzatzea	GFAko langileak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta errotik kentzeko beharraz jabearaztea	Sentsibilizazioa	V1.1 Departamentuan eta mendeko enpresetan zabaltzea Berdintasun Zuzendaritzak prestatutako printzipio-adierazpena, helburutzat duena Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bere mendeko enpresek jazarpen sexista prebenitu eta desagerrarazteko duten konpromisoa adieraztea, zero tolerantziaren filosofiarri jarraikiz.	- Egindako zabalkunde ekintzak - Egindako zabalkundeko ekintza motak

KOMUNIKAZIO Zuzendaritzaren BERARIAZKO EKINTZAK

ARDATZA GENEROAREN ZEHARKAKOTASUNA: MAINSTREAMING

PROGRAMA MAINSTREAMING.
ZUZENDARITZETAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
M1. GFAko komunikazio politikak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako alderdiak jaso ditzan sustatzea.	Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso handiagoko irudia helearaztea herritarrei.	Arauek	M1.1 Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista bermatzea komunikazioarekin zerikusia duten alderdi guztietan	<ul style="list-style-type: none">- Komunikazioa hobetzeko egindako ekintzak- Komunikazio ez-sexistari buruzko prestakuntza orduak.

EJE EMPODERAMIENTO

PROGRAMA DE EMPODERAMIENTO.
MEJORA DE LAS CONDICIONES Y POSICIONES DE LAS MUJERES

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
E1 GFaren komunikazio ekintzetan emakumeen parte hartzea areagotzea	FGaren lan esparruan emakumeak pertsona aktibo eta protagonista gisa ikusaraztea	Arauak	E1.1 GFaren komunikazio ekintzetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzea	<ul style="list-style-type: none">- Egindako komunikazio ekintzak- Ordezkaritza orekatua izan duten komunikazio ekintzak



2.- LEHEN DIPUTATU NAGUSIORDEA

Gipuzkoako Bulego Estrategikoa

BULEGO ESTRATEGIKOAREN EKINTZA KOMUNAK

ARDATZA: GENEROAREN ZEHARKAKOTASUNA: MAINSTREAMING

PROGRAMA MAINSTREAMING
DEPARTAMENTUAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEA

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
M1.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren organigraman beharrezko egiturak sortzea eta behar beste baliabidez hornitzea, legediak nahiz Diputazioaren estrategiak galdatzen dituen emakumeen eta gizonen berdintasuneko politikak bultzatzeko.	Plan hau garatzeko sortu beharko diren emakumeen eta gizonen berdintasuneko politiken inguruko estrategiak zuzendu eta koordinatzeko gaitasuna eta eskumena izango duten egiturak izatea GFAn.	Zerbitzuak eta baliabideak	M1.2 GFAko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordean, Talde Teknikoan, eta, departamentu bakoitzeko Departamentu barruko Unitatean parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera deialdiak - Egindako bilerak - Bileretan parte hartzearen ondorioz egindako jarduerak
			M1.2 Berdintasunerako Planean proposatutako helburuak egoki garatzeko beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak jartzea jarduera horietarako.	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza garatzeko jarduerak - Egindako jarduera motak - Xedatutako aurrekontua, eurotan - Xedatutako aurrekontua, ordutan
M2.- GFAn emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzea	Diputazioak egindako edo bideratutako jarduera, araudi, proiektu eta ekintzetan generoaren ikuspegia egokitzea orokor bihurtzea.	Sentsibilizazioa	M2.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gipuzkoako Planaren inguruan hartutako konpromisoa hedatzea. 2008-2011.	<ul style="list-style-type: none"> - Konpromiso formal hori ezartzen duten jarduerak - Egindako zabalkunde jarduerak - Zabalkundeko jarduera motak
		Arauk	M2.2 Departamentuan hizkuntza, irudi eta edukien berdintasuneko erabilera ez-sexista eta ez-androzentrikoa arautzen duen Berdintasun Zuzendaritzaren komunikazio politikako berariazko jarraibidea ezartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasuneko komunikazioari buruz ezarritako arauak - Arau horiek zabaltzeko egindako jarduerak

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
			M2.3 Diru laguntzak arautzen dituen araudiaren inguruan eta kontratu legeriak onartzen duen kasuetan, esleipen baloreen artean sartzea genero ikuspegia aurkeztutako eskaintzan eta diruz lagundutako proiektu edo jardueran egotea baloratzen duen bat.	<ul style="list-style-type: none"> - Berrikusitako diru-laguntza arauak - Sartutako irizpideen tipologia
M3.- Berdintasun arloan GFAko langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzea	GFAko langileak gaitzea berdintasunerako politikak gara ditzaten	Sentsibilizazioa	M3.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizazio ekintzak egitea, Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomo eta mendeko erakunde publikoetako langileei zuzenduak.	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako sentsibilizazio ekintzak - Egindako barne sentsibilizazioko ekintza motak - Egindako kanpo sentsibilizazioko ekintza motak
			M3.2 Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea, zuzenean edo hirugarren pertsona edo erakunde bitartez sortzen dituen agiri eta euskarrietan.	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasunaren ikuspegitik berrikusitako agiriak - Hirugarren pertsona edo erakunde bitartez zeharka sortuak izanik berrikusitako agiriak
		Prestakuntza	M3.3 Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomoetako eta erakunde publiko independenteetako langileei berdintasunaren inguruko prestakuntza eskaintzea, genero ikuspegia hainbat jarduera alorretan sartzeko.	<ul style="list-style-type: none"> - Departamentuak parte hartutako prestakuntza ekintzak - Ekintza horien ordu kopurua - Diputazio mailan ikastaro horietan parte hartu duten emakumeak eta gizonak - Erakunde autonomoen mailan parte hartu duten emakumeak eta gizonak - Mendeko erakunde publikoen mailan parte hartu duten emakumeak eta gizonak - Parte hartzaileen asebetetze maila

HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	TRESNA	EKINTZAK	ADIERAZLEAK
		Sentsibilizazioa	<p>M3.4 Berdintasuneko Zuzendaritzak Foru Aldundiko eta bere erakunde autonomo eta mendeko erakunde publikoetako langileentzat, berdintasun politikak planifikatu eta ezartzeko, prestatutako orientabideak zabaltzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako zabaldunde ekintzak - Egindako zabalkunde motak
1. pausoa. Araua generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoa den identifikatzea.	27
2. pausoa. Genero inpaktuaren balorazioa.	35
3. pausoa. Arauaren inpaktua positiboa izango dela bermatzeko aldaketen proposamena.	44
4. AZKEN OHARRA. ARAU JURIDIKOA ONARTZEKO PROZEDURA	56
5. ERANSKINAK:	
1. ARAUA EGIAZTATZEA. EGIAZTAPEN ZERRENDA	
2. GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAREN EREDUA	
3. GLOSATEGIA. OINARRIZKO TERMINOAK	
4. ADIBIDEAK: (CD-an eransten da)	
Adibidea 1 - Foru Araua	
Adibidea 2 - Egintza administratiboa	

AURKEZPENA


Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak murriztu eta desagerrarazteko konpromisoa pixkanaka sartu da botere publikoetan, gizarte demokratiko, bidezko eta berdintasunekoaren eraikuntzan aurre egin ahal izateko ezinbesteko lehentasun politiko bihurtzeraino. Konpromiso hori plano formaletik haratago doa eta, praktikan, ekintza eta **politika publiko orokorren** printzipio informatzaile gisa jarduten den **genero berdintasunaren zeharkakotasuna** eskatzen du. Hori dela-eta, berdintasuna sustatzeko ahaleginak ez dira emakumeen aldeko berariazko neurrietara mugatu behar (ekintza positiboko politikak)

Oinarri horretatik abiatuta, berdintasun printzipioa zeharka aplikatzearen ondoriozko dimentsioetariko bat arau juridikoak prestatu eta aplikatzeko prozesua da, maila eta aldi guztietan. Dokumentu honetan arreta **izaera orokorreko xedapenen prestaketan jarriko dugu, berdintasun printzipioa nola aplikatzen denean**, nahiz eta baliozkoa den egintza administratiboen prestaketako genero inpaktua ebaluatzeke ere. Hori bera aipatzen da aurrerago jorratuko den 2005eko urtarrilaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 19. artikuluan. Nahiz eta zeregin honetarako genero ikuspegia hainbat alditan sartu behar den, proiektua prestatzen hasten denetik behin betiko onartzen den arte, dokumentu honetan arreta, bereziki, arauen genero

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.

ikuspegiko **aurretiazko ebaluazioaren aldia** jarriko dugu. Helburu nagusia arauak eragin dezaketen **genero inpektua ebaluatzeko txostena egitea** izango da, onartu eta argitaratu aurreko pauso gisa.

Txostenak egiteko pausoetan jarriko dugu arren arreta, ez da prozesu guztia ahaztu behar; hurrengo koadroan laburtutako faseetan egituratzen da, eta dokumentu honetan ere aipatuko ditugu:



HELBURUA ETA HARTZAILEAK

Dokumentu-gida honen helburua da **Gipuzkoako foru organoetako** langileei izaera orokorreko xedapenen genero inpektuaren aurretiko ebaluazio txostenak egiteko prozesua erraztea, genero berdintasunaren printzipioa zeharka foru arauak eta izaera orokorreko bestelako xedapenak egiteko

prozesuan tresna gako gisa, 4/2005 Legeak 19. artikuluan ezartzen duen moduan.

EGITURA

Dokumentu honek honako atal hauek ditu:

- 1. Justifikazioa:** genero berdintasuna arau juridikoak egiteko prozesuan sartzea nahiz arau horiek onartzearen ondorioz sor daitekeen genero inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazio txostenak egitea justifikatzen duen testuingurua eta arau esparrua.
- 2. Abiapuntuko premisak,** genero berdintasuneko printzipioa arau juridikoak egin eta ebaluatzeko prozesuan sartzeko kontuan izan beharrekoak.
- 3. Genero inpaktua ebaluatzeko txostenak egiteko prozedura;** txosten horiek izaera orokorreko xedapenei buruzkoak izango dira, eta xedapenen egitura eta edukia ezartzeko pausoak jorratzen dituzte. Atal honen amaieran, prozeduraren azken pauso gisa, txostenean aipatutako gomendioak arau juridikoetan horiek onartu eta argitaratu aurretik sartzan direla bermatzeko kontuan hartu beharreko alderdiak aipatzen dira.
- 4. Eranskinak:**
 - ✓ **Egiaztapen zerrenda,** arau juridikoak genero berdintasuneko printzipioari zein mailatan egokitzen zaizkion egiaztatzeke, arau horiek onartu aurreko pauso gisa.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- ✓ **Genero inpaktua ebaluatzeko txostenaren eredia.**
- ✓ **Glosategia,** genero teoriari eta gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunari buruzko oinarriko terminoak biltzen dituena, araudia genero ikuspegitik aztertu eta prestatzeko prozeduran erabiltzen diren terminoak, hain zuzen.
- ✓ **Foru arau baten txostenaren adibidea.** Arau hau da txostena egiteko prozesuaren adibiderako erabili dena.
- ✓ **Egintza administratibo baten txostenaren adibidea.**

1. JUSTIFIKAZIOA

Nazio Batuek sustatu eta Beijingen 1995ean egin zen *Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzian*, emakume eta gizonen arteko benetako aukera berdintasuna lortzeko baterako laneko konpromisoak ezarri ziren eta, horretarako, estrategia politikoak sustatu eta beharrezko baliabideak mobilizatu ziren. Orduan hartutako estrategia berriak *berdintasun printzipioa, zeharka, politika orokorretan sartzea* suposatzen du. Horrek esan nahi du oztopoak murriztu eta emakumeen egoera (enplegua lortu eta mantentzea, gizarteko hainbat esparrutan parte hartzea, etab.) hobetzeko esku hartzeaz gain, genero berdintasuna erakunde politikak eta ekintzak informatu eta egituratzeko printzipio gisa hartzen dela, eta politika eta ekintza horien helburuen artean genero desberdintasunak murriztea egon behar duela.

Genero *mainstreaming* gisa ere ezagutzen den estrategia horrek eragiten du erakunde politika eta ekintzen burutzea eta ebaluazioa *genero ikuspegitik* egin behar izatea, ekintza horiek onura egingo dieten pertsoneri (emakume eta gizonak) emanaz lehentasuna eta, edonola ere, emakume eta gizonen berriazko behar eta interesak kontuan izanda.

Gizarte demokratikoen testuinguruan, **izaera orokorreko xedapenak egitea** da gizarte mailako *baliabide eta zerbitzuak eskuratu edota kontrolatzeko prozedura arautzeko tresna nagusia*. Ulertzen badugu araudiak *interes eta*

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

*lehentasun politiko*en isla direla, genero berdintasuna sustatzearekiko konpromisoak agerikoa izan beharko luke arau juridikoak egiterakoan. Lehentasuna denez gero, horretarako emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak bildu beharko ditu xedapen zatian, araututako esku-hartze esparruaren arabera.

Planteamendu horren arabera, genero ikuspegia araudia planifikatu eta ebaluatzerakoan aplikatzeari sustapena eta legitimazioa eman dio estatuko, autonomia erkidegoko eta probintziako lege esparruak. Jarraian, esparru horretako lege erreferentzia nagusiak biltzen dira:

ESTATUKO ARAU ESPARRUA

- Botere publikoek Espainian berdintasunaren alde esku hartzeko duten betebeharra **Konstituzioaren 9.2 artikuluan** biltzen da, botere publikoek berdintasuna sustatu eta hori eragozten duten oztupoak desagerrarazteko betebeharra ezartzen baitu.
- **2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunerakoa**, da, zalantzarik gabe, inflexio puntua, genero berdintasunaren zeharkakotasunari eta arau juridikoak egin, interpretatu eta aplikatzeko prozesuan aplikatzeari egiten baitie erreferentzia:
 - ✓ **4. art. Berdintasun printzipioa arauen interpretazioan eta aplikazioan sartzea:**
Emakume eta gizonen arteko tratu eta aukera

berdintasuna **antolamendu juridikoko informazio printzipioa** da eta, horrenbestez, arau juridikoen interpretazioan eta aplikazioan sartuko da eta kontuan izango da.

- ✓ **15. art. Emakume eta gizonen arteko tratu berdintasunaren printzipioaren zeharkakotasuna:** Emakume eta gizonen arteko tratu berdintasunaren printzipioak, zeharka, botere publiko guztien jardunaren berri emango du. Administrazio publikoek **arau xedapenak hartu eta burutzerakoan sartuko dute**, esparru guztietako politika publikoak definitu eta aurrekontua egiterakoan eta beren jarduera guztiak burutzerakoan.

EUSKADIKO ARAU ESPARRUA

- Autonomia erkidegoak berdintasuna sustatzeko duen konpromisoa **2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoarekin**, gauzatu zen; berdintasuna politika orokorren eta berariazkoen printzipio nagusi gisa hartzeko ezartzen du eta arau juridikoak eta horiek duten genero inpaktua ebaluatzeko aurretiko txostenak sustatzeko neurriak biltzen ditu:

- ✓ **3. art. Printzipio orokorrak. Genero-ikuspegia sartzea:** *"Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan,*

halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten”.

✓ Legearen **IV. kapituluak** (18-22. art.) **administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak** aipatzen ditu.

- 18. art. Xedapen orokorrak: *"Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteez modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua”.*

- 19. art. Generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzea: *"Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean”.*

- 20. art. Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak¹: "Eraginaren ebaluazioa kontuan hartuta, administrazio-arau edo -egintzaren proiektuan neurriak sartuko dira, emakumeek eta gizonek kolektibo modura hartuta bizi duten egoeran neurriok izan dezaketen eragin negatiboa ahalik eta gehien neutralizatzeko, antzemandako ezberdintasunak gutxitu edo ezabatzeko eta sexuberdintasuna sustatzeko".

GIPUZKOAKO ARAU ESPARRUA

■ **4/2005 Legeak** berdintasunaren alorreko hainbat erantzukizun ezartzen ditu eta, zehazki, izaera orokorreko xedapenak egiterakoan berdintasun printzipioa kontuan hartzeari buruzkoak, zuzenean **foru administrazioei** eragiten dietenak:

✓ **6. artikulua, g** atala: "*foru-administrazioei dagokie foru-legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera*".

■ Horrez gain, berdintasun printzipioa izaera orokorreko xedapenen proiektuetan sartzeko eta genero inpaktua

¹ Lege horretako 18. artikuluan ezarritakoa betetzeko, euskal administrazio publikoen mendeko edo horiei lotutako departamentuek, erakunde autonomoek eta erakunde publikoek 19 eta 20. artikuluetan zehaztutakoa bete beharko dute, foru eta toki erakundeek, beren eskumenez baliatuta eta beren arauen bereizgarri diren ezaugarri formal eta materialen baitan antolamenduko eta funtzionamenduko beharretara egokitzearen kalterik gabe.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

ebaluatzeke aurretiko txostena egiteko derrigortasuna
2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauan,
Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde
Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari
buruzkoan, biltzen da:

✓ **70. artikulua.- Foru arauen aurreproiektuak
eta izaera orokorreko xedapenen proiektuak
egiteko prozedura:**

1. "Foru-arauaren aurreproiektuak eta izaera
orokorreko xedapenen proiektuak egiteko prozedura
jarraibide hauetara egokituko da:

b. Hastapen aginduak azalduko du laburki arauaren
gaia eta xedea, eta **txosten bat erantsirik izango
du**, non adieraziko baitira zer eragin izango duen
indarrean dagoen lege antolamenduan,
bideragarritasun ekonomikoa eta zer eragina izango
duen lurralde historikoaren aurrekontuetan, sektore
eta **genero**-araudiari jarraiki nahitaezkoak izan
daitezen izapide eta txostenak, eta, proposatzen den
arauaren esparrua eta edukia kontuan hartuta,
beharrezkotzat jo daitezen izapide eta txostenak".

■ Azkenik, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako**
Gipuzkoako 2008-2011 Planean, zeharka esku
hartzeko ardatz bat biltzen da eta horren helburua da
Gipuzkoako Foru Aldundian emakumeen eta gizonen
berdintasunerako politikak bultzatzea, Diputazioak
*egindako edo bideratutako jarduera, **araudi**, proiektu*

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

*eta ekintzetan generoaren ikuspegia egokitzea orokor
bihur dadin.*

Erreferentzia horiek *komunean* dituzten eta, ondorioz, botere publiko guztiei, alegia, *estatuko, autonomia erkidegoko nahiz lurraldeko eta tokikoei*, eragiten dieten alderdi nagusiak honako hauek dira:

Botere publiko guztiak, politika orokorretan **genero berdintasunaren printzipioaren zeharkakotasunaren estrategia** aplikatzera behartuta daude.

Berdintasun printzipioa sartzeko **arau juridikoak egiteko prozesuan** du eragina, horiek hartzen baitira emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunerantz aurrera egiteko elementu gako gisa.

Arau juridikoetan berdintasun printzipioa zeharka sartzeko prozesuan oinarritzko tresna da **ebaluazio txostena egitea**, araua onartu aurretik izan dezakeen genero inpaktua aztertzeko.

2. ABIAPUNTUKO PREMISAK

Genero ikuspegia arau juridikoak egiteko prozesuan sartzeko eta arauen genero inpaktua baloratzeko aurretiko oinarritzko gaitasun eta ezagutza batzuk behar dira, eta ildo horretan ulertu behar dugu dokumentu honen helburua. Horrela bada, inpaktuari buruzko txostena idazteko prozedura eta pausoak deskribatu aurretik, ezinbestekoa da oinarritzkoak diren eta erlazionatuta dauden premisa batzuk aipatzea, horiek kontuan izateak genero berdintasuna sustatzeak dituen inplikazioak barneratzen lagunduko baitigu:

- Lehenik, argi utzi behar da berdintasuna sustatzearen **ardura botere publikoei** dagokiela zuzenean, eta, bereziki, administrazio publikoei, horiek baitute emakume eta gizonen arteko desberdintasunak konpentsatzeko eta berdintasuna lortzen laguntzeko neurriak ezartzen direla bermatzeko betebeharra.
- Bigarren, beharrezkoa da argi izatea genero berdintasuna lortzea **intentzio egintza baten emaitza** dela. Horrek esan nahi du berdintasuna sustatzeko konpromiso politikoak berariazko isla izan behar duela, berdintasunaren helburua argi ezarri eta izendatu eta hori lortzeko berariazko neurriak garatzearen bidez, bestela ez baita *benetako berdintasuna* lortzeko bidean aurrera egingo. Esku-hartze gehienak generoarekiko ikuspegi "opakoarekin" planifikatzen dira, alegia,

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

pertsonen bizi baldintzetan eragin nabarmena izan arren, ez da kontuan hartzen eragin ditzakeen emakume eta gizonen gizarte egoera eta estatus desberdina, genero desberdintasunak eta desorekak ezkutatu egiten dira. Hori dela eta, nahita ez izan arren, ondorioa abiapuntuko desberdintasun sozial horiek iraunaraztea da.

Abiapuntuan egoera desberdina duten pertsonen zuzendutako neurri berak, itxuraz "neutroak" direnak, garatzearen ondorioa da abiapuntuko desberdintasun horiek mantendu edo handitzea edo, bestela esanda, genero berdintasunean eragin negatiboa izatea. Beraz, **egoera desberdina dutenak berdintzatzeak praktikan egoera hori iraunaraztea eragiten du.**

- Generoaren "opakotasun" hori, neurri batean, arautzen ari garen baliabide edo prozeduraren atzean dauden pertsonak, alegia, arauaren eragina edo onura jasango dutenak (biztanleria oro har edo kolektibo jakinen bat), "ikusteko" zailtasunaren ondorio da. Berdintasun printzipioa aplikatzeak **esku-hartzearen erdigune pertsonak izatea** suposatzen du, ez araututako baliabide edo zerbitzuak soilik. Beharrezkoa da eragindako pertsonen (emakume eta gizon) aurreko egoetatik, horien behar eta interesetatik, abiatzea, arauak erregulatutakoa onartzeak horiengan eragin positiboa izango duela bermatzeko. Horregatik da beharrezkoa beharrak identifikatzeko aukera emango


**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

digun testuinguruaren informazioa izatea, **sexuaren arabera bereizitako datuen** nahiz **genero adierazleen** bitartez, horiek adieraziko baitute emakume eta gizonen egoera eta estatusa eta sexu bien arteko erlazioa, abiapuntuko genero desberdintasunak identifikatu eta horien arabera jardun ahal izateko.

- Azkenik, kontuan izan behar da onartutako arau gehienek eragin jakina dutela emakumeen eta gizonen bizitzan. Horrek esan nahi du, **kasu gehienetan, generoaren ikuspegitik kontuan hartu beharreko arauak** direla eta, ondorioz, *genero desberdintasunak murrizteko helburua* izan behar dutela (esku-hartzearen esparruaren arabera), emakume eta gizonengan emaitza bera izango dutela bermatzeko, araututako baliabideak eskuratu, erabili edo kontrolatzeari dagokionez.

Arau juridikoen edukia genero ikuspegitik ebaluatzeak aplikatzen direnean eragin positiboa izango dutela bermatzeko beharrezko neurriak ezartzeko aukera emango digu, onura bera izango dutela arauen hartzailleengan (emakumeak eta gizonak).

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.



3. GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO PROZEDURA

Genero inpektua ebaluatzeo txostena izaera administratiboko dokumentua da, arau, plan eta programen proiektuekin batera doana eta, arrazoituta eta egoki diren datuen bitartez objektiboki justifikatuta, arau, plan edo programaren edukiak, onartuz gero, emakume eta gizonen berdintasunean izango lukeen eragina adierazten duena.


Genero inpektuaren txostena berdintasun printzipioa arau juridikoak egiterakoan zeharka sartzea errazten duen tresna gisa ulertu behar da. Horrela bada, eta berdintasunerako bideko zeharkakotasunaren eta baterako erantzukizunaren printzipioarekin² bat eginez, txostena egiteko ardura **araua egiten duen organismo berak** hartu behar du bere gain. Horren **erabilgarritasun nagusia** da ezagutzea arau juridikoaren proiektuan aurreikusitako neurriek emakume eta gizonen onura bera egingo dieten edo desberdintasun egoera eragingo dion gizartean ahulena den sexuari.

² Berdintasun printzipioa politika orokorretan zeharka sartzeak ekintzen planifikazioan, kudeaketan, burutzean eta ebaluazioan inplikaturako eragile guztien *baterako erantzukizuna* eskatzen du. Horrek esan nahi du bakoitzak, bere eskumenen arabera, genero ikuspegia bere lanaren antolamenduan sartu behar duela; dagokion berdintasun erakundeak aholkua eta babes emango du zeharka sartzeko prozesuan.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Berdintasunaren alorreko egungo legeriak ezartzen du Gipuzkoako Foru Administrazioaren izaera orokorreko xedapenen proiektuek generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioarekin batera joan behar dutela (6/2005 Foru Araua). Ebaluatzeko metodoa edo bildu beharreko edukia zehazten ez dituen arren, Estatuan nahiz autonomia-erkidegoan indarrean dagoen legeriaren edukian oinarrituta, arau juridikoen genero inpaktua ebaluatzeko prozedura bat har dezakegu, ebaluazio txostenei forma eman behar dieten edukiak egituratuta.

Jarraian, **genero inpaktua ebaluatzeko txostena egiteko jarraitu beharreko pausoak** ikusiko ditugu. Laburbilduz, honako hauek dira:



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Pauso hauetariko bakoitzean honako gai hauek jorratuko ditugu:

- ✓ **Zer den:** zertan datzan eman beharreko pausoa.
- ✓ **Zertarako:** zein den bere erabilgarritasuna.
- ✓ **Nola egiten den:** zein irizpidetatik jorratu behar den pauso bakoitzean bildu beharreko edukia.

Prozedura errazago ulertzeko, pauso bakoitzean adibide bat emango da: "**Herritarren parte-hartzeari buruzko Foru Arau Proiektua**" (ikus testu osoa 4. eranskinean)

0 PAUSOA (AURRETIKOA). TXOSTENAREN OINARRIAK ETA HELBURUA

Txotena egiten hasteko eman beharreko lehen pausoa testuinguruan kokatzea da, zergatik egiten den justifikatzeko, honako informazio hau bilduta:

- 1.** *Arau juridikoaren izendapena edo izenburua*, maila eta ematen duen organo administratiboa zehaztuta.
- 2.** *Legegintzako testuingurua*, genero inpaktua ebaluatzeke txostena egiteko betebeharra ezartzen duena.
- 3.** *Txostenaren helburua* eta zein organori zuzentzen zaion.

Adibide gisa hartu dugun arau juridikoaren proiektuarekin jarraituta, koadroan adierazitako prozesua jarraitu beharko litzateke.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

ADIBIDEA (1). 0 PAUSOA. TXOSTENAREN OINARRIAK ETA HELBURUA

ARAU JURIDIKOAREN IZENBURUA: *Herritarren parte-hartzeari buruzko Foru Arau Proiektua, (araua ematen duen organoaren edo zuzendaritzaren izena, kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Kabinetea)k eginga.*

LEGEGINTZAKO TESTUINGURUA: Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeriaren eta hori emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren arabera aplikatzen denaren jarraipena egitea, eta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoaren, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko arau xedapenen aurreproiektuak egiteko prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

ARAU EMATEN DUEN ORGANOA, TXOSTENAREN HELBURUA ETA HARTZAILE DUEN ORGANOA: Eskakizun horiei jarraiki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Kabineteak txosten hau ematen du *Herritarren parte-hartzeari buruzko Foru Arau Proiektuaren* genero inpaktua ebaluatzeo, egoki diren oharrak egin eta txostena jaulki duen organoari igortzeko, beharrezkoa izango balitz, hark alda dezan, araua onartu ondoren genero inpaktua positiboa izango dela bermatzeko.

1. PAUSOA. ARAUA GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO DEN IDENTIFIKATZEA.

Txostena testuinguruan kokatu ondoren, hurrengo pausoa da identifikatzea arau hori egokia den genero berdintasunaren printzipioa sartzeko. Baina, zer esan nahi du horrek eta nola egiten da? Ikus dezagun.

1.1. ZER ESAN NAHI DU GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO IZATEAK? Aztertzen ari garen araua genero ikuspegitik jorratu beharrekoa den jakiteko eman beharreko *lehen pausoa* da. Kontua da identifikatzea ebaluatu beharreko arauak emakume eta gizonen arteko desberdintasunetan nola eragin dezakeen eta, ondorioz, beharrezkoa den genero dimentsioa kontuan hartzea araua egiterakoan.

1.2. ZERTARAKO BALIO DU? Generoaren ikuspegitik "neutrotzat" hartzen diren esku-hartze askok –emakume eta gizonentzat ondorio "berdinak" izango dituztela aurreikusten denak-, benetan, sexu biantzat ondorio desberdinak izan ditzaketela erakusteko. Bestalde, desberdintasunak agerian utzi eta horien arabera jardun aurreko pausoa da.

Arau juridikoak generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoak diren identifikatzeak errealitatea genero ikuspegitik aztertzea garrantzitsua den adierazten du eta berdintasunean izango duen eragina baloratzen du.

1.3. NOLA IDENTIFIKATU ARAUA GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO DEN?

GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTU BEHARREKO ARAUAK:

Arauaren xedearen identifikaziotik abiatuta, funtsezko hiru gai hartu beharko dira oinarri arau hori genero berdintasunaren printzipioa sartzeko egokia den ala ez aztertzeko. **Araua egokia izango da** eta, ondorioz, emakume eta gizonengan izango duen genero inpektua kontuan hartu beharko da, **honako bi baldintza hauek betetzen direnean:**

- ✓ **Hartzaileak.** Arauaren azken hartzailea pertsona fisikoak, juridikoak edo kide anitzekoak dira.
- ✓ Hartzaileengan izango duen eragina. Arauak, **zuzenean edo zeharka, emakume eta gizonei eragiten die, baliabideak eskuratu edota kontrolatzeari dagokionez**³. Beraz, emakume eta gizonen egoera edota estatusen eragina du, hori hobetu edo okertu egiten du. Arauak emakume eta gizonei nola eragiten dien identifikatzeko, alegia, zuzenean edo zeharka eragiten dien, honako adierazle hauek har ditzakegu oinarri:

³ Eskuratzeko baliabideak erabiltzeko aukerari egiten dio erreferentzia; kontrola, aldiz, horien erabilera eta onurari buruzko erabakiak hartzeari dagokio.


**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**


- **Eragin zuzena:** pertsonak baliabide jakin batzuk eskuratzeko aukera arautzen duenean (bekak, lanpostuak, batzordeen osaketa, etab.). Berehalako eragin zuzena du emakume eta gizonak gizartean duten estatusetan.
- **Zeharkako eragina:** baliabide edo zerbitzu jakin batzuk kudeatu edota ekoizteko moduan eragiten duten prozedurak arautzen dituenean (gizarteratzeko enpresak kalifikatzeko prozedura, jarduera eta instalazio jakin batzuen ingurumen kalitatearen kudeaketa arautzea, proiektu jakin batzuei pizgarriak ematea, etab.), atzean pertsonak daudenean kudeatzaile edota ekoizle gisa nahiz azken hartzaile gisa.

Pertsonengan zuzeneko edo zeharkako eragina duen eta baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukeran eragina duen esku-hartze oro generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoa da, horiek arauak eragiten duen esparruan duten egoera eta estatusa aldatu egingo baititu.

Kontzeptua argiago gera dadin, ikus dezagun eragin zuzena duen arauaren adibide bat, eta zeharkako eragina duenaren beste bat.

ADIBIDEAK. Generoaren ikuspegitik kontuan hartu beharrekoak diren arauak

 **Emakume eta gizonengan eragin zuzena.** Pentsa dezagun arau batekin desgaitasunak dituzten pertsonen administrazioan lanpostuak eskura ditzaten lanpostuak gordetzeko prozedura arautu nahi dela, kolektibo horren enplegarritasuna sustatzeko. Zer egin behar dugu kontuan hartu beharrekoa den jakiteko? Ikus dezagun. Arauaren *hartzailleak* desgaitasunen bat duten emakume eta gizonak dira, potentzialki, administrazioaren zerbitzuko langile izan daitezkeenak. Beraz, *kolektibo horri zuzenean eragiten dio* (bai eta enplegu publikorako hautaketa prozesuei eta lanpostuak eskuratzeko aukerari ere, eta, azkenik, horiek kudeatzen dituzten pertsonen). Enplegua eskuratzeko aukera erraztea denez helburua (*baliabidea*), araua generoaren ikuspegitik kontuan hartu beharrekoa da, desgaitasunen bat duten emakume eta gizonen aukera berdintasuna bermatu beharko duelako. Nola bermatu berdintasuna? Hurrengo atalean ikusiko dugun arren, desgaitasunen bat duten emakume eta gizonen errealitatea aztertu beharko litzateke, arauak erregulatzeko duen esparruan (enplegua) egoera desberdinean dauden, eta desberdintasun horiek kontuan izan, batzuen eta besteen berariazko beharrei erantzuteko.

 **Emakume eta gizonengan zeharkako eragina.** Adibide honetan, ebaluatu beharreko arauak aplikazio

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

eremuko enpresek (adibidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan jardutea eta baldintza jakin batzuk betetzea) ekipo informatikoak erosteko finantzazio lerro baterako deialdia egiten du.

Hartzaileak baldintza jakin batzuk betetzen dituzten probintziako enpresak dira. Baina enpresa horiek emakume eta gizonak osatzen dituzte, hainbat mailatan: zuzendaritza, kudeaketa, langileak, etab., eta horiek izango dira, azkenean eta zeharka, araututako baliabidearen onura jasoko dutenak. Pertsonak lehen planoan jartzeak suposatzen du enpresa horien ezaugarriak eta egoera aztertzea, alegia emakume edota gizonak osatzen dituzten -jabe izan daitezke-, bai eta langileen egoera aztertzea ere. Horrela jakingo dugu beharrezkoa den sexu biek eskainitako baliabidetik onura bera jasoko dutela bermatzea. Horrez gain, kasu honetan, kontuan izan beharko litzateke enpresek, giza baliabideen kudeatzaile diren aldetik, bertako kide diren emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa betetzeko betebeharra dutela, eta hori ere nolabait zehaztu beharko litzateke arauan.

**GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN
HARTZEKOAK EZ DIREN ARAUAK:**

Hala eta guztiz ere, arau guztiak ez dira generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoak, **ez baitiote emakumeek eta gizonek gizartean duten estatusari** edo berdintasuna lortzeko aukerari eragiten.

Kasu horretan, ebaluazio txostenean, justifikatu beharko da zergatik ez den kontuan hartzekoa eta araua idazterakoan erabilitako hizkera soilik berrikusi beharko da.

ADIBIDEAK. Kontuan hartzekoak ez diren arauak

☐ Ondasun bat administrazio batek beste bati eskualdatzea arautzen duten arauak; adibidez, estatuaren titulartasuneko ospitale bat autonomia erkidegoaren titulartasunera pasatzea.

☐ Zehatzago, imajina dezagun arau baten xedea dela airearen purutasuna neurtzen duen tresna baten kalibrea arautzea. Nola identifikatu kontuan hartu beharrekoa den ala ez? Aurreko baldintzak betetzen dituen kontuan izanda.

Tresna, kalibrea nola arautzen dena alde batera utzita, *pertsonek erabiliko dute*, beraz, *azken hartzaileak* ere horiek izango dira. Tresnaren kalibreak airearen purutasunean eragingo duenez, *pertsona orori eragingo dio* (zeharka). Arauak ez du baliabidea *eskuratze*ko edo *kontrolatzeko aukeran eragingo* -kasu honetan tresna bera-, arautzen dena tresna horrek izan beharreko kalibrea baita. Hala ere, kontuan hartu beharko litzateke

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

tresna fabrikatzeaz nor arduratuko litzatekeen arautuko balu⁴.

☐ Azkenik, har dezagun adibide gisa xedearen ondorio baliabide bat eskuratzeko aukera ez duena, erregistro bat sortzea kasu; bildu behar dituen eremu edo aldagaiak ezarri behar dira:

Erregistroa pertsonen erabiliko dutenez, eragina izango du haiengan, kudeatzaile edo erabiltzaile diren aldetik. Erregistroak biltzen dituen datuak alde batera utzita – pertsonen egiten badiete erreferentziak sexuaren arabera bereizita egon beharko dute-, hasiera batean, ondoriozta genezake ez dela kontuan hartu beharrekoa, ez duelako baliabidea eskuratu edo kontrolatzeko aukeran eraginik.

Araua genero berdintasunaren printzipioaren integrazioarako egokia den ala ez identifikatzeko gakoak azaldu ondoren, jarrai dezagun lehenengo adibide berarekin: *Herritarren parte-hartzeari buruzko Foru Arau Proiektua*. Ikus dezagun nola islatu behar den txostenean arauaren genero ikuspegiaren araberako egokitasuna:

⁴ Ildo horretan, arau horrek enpresak airearen purutasuna neurtzeko iragazkiak fabrikatzeko enpresen homologazioa arautuko balu, egoki izango litzateke genero berdintasunaren printzipioa sartzea. Kasu horretan, arauaren hartzaileak enpresa horiek izango lirateke, emakume nahiz gizonen osatuak, eta baliabidea, alegia "homologazioa", eskuratzeko aukeran eragingo luke. Homologazio hori lortzeko enpresa batzuk gainerakoekiko abantailan utziko litzuzke, eta horrek bertako langileek lanerako edo garapen profesionalerako aukera gehiago izatea eragingo luke.

ADIBIDEA (2): 1. PAUSOA. ARAUA GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO DEN IDENTIFIKATZEA.

ARAUAREN XEDEA: Foru arau honen helburua da hiritarren parte-hartze zuzenerako berariazko tresna eta prozedurak ezartzea Foru Aldundiari dagozkion gobernu eta administrazio eskumenez baliatzerakoan, herritarren eskubide demokratikoak garatu eta demokrazia eraikitzeko prozesuan partehartzezeko kultura sustatzeko.

EGOKITASUNA: Arauaren *hartaileak* Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan legez bizi diren pertsonak dira, bai eta bertako herritar erakundeak, beraz, *eragin zuzena* izango du herritarren multzoa osatzen duten gizon eta emakumeengan, arau honekin Lurraldeko politika publikoetako erabakitze prozesuetan parte hartzeko aukera ematen baitzaie, beren behar eta interesak kontuan izanda, araututako partaidetzazko tresna eta prozeduren bitartez.

Beraz, izaera orokorrenekin, aztertzen ari garen *Foru Arauaren* Aurreproiektuak hartzailezat emakume eta gizonak dituzenez eta baliabideak eskuratu eta kontrolatzeko aukeran eragiten duenez: **GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO DA.**

Ebaluatzen ari aren araua generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoa den identifikatu ondoren, gure ondorioa arestian jorrotutako irizpideen arabera justifikatuta, hurrengo pausoa arauak izango duen genero inpaktua aurreikusi eta baloratzea izango da, nola planteatu edo idatzita dagoenaren arabera. Hala eta guztiz ere, **araua generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoa bada soilik baloratu**

beharko da horren genero inpaktua, ez bada kontuan hartzekoa arauak ez baitu genero inpakturik izango.

2. PAUSOA. ARAUAREN GENERO INPAKTUA BALORATZEA

2.1. ZER ESAN NAHI DU? Genero ikuspegia kontuan hartzen ez bada, alegia, genero berdintasunari buruzko arauaren ondorioak kontuan hartuko ez balira, arauak emakume eta gizonengan izan ditzakeen ondorioak aurreikustea.

Generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoa den arau orok emakume eta gizonen bizi baldintzetan eta horiek baliabideak eskuratzeko dituzten aukeretan ondorioak izango ditu. *Ondorio hori da genero inpaktua.*

Arauaren genero inpaktua baloratzeko esku-hartzeak emakume eta gizonen berdintasunean izan dezakeen eragina (emaitza jakinak) zehazteko analisi prozesu bat egitea eskatzen du.

2.2. ZERTARAKO BALIO DU? Araua aplikatzeak izango dituen eraginak ezagutu eta jarduerak gizon eta emakumeentzat ondorio berak izango dituen edo, aldiz, araua aplikatzeak genero desberdintasuna sortu edo iraunarazi dezakeen egiaztatzeko.

2.3. NOLA BALORATU ARAUAREN GENERO INPAKTUA?

Arauaren genero inpaktua aurreikusi eta berdintasuna zeharka sartu ahal izateko, beharrezkoa da honako gai hauek kontuan izatea:

- Arauaren genero inpaktua baloratzeko lehen pausoa (egoki bada soilik) **arauaren hartzaile izango diren gizon eta emakumeen abiapuntuko egoera eta estatusa, arauak erregulatutako esku-hartze esparruari dagokionez, zein den** aztertzea izango da. Aurretiko azterketa hori egiteko, honako prozedura hau jarraitu behar da:



- Arauaren xedeari eta edukiari buruzko **informazio garrantzitsua biltzea, sexuaren arabera bereizita**⁵. Pentsatu behar da zer informazio ezagutu behar dugun arauaren hartzaile diren

⁵ Pertsoneri buruzko informazioa erabili edo sortzen badugu, datuak sexuen arabera bereizita eman behar dira beti, informazioa genero ikuspegitik erabilgarria izan dadin; bestela esanda, sexu biek araututako esparruan duten abiapuntuko egoera ezagutzeko informazioa izan dezagun.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

pertsonen abiapuntuaren inguruan, eta zer informazio izango litzatekeen garrantzitsua arauaren edukiak antzemandako beharrak asetzen lagunduko duen ala ez baloratzeko. Emakume eta gizonen arautzen ari den gaian hierarkikoki zein egoera eta estatus duten, baldin badago, deskribatu ahal izateko lehen pausoa da.

Horretarako kopuruari nahiz kalitateari buruzko informazioa bilatu behar da. Honako hauek dira erabil daitezkeen zenbait informazio iturri: Interneten eskuragarri dauden estatistika ofizialak (EIN, Eustat⁶), arauak erregulatutako esparruko genero erlazioei buruzko aurreko azterlan edo ikerketak, etab.

- ▼ Datu garrantzitsuak bildu ondoren, **identifikatutako desoreka eta desberdintasunen** inbentarioa egin behar da. Inbentario horiek adierazi ahal izango dute gizonen arautzen den gaian presentzia handiagoa dutela – kide anitzeko organoren baten osaketari edo egiturari buruzkoa bada (batzordeak, epaimahaiak, etab.)- edo gizonen erosteko ahalmen handiagoa dutela, enplegu tasa handiagoa eta lan baldintza hobekak dituztela arlo horretan, etab. “Generoen arteko tartea” identifikatzea da, alegia, desberdintasunak identifikatu eta horien desberdintasunik eragiten duten identifikatzea.

⁶ <http://www.eustat.es> Euskadiko estatistika informazioa.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Helburua da bildutako informazioak emakume eta gizonen artean arautzen ari denaren inguruan estatusa eta parte hartzeko aukera baldintzatzen duten gizarte desberdintasunik badagoen identifikatzeko aukera ematea.

ADIBIDEA (3)

Aztertzen ari garen adibidearekin jarraituz, orain arte dakiguna da emakume eta gizonen egoeran eta estatusen eragin zuzena duen araua dela, kudeaketa publikoan duten parte-hartzea sustatzeko helburua duelako eta, ondorioz, generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoa dela. Zein izango da arauaren genero inpaktua? Ikus dezagun.

Arauaren genero inpaktua baloratzeko pausoak honela irudikatuko dira txostenean:

2. PAUSOA. GENERO INPAKTUAREN BALORAZIOA

2.1. DESBERDINTASUNAK IDENTIFIKATZEA

⇒ **Informazio garrantzitsua biltzea.** Arauaren helburuaren eta arautzen duenaren arabera, jarraian ematen dira eragiten dien gizon eta emakumeen egoera eta estatusari buruzko datuak, sexuaren arabera bereizita:

- Gipuzkoako elkarte sarearen ezauzgarriak: 2009an, 5.701 elkarte erregistratu ziren Gipuzkoan (Bizkaiarekin batera, Estatuan elkarte gehien dauden probintzia da). Elkarte horietatik 93 (% 1,6) berariaz "emakumea sustatzen" jarduten dira eta beste 17 (% 0,3) "talde feminista" gisa

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

erregistratuta daude.

Desberdintasunak identifikatu ahal izateko, beharrezkoa izango litzateke bildutako informazioa honako honekin osatzea⁷:

- Elkartetako kide diren emakume eta gizonen kopurua eta ehunekoa, elkartearen helburuaren (auzo elkarteak barne) eta karguaren (boluntarioa, zuzendaria,...) arabera bereizita.
- Berdintasunaren inguruko konpromisoa dutela idatziz frogatzen duten elkarteen kopurua (berdintasun plana, berdintasunerako neurriak, berdintasun printzipioa kontuan hartzen duten proiektuak...).

⇒ **Antzemandako desberdintasunak deskribatu eta identifikatzea:**

- Eskuartean ditugun datu urriek adierazten dute, elkarte sarean, emakumeen sustapena eta parte-hartzea helburu duten elkarteen portzentajea oso txikia dela, guztizkoarekin alderatuz gero.
- Daturik ez dagoenez, ezin da identifikatu generoen arteko tarterik badagoen emakume eta gizonen esparru publikoan duten parte-hartzearen inguruan, nahiz eta jakina den, oro har, sexuaren araberako bereizketa nabarmena dagoela elkarte sarean, kirolaren, erabakiak hartzearen edo garapen ekonomikoaren inguruko elkarteak maskulinizatuak daudela; aldiz, gizarte ekintzari lotutakoak, feminizatuak daude.
- Jakina da baita ere sexuari dagokionez osaketa mistoa duten elkarte gehienetan gizonen aldeko desoreka dagoela erabakiak hartzeko postuetan eta horrek emakumeak, gizarte talde gisa, desabantailako eta mendekotasuneko egoeran uzten ditu parte-hartze aktiboko prozesuetan.

⁷ Beharrezko informazioaren zerrenda egin da, ezin izan baita eskuratu.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Arauak eragiten dien gizon eta emakumeen abiapuntuko egoeraren eta estatusaren inguruko desberdintasunetatik abiatuta, eta genero desberdintasunak badaudela egiaztatuta, hurrengo pausoa txostenean arauak **antzemandako desberdintasunei zein neurritan erantzuten dien** islatzea izango da. Honako irizpide hauek erabil ditzakegu arauak abiapuntuko genero desberdintasunei erantzuten dien ala ez identifikatzeko:

- ✓ **Arauaren zioen adierazpenean edo hitzurrean** araututako esku-hartze esparruan genero desberdintasunak murrizteko beharra aipatzen den aztertzea, bai eta berdintasunaren alorrean indarrean dagoen legeria ere.
- ✓ **Helburuetan** emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu edo bermatzea biltzen den eta berdintasun printzipioa araua egiterakoan eta esku-hartzeko esparruan (enplegua, informazioaren gizartea, etab.) zeharka sartzeari erreferentzia egiten zaion **aztertzea**.
- ✓ **Arauaren artikuluetan** abiapuntuko genero desorekak murriztu eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriak biltzen diren **aztertzea**.

Inpaktua baloratzea. Antzemandako abiapuntuko desberdintasunen arabera, eta emaitza horiek arestian zerrendatutako zatietako arauaren edukiekin alderatuta, ondorioztatu beharko da zenbateraino lagunduko duen arauak desberdintasun horiek arintzen edo, aldiz, handitu egingo dituen. Oro har, arau baten inpaktua honelakoa izan daiteke:

+ Positiboa. Abiapuntuko desberdintasunaren aurreko arauaren erantzuna aurrez ezarritako irizpideen arabera da. Horrek esan nahi du esku-hartzeko alorrean dauden emakume eta gizonen arteko desberdintasunak orekatu edo murrizten lagunduko duela. Kasu horretan, txostenean adierazi beharko da nola lagunduko duen arauak berdintasuna garatzen, arlo hori aipatzen duten zatiei erreferentzia eginez:

- *Zioen adierazpenean* eta *helburuetan* berdintasun printzipioa aipatzen badu, koherentzia mailari erreparatu, alegia, neurriek aipatutako berdintasun helburuari benetako erantzuna ematen dioten.
- Arauan berdintasuna sustatzeko bildutako *berriazko neurriak* aipatzea (zein artikulua). Identifikatutako desberdintasun egoerak zuzentzeko arauan aurreikusitako neurri, baliabide edo prozedurak egiaztatzea, bai eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurri guztiak biltzen diren ere.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Adibidez, bereizketa bertikala desagerrarazten laguntzea emakumeek erakunde batean duten presentzia handitzearen bidez, paritate irizpideak ezarrita, gizonek etxeko kontuetan duten arduraren eta presentzia handitzeko neurriak ezartzea edo gizartearen berdintasunarekiko konpromisoa sustatzea, berdintasuna lortzeko neurriak dituzten entitateei sariak emanda.

- **Negatiboa.** Arauak ez badio berdintasun printzipioari erreferentziarik egiten zioen adierazpenean edo helburuetan eta ez badiu antzemandako abiapuntuko desberdintasunak murrizteko neurriak garatzen, eragina ziurrenik negatiboa izango da. Desberdintasun horiek desagerrarazteko ez bagara asmo osoz, emaitza desberdintasun horiek iraunaraztea izango da.

Adibidez, enpresa jarduerarako diru-laguntzak edo laguntzak ematen direnean portzentajerik altuena enpresa maskulinizatuei badagokie, edo eduki sexistak berariaz debekatzen ez badira irakaskuntzako materialetan, edo ez bada hizkera sexistaren erabilera desagerrarazten laguntzen, emaitza genero desberdintasunak iraunaraztea izango da, alde batetik, ez delako generoen arteko tartea murrizten enpresa jardueran eta, bestetik, irakaskuntzako materialetan genero estereotipoak transmititzen direlako.

ADIBIDEA (4)

Adibide berarekin jarraituta, genero ikuspegiaren arabera kontuan hartzekoa den eta emakume eta gizonen parte-hartzearen inguruko desberdintasunak identifikatu ondoren, hurrengo pausoa izango da arauak desberdintasun horiei zenbateraino erantzuten dien eta, horren arabera, izango duen genero inpaktua baloratzea:

2. PAUSOA. GENERO INPAKTUAREN BALORAZIOA. ADIBIDEA:

⇒ 2.2. ARAUAK ZENBATERAINO ERANTZUTEN DIEN DESBERDINTASUNEI

3. artikuluan aipatutako *arauaren helburuen* artean zehazten da "*Gizarte elkartasun eta integrazio maila handiagoak bermatzea, berariazko ekarpena eginez genero berdintasunaren, subjektu desfaboratu edo ahulenen interesen eta ordezkaritzaz-ahalmen txikienekoen interesen defentsaren arloan*" eta agerian geratzen da Foru Aldundiak emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko duen konpromisoa, lehentasunezko eta funtsezko elementutzat hartzen baitu politika publikoen kudeaketarako herritarren parte-hartzea sustatzerakoan. Horregatik zehaztu da honako hau: herritar erakundeen jarduera sustatzeko diru-laguntzak emateko "*kontuan hartuko da, bereziki, genero berdintasunaren (...) sustapena*" ere, 29. artikuluan aipatzen den moduan.

⇒ 2.3. INPAKTUA BALORATZEA

Herritarren parte-hartzearen alorreko genero desberdintasunetan jarriz arreta, eta arauan bildutako berdintasun printzipioaren berariazko aipamenera arabera, hasiera batean, aurreikus daiteke genero inpaktua positiboa izango dela foru araua onartzean. Hala ere, genero ikuspegitik berrikusi eta ebaluatu ondoren, berdintasun printzipioaren integrazioak pisu eta ikusgarritasun handiagoa izan beharko luke arauan, *ez baitira biltzen inpaktu benetan positiboa bermatzeko beharrezko neurri guztiak*, berdintasunaren alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera.

3. PAUSOA. ARAUAREN INPAKTUA POSITIBOA IZANGO DELA BERMATZEKO ALDAKETEN PROPOSAMENA

3.1. ZER DA eta ZERTARAKO BALIO DU? Ateratako ondorioa bada genero inpaktua negatiboa izango dela, abiapuntuko testuinguruari buruzko informazioaren eta arauak antzemandako desberdintasunei ematen dien erantzunaren arabera, puntu honetan iradoki beharrekoa da zer aldaketa egin beharko liratekeen arazoa konpondu eta berdintasunean eragin positiboa izango duela bermatzeko.

3.2. NOLA ETA ZER PROPOSAMEN EGIN DITZAKEGU?

Genero berdintasunaren printzipioa aipatu beharko litzatekeen arau zatiak adieraz ditzakegu, orain arteko egindako analisiaren arabera:

1. Genero berdintasunaren printzipioa ez bada berariaz biltzen **zioen adierazpenean:** proposa dezakegu berdintasunaren alorrean indarrean dagoen araudia aipatzeko, genero ikuspegiaren zeharkako integrazioari dagokionez, bai eta antzeman ditugun desberdintasunen ondorioz beharrezkoa dela justifikatu ere. Puntu honetan, egiaztatu behar dugu aztertutako araua hartzen duen legeriak esplizituki adierazten duen berdintasuna sustatzearekiko konpromisoa eta, hala bada, adierazi.

2. **Arauaren helburuen artean** ez bada biltzen berdintasuna sustatzea, arauak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta berdintasun printzipioa

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

zeharka arauaren idazketan sartuko dela bermatzeko konpromisoa agerian utzi behar dugu. Berdintasun printzipioaren aipamen esplizitua egin behar da arauaren helburuetan, abiapuntua ezarri eta inplikaturako eragile guztien konpromisoa laguntzeko.

3.Artikuluak: berdintasuna lortu edo diskriminazioak saihestu ditzaketen arauen artikulua guztietan desorekak eta desberdintasunak murrizteko beharrezko konpentsazio ekintzak sartu behar dira, bai eta egoera horiek gertatzea eragotziko duten debeku eta zehapenak ere. Identifikaturako desorekak konpentsatu edo zuzentzeko neurriak hainbat motakoak izan daitezke, arauak arautzen duen alderdiaren arabera, adibidez:

- **Kanpoko entitateekin zerbitzuak kontratatu, lankidetzan hitzarmenak sinatu edota laguntza edo diru-laguntza publikoak ematea** aurreikusten bada, plegu administratiboetan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean arau-hauste larriagatik zigor irmorik jaso ez duten entitateekin lankidetzan jardutea bermatzen duten irizpideak sartzea proposa daiteke, bai eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako neurriak garatzen dituztenei lehentasuna ematea ere.
- Kide anitzeko organoak, batzordeak, epaimahaiak eta abar **nola osatu behar diren** arautzen badu, organo horiek **emakume eta gizonen arteko ordezkariak orekatuaren** printzipioaren arabera (% 60-40) osatuko direla zehaztu beharko da.

- Administrazioako **lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko irizpideak** arautzen baditu, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatuko duten irizpideak zehaztu beharko dira. Horren inguruan ezar litekeen neurrietariko bat ordezkari txikiena duen sexuarentzat lanpostuak gordetzea izan liteke, betiere gaitasun eta ezagutzen inguruko eskakizunak betetzen badituzte⁸.
- **Organoren baten funtzioak** arautzen baditu, berdintasunaren alorrean indarrean dagoen legeria betetzen dela ziurtatzea eta neurri egokiak ezarriz susta dadin sartzea beharrezkoa den ikusi beharko da, esku-hartzearen esparruaren arabera.
- Pertsonen buruzko datuak sistematizatzeko **erregistroren** bat arautzen bada, ziurtatu beharko da datuak sexuaren arabera bereizita daudela eta genero analisirako adierazle erabilgarriak biltzen dituztela.
- Arreta bera jarri beharko da arauan erregulatutako neurrien aplikazio mailari buruzko **txostenak edo diagnostikoak nola egin** arautzen bada. Ildo horretan, gaineratu dezakegu genero ikuspegia analisi irizpide gisa hartzen dela eta txosten honekin batera eragindako genero inpaktuaren balorazioari buruzko txostena egin behar dela.

⁸ Diskriminazio positiboko neurriak aldi baterakoak dira, horiei bide eman dieten genero desberdintasunek irauten duten bitartean baliatzen dira, eta horiek ezartzeko eskakizuna da baldintza beretan abiatzea, kasu honetan, lanpostuan jarduteko gaitasun berak izatea, gizartean ahulena den eta ordezkari txikiena duen sexuaren onura bermatzeko.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- **Argitalpenak, kanpainak edo komunikabideak** arautzen badira, irudietan nahiz idatzietan hizkera ez-sexista erabiltzen dela bermatu behar da.
- Arautzen dena administrazioaren zerbitzuko langileen **ikasketa planak, oposaketetako gai zerrendak edo etengabeko prestakuntzarekin** zerikusia duen alderdiren bat bada, edukietan generoaren eta berdintasunaren inguruko edukiak sartuko dira. Halaber, ikasketa planen kasuan, curriculumeko materialak berrikusteko derrigortasuna ezartzen duen klausula bat gehituko da, estereotipo sexistarik ez dutela, emakumeek historian zehar gizartearen eta ekonomiaren garapenari egiten dioten ekarpena biltzen dutela eta hizkera ez-sexista erabiltzen dutela ziurtatzeko.
- **Herritarrei edo kolektibo jakinen bati zuzendutako laguntzen esleipena arautzen** bada, esleitzeko baremoan erosteko ahalmen desberdina konpentsatu beharko litzateke, sexurik ahulenaentzat laguntza portzentaje handiagoa sartuta.

4. Hizkera: artikulua berrikusi eta berdintasuna bermatuko duten neurriak sartu ondoren, arauaren testuaren idazketa berrikusi eta ziurtatu beharko da ez dela hizkera sexistarik erabiltzen. Alegia, emakumeen nahiz gizonen ikusgarritasuna errazten duela, jorratutako alderdi guztietan; horrek desberdintasun arrazoi izan daitezkeen batzuen eta besteen egoerak ulertzen eta, ondoren,

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde jarduten lagunduko baitu.

Ebaluazio txostenaren xede den araua ez bada generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoa, hizkera izango da kontuan hartu beharreko alderdi bakarra, kontuan hartzekoa ez dena justifikatzeaz gain.

5.Xedapen indargabetzaileak. Arauak, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sartzerakoan, beste arau batzuen formari edo edukiari eragiten badio, emakume eta gizonen aukera berdintasunari buruzko araudiaren araberakoa ez den guztia indargabetuko duen klausula bat sartu beharko da.

ADIBIDEA (5)

Ikusi dugunez, emakume eta gizonen arteko berdintasunean eragin argia duen araua dugu (*Herritarren Partaidetzari buruzko Proiektua*), abiapuntuko genero desberdintasunak kontuan hartu dituen eta berdintasuna sustatzeko helburua duena. Hala eta guztiz ere, eta berdintasun printzipioari berariazko aipamenak egiten zaizkion arren, hurrengo pausoa araua onartutakoan eragina benetan positiboa izango dela bermatzeko egin beharreko aldaketak proposatzea da.

3. PAUSOA. ARAUAK ERAGIN POSITIBOA IZANGO DUELA BERMATZEKO PROPOSATUTAKO ALDAKETAK.

Jarraian, arauak genero berdintasuna sustatzen lagunduko duela bermatzeko proposatzen ditugun aldaketak adieraziko ditugu, arauaren helburuekin bat etorriz:

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- **Zioen adierazpenean** bertan, Foru Arauaren proiektuan ezarritakoarekin genero berdintasuna sustatzeko konpromisoa aipatuko da. Beraz, honako testu hau erantsiko da: "emakumeek gizonen maila berean gizartean parte hartzeko dituzten mugaketen eta oztopoen eta horiek gizarte demokratiko honetan garapenari egiten dioten ekarpena sustatzeko beharraren jakitun izanik, foru arau honetako neurrien zeharkako helburua da emakume eta gizonen arteko partaidetza orekatua sustatu eta bermatzea. Horrela bada, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan (15. artikulua), eta 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoan (3. artikulua) ezarritakoaren arabera, foru arau hau emakume eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioaren arabera planifikatu da, emakume eta gizonen arteko partaidetza orekatua sustatzeko, genero berdintasuna xede hartuta.
- **1. artikuluan, arauaren xedea definitzen denean:** Diputatu Nagusiaren Kabineteak testua honela aldatzea proposatzen du: "*Foru arau honen xedea da tresnak eta prozedurak arautzea, Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek eta Gipuzkoako herritar erakundeek parte har dezaten (...), emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren helburua benetan lortuko dela bermatuta, berdintasunaren alorrean indarrean dagoen legeriari jarraiki, emakume eta gizonen partaidetza orekatua bermatuko duten tresnak ezarrita*". Horri jarraiki, Arauaren helburuak zehazten direnean, **3. artikuluan**, argi utziko da arauak genero berdintasuna sustatzen lagunduko duela eta hori zeharkako printzipio izango dela aipatutako helburu guztietan: herritarren partaidetza sustatzea eta bultzatzea, eskubide demokratikoak garatzea, partaidetzaren kultura finkatzea, elkarte ehuna sustatzea, gobernuaren jarduera gardenago egitea, botere publikoak gizartearen behar eta dinamiketara zabaltzea eta, horretarako, toki entitateekin elkarlanean aritzea.
- **5. artikulua. Partaidetza eskubidea.** Argi utziko da: "egoiliarrek... eskubidea dute... gai publikoen kudeaketan parte hartzeko... *baldintza beretan, emakume eta gizonen partaidetza orekatua sustatuko delarik eta, bereziki, emakumeena, partaidetza eskasa duten erakunde mistoetan*"

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- **6. artikulua. Partaidetza prozesuetarako informazio eskubidea.** Honako hau zehaztuko da: "Foru Aldundiak pertsona egoiliar guztiei bermatuko die... tramitazio bidean dauden erabakitze prozedurei buruzko informazio eskubidea... *bai eta hedabideak berdin iritsiko direla emakume nahiz gizonengana, bai eta erregistroan izena emandako herritarren erakunde guztietara ere, eta informazio horretan hizkera ez sexistara erabiliko da*". Ohar bera egingo dugu 15. artikulurako, "Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak bermatuko du... partaidetzazko deliberazio prozesuaren irekierari eta garapenari buruzko informazioari ahalik eta zabalkunde handiena ematea" dioenean.
- **11. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuetako Protokoloa.** Artikulu honetan, zehaztuko da protokoloaren zeregin eta funtzio dela emakume eta gizonen arteko partaidetza orekatua sustatzea. Horretarako, honako atal hauek aldatuko dira:
 2. Protokoloa aipatzen denean, honako hau erantsiko da "*genero berdintasunaren printzipioa sartuko da protokolizatutako prozesuaren pauso bakoitzean*". Parte-hartzaileak hautatu edo izendatzeko bideak aipatzen direnean, hau zehaztuko da: "*emakume eta gizonen arteko ordezkariak orekatuaren printzipioa kontuan izanda*".
 3. "Deliberaziozko partaidetzarako ezinbestekoa izango da herritar erakundeak prozesuan parte hartzeko gonbidatzea, hain zuzen ere prozeduran hartu behar den politikari... dagokion esparruan diharduten erakundeak..." ondoren, honako hau gehituko da: "*genero berdintasuna sustatzeko ekintzak burutzen dituzten erakundeen partaidetza bermatuz, betiere araututako gaiak emakume eta gizonen egoeran edota estatusean eragingo badu*".
 6. "Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak... aukera izango du partaidetzazko deliberazio prozesuan aztertu behar den gairako *pertsona adituak* sartzeko..." dioen lekuan, honako hau proposatzen da: "*genero berdintasunaren alorreko adituek ere parte hartuko dute, betiere aztertzen den gaiaren arabera egokia bada*". Generoaren alorreko espezialista horiek Foru Batzordearen bileretan ere parte hartu ahal izango dute, aditu gisa (35. artikulua).
- **13. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuak egiteko herritarren ekimena.** 2. atalean honako hau aipatzen da: "partaidetzazko deliberazio

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

prozesuak gauzatzeko ekimenerako eskubidea izango dute... garatu behar duen edo hartu behar duen erabakiak eragiten diela deritzoten... egoiliarrek”, eta zehaztuko da Foru Aldundiak *“emakume eta gizonen partaidetza orekatua bermatu eta sustatuko du, erabaki politikoak hartzeko deliberazio prozesuetan egongo direla ziurtatuta”*. Artikulu berean, baina 4. atalean, honako hau aipatzen da: “Erregelamendu bidez zehaztuko dira herritarren ekimenez... bete behar dituzten baldintza formalak. Organo honek badaki, eta hala gehituko du arauan, izatekotan honako hau zehaztuko dela: *“ekimen horiek ez dituzte genero rola edo genero estereotipoak iraunkortuko”*, zehaztuz hori izango dela egokitzat ez jotzeko arrazoietariko bat. Ohar hau ere kontuan izango da Foru Aldundiak herri kontsultak egitea egoki ez jotzeko arrazoen artean (19. artikulua). Halaber, herritar erakunderen baten ekintzak berdintasunaren kalterako direnean, erregistroan eten egingo da (28. artikulua).

- **16. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuaren amaiera eta ondorioak.** Foru Aldundiak partaidetzazko prozesuaren inguruan egingo duen txostenak *pertsonak eta erakundeek egindako proposamenen kopurua eta mota bilduko ditu, sexuaren eta erakunde motaren arabera bereizita datuak.*
- **17. artikulua. Herri kontsulten definizioa eta edukia.** *Herri kontsulten plangintza egiterakoan, emakume eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko beharrezko neurriak garatuko dira.* Ohar bera egiten dugu **22. artikulua**ren inguruan (**Herritarren partaidetza foru arauen aurreproiektuen prestakuntzan**).
- **28. artikulua. Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroaren funtzionamendua.** Erregistroan erakundeen osaera organikoari buruz sartutako datu guztiak sexuaren arabera bereiziko direla gehituko da. Halaber, erakundeek aurkeztu beharreko dokumentazioan berdintasuna sustatzeko neurriak bilduko dira.
- **29. artikulua. Partaidetzarako herritar erakundeen jarduera sustatzeko dirulaguntzak.** “Era berean, kontuan hartuko da, bereziki, genero berdintasunaren... sustapena” esaldiari dagokionez, honako hau jarriko da: *“beren jarduerak genero ikuspegitik antolatzen dituzten eta berdintasuna sustatzeko neurriak garatzen dituzten erakundeei lehentasuna eman ahal izango*

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

zaie, eta beren jarduerak berdintasuna kaltetzen badute, diru-laguntzarik gabe utzi ahal izango dira. Ohar horiek ere kontuan hartu beharko dira Foru Aldundiak bere eskumenen esparruan herritarren partaidetza sustatzeko toki erakundeekin lankidetzak hitzarmenak sinatzen dituenean (42. artikulua).

- **31 eta 32. artikulua. Herritarren prestakuntza partaidetzarako eta Foru Aldundiaren zerbitzuko langileak partaidetzarako prestatzea.** Honako hau gaineratuko da: "prestakuntza programen joera izango da emakume eta gizonen partaidetza orekatua eta erakundearen presentziaren proportzio berekoa izatea, eta programa horiek genero berdintasunaren printzipioa zeharka sartuta antolatuko dira, berdintasuna herritarren partaidetzazko prozesuetan funtsezko printzipio gisa hartuta".
- **34 eta 36. artikulua. Gizarte Kontseilua eta Foru Batzardea.** Zehaztuko da "organo biak emakume eta gizonen ordezkariak orekatuen printzipioaren arabera osatuko dira".
- **38. artikulua. Foru Batzardearen funtzioak.** Funtzioen artean honako hau zehaztuko da: "Genero berdintasuna, alegia, partaidetzazko prozesuetan emakume eta gizonen partaidetza orekatua sustatzea, horretarako beharrezko neurriak bultzatuta, bai eta administrazioaren eta generoaren eta herritarren partaidetzaren gaitako herritarren prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea ere.
- **40. artikulua. Antolaketa (Foru Zuzendaritza).** Zuzendaria emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten irizpideen arabera aukeratuko da. Bestalde, Zuzendaritza autonomiaren, gardentasunaren, neutraltasunaren eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren irizpideen arabera jardungo da. Zuzendaritzarekin jarraituz, hurrengo artikuluan (41.a), funtzioei buruzkoan, honako hau gehituko da: "Partaidetza jarduerari buruzko txostena generoaren ikuspegitik egingo da eta emakume eta gizonen modu orekatuan parte hartzen duten partaidetzazko prozesuak hobetzeko iradokizunak bilduko ditu".
- **45. artikulua. Partaidetza prozesuen banakako ebaluazioa.** Zuzendaritzak ebaluazio txostena aurkeztuko du eta txosten hori genero ikuspegitik egingo da, eta burututako jarduerak eragindako genero inpaktuaren berri emango du. Ohar

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

hori herritarren partaidetzarako sistemaren ebaluazio orokorreko txostenerako ere kontuan izango da (46. artikulua).

- **Bigarren xedapen iragankorra. Herritarren partaidetzarako prozedurak eta tresnak modu iragankorrean aplikatzeko arloak.** Foru arau hau indarrean jarri eta hurrengo bi urteetan zehar, hainbat arlotan jarri ahal izango dira abian partaidetza prozesuak, *genero ikuspegia zeharka sartuta*.
- **Hizkera.** 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, *"Euskal herri-agintek ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan"*. Hori dela eta, Diputatu Nagusiaren Kabineteak beharrezkotzat jotzen du arauaren idazketan, gaztelaniazko testuan erabilitako ondorengo terminoak jarraian adierazitakoekin ordeztea:
 - "los participantes" esan beharrean, "los y las participantes".
 - *Los técnicos: el personal técnico*
 - *Expertos: personas expertas, edo especialistas*
 - *Los promotores: las personas promotoras, edo quienes promuevan*
 - *Los representantes: los y las representantes*
 - *Los directivos: las personas directivas*

Orain arte ikusitakoa sistematizatuta, ondoko koadroan laburtzen da Genero Inpaktua Ebaluatzeko Txostena egiteko gidaren egitura, atal bakoitzean bildu beharreko edukia zehaztuta:

GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENA

0. TXOSTENAREN OINARRIAK ETA HELBURUA

- a.** Arau juridikoa identifikatzea
- b.** Txostena egitea justifikatzen duen legegintzako testuingurua
- c.** Txostenaren helburua eta nori zuzentzen zaion

1. GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO DEN IDENTIFIKATZEA

- a.** Kontuan hartzea da: pertsonengan eta baliabideak eskuratu edo kontrolatzeko aukeran eragiten du zuzenean edo zeharka
- b.** Ez da kontuan hartzea: ez du baliabideak eskuratu edo kontrolatzeko aukeran eragiten eta, ondorioz, emakume eta gizonen egoeran edo estatusen ere ez. Erabilitako hizkera justifikatu eta egiaztatu.

2. GENERO INPAKTUAREN BALORAZIOA:


- a.** Sexuen arabera bereizitako datuen zerrenda
- b.** Genero desorekak eta desberdintasunak identifikatzea, aurreko datuetatik abiatuta.
- c.** Arau juridikoak desberdintasun horiei zein mailatan erantzuten dien (zioen adierazpen, xedea, artikulua)
- d.** Inpaktua baloratzea: positiboa, negatiboa

3. ALDAKETAK PROPOSATZEA

- a.** Zioen adierazpena/hitzaurrea/sarrera eta xedea
- b.** Artikuluak (neurrien proposamena)
- c.** Hizkuntza
- d.** Xedapen indargabetzaileak

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Hurrengo eskeman, argiago ikus daiteke txostena egiteko jarraitu beharreko prozedura, adierazi ditugun pausoen arabera.



4. AZKEN OHARRA: ARAU JURIDIKOA ONARTZEKO PROZEDURA.

Hasieran azaldu dugun moduan, genero inpaktua ebaluatzeke txostena prozesu zabalago baten parte da eta prozesu horren helburua da berdintasun printzipioa arau juridikoak egiterakoan zeharka sartzeari, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzen laguntzeko ezinbesteko pauso gisa.

Azken ohar gisa, atal honetan, txostena egin ondoren eta araua onartu aurretik ematen den pausoa jorratuko dugu, labur bada ere:

Genero inpaktua ebaluatzeke txostena idatzi ondoren, hori egiten duen organoak, arau proiektuarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo egiaztatzaileari igorriko dio. Honako hauek izan litezke organo egiaztatzaileak:

-Arau juridikoa sustatzen duen foru departamentua bera.

-Araubide Juridikoko Zuzendaritza, arau juridiko guztiak egiaztatzeaz arduratzen baita.

-Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeaz arduratzen den foru organoa.

Edozein kasutan, beharrezkoa izango litzateke organo egiaztatzaile gisa jarduten denak berdintasunaren alorreko ezagutzak dituzten langileak izatea, arduratuko zaien zeregina garrantzitsua baita.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- Organo horrek egindako txostena berrikusiko du eta, dagokion arau juridikoaren edukiaren arabera, berdintasunaren garapena laguntzen duela bermatzeko egoki diren oharrak egingo ditu. Ohar horiek araua eman duen organoari itzuliko zaizkio, arauaren azken idazketan kontuan izan ditzan, onartu eta argitaratu aurretik.
- Araua eman duen organoak arau juridikoaren edukia berregingo du, egiaztatu duen organoaren oharrak kontuan hartuta.
- Arau juridikoa berregin ondoren, genero berdintasuna sustatzeko eskakizun eta irizpide guztiak betetzen dituela egiaztatuko da. Hurrengo atalean, arau juridikoaren egiaztapena errazteko, egiaztapen zerrenda bat ematen da.
- Azkenik, arau juridikoa onartu eta GAO on argitaratuko da.

5. ERANSKINAK

- 1. ARAUA EGIAZTATZEA. EGIAZTAPEN ZERRENDAA.**
- 2. GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAREN EREDUA.**
- 3. OINARRIZKO TERMINOEN GLOSATEGIA.**
- 4. ADIBIDE GISA ERABILITAKO ARAU ERABAKIAREN TESTU OSOA.**
- 5. BESTE ADIBIDE BAT: ARAU ERABAKIA ETA TXOSTENA.**

Informazio hori Gidaren CDan kontsulta daiteke.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA
OROKORREKO XEDAPENEN GENERO INPAKTUA
EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK**



5. ERANSKINAK

1. ARAUA EGIAZTATZEA. EGIAZTAPEN ZERRENDA.

Idatzitako arauak emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa biltzen duen eta, ondorioz, genero berdintasunean eragin positiboa izango duen egiaztatzeke, ondorengo taulan bildutako irizpideen arabera egiaztapen prozesu bat egin daiteke.

Adierazitako alderdi bakoitza egiaztatuko da, eta arauak biltzen duen ala ez adieraziko da. Beharrezkoa ez den kasuetan "ez dagokio" adieraziko da. Zerrenda osatu eta "ez dagokio" adierazitako alderdiak alde batera utzita, arauaren egoki den zatietan erantzun negatiboak berrikusi eta aldatu:

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Aztertu beharreko edukia	Bai Ez	Ez dagokio
1. Sexuaren arabera bereizitako informazioa erabili da eta emakume eta gizonen arteko desoreka eta desberdintasunak identifikatu dira, araututako esku-hartze esparruari dagokionez.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Arauaren zioen adierazpenean edo sarreran, berariaz aipatzen dira emakume eta gizonen arteko desoreka eta desberdintasunak, arauaren xedearen eta edukiaren inguruan.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Arauaren zioen adierazpenean edo sarreran emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioari buruzko oinarrizko arauak aipatzen dira	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Xedean, araua egiterakoan berdintasun printzipioa zeharka sartzeari egiten zaio aipamena	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Arauaren helburuetan berdintasun printzipioa edota genero berdintasuna sustatzeko helburua aipatzen da	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Xedapenetan, artikuluetan edo ekintza programatuetan, berariaz aipatzen eta integratzen da berdintasun printzipioa	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Identifikatutako desberdintasunak zuzentzeko neurriak biltzen dira	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8. Kide anitzeko edo erabakiak hartzeko organoek ordezkaritza orekatua izatea (40-60) biltzen da	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9. Baliabideak, diru-laguntzen lerroak, laguntzak, programetako parte-hartzeak eta abar eskuratzeko baremazio irizpide gisa erabiltzen da berdintasuna	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Bai Ez	Ez dagokio

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

10. Arautu edo aurreikusitako kontratazio prozesuetan edota hitzarmenetan genero berdintasuna bermatzen duten klausulak biltzen dira	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11. Erregistro publikoen edukia arautzean, sexu aldagaia biltzen da, egoki bada, bai eta genero ikuspegitik garrantzitsua den bestelako informazioa ere	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12. Administrazio publikoko lanpostuak eskuratu, bete edota sustatzeko irizpideak arautzerakoan, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten neurriak biltzen dira	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13. Kolektibo jakinei laguntzaren bat esleitzen bazaie, genero berdintasuna bermatzen du desberdintasunak konpentsatzeko neurriak ezarrita	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14. Jarraipen eta ebaluazioko tresna eta prozedurak biltzen baditu, genero berdintasunaren jarraipena eta kontrola egitea ere biltzen da	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15. Hizkera ez sexista erabiltzen da testu osoan	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16. Testuak entitate gauzatzaileak hizkera ez sexista erabiltzera behartzen ditu	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17. Testuak irudiak zaintzera erabiltzera behartzen du (argitalpen edo hedapen kanpainetan), joera sexistarik izan ez dezaten	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18. Xedapen indargabetzaileetan, genero berdintasunari buruzko araudiaren araberakoa ez den oro indargabetzeko klausulak biltzen dira	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

**2. GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAREN
EREDUA.**

Jarraian, genero inpektua ebaluatzeke txostenak egiteko abiapuntu gisa hartzeke eredu bat ematen da, generoareen ikuspegitik kontuan hartzekeak ez diren nahiz badiren araudien berri emateke.

**GENERO IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKOA EZ DEN
ARAU BATEN GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO
TXOSTENAREN EREDUA**

ARAUAREN IZENBURUA: adibidez, LURRALDEKO JOKO ETA
APUSTUEN KATALOGOA ONARTZEKO DEKRETUA...

TXOSTENAREN OINARRIAK ETA HELBURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera, eta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoaren, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreke xedapenen aurreproiektuak egiteke prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

*(Arauaren aurreproiektua, plana edo programa proposatzen duen departamentuaren edo zuzendaritzaren izena)*k txosten hau igortzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiaztapen erakundeari *Lurraldeko joko eta apustuen katalogoa onartzeko dekretuaren proiektuaren* genero inpaktua ebaluatu eta egoki diren oharrak egin ditzan, ondoren organo honi itzuli eta, beharrezkoa izango balitz, aldaketak egin ditzan, arau onartu ondoren eragina positiboa izango dela bermatzeko.

**1. GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO
DEN IDENTIFIKATZEA**

Dekretu honekin joko eta apustuen hainbat modalitatearen izendapena arautuko da. Funtsean antolamendu izaera duen arau bat da, ez du gizartean inolako eraginik. Zuzenean edo zeharka gizon eta emakumeei eragiten ez dienez eta baliabideak eskuratzeko aukerari ere ez, araua: EZ DA KONTUAN HARTZEKO, beraz ez du genero inpakturik.

(Kasu honetan, justifikatu zergatik ez den kontuan hartzekoa eta hizkera berrikusi).

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

2. HIZKERA

2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, "Euskal herri-aginteez ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan". Gai honi dagokionez, eta euskarak genero gramatikalarik ez duenez, gaztelaniazko testuan irizpide orokor hauek hartu beharko dira kontuan.

- Testuan genero gramatikal maskulinoa erabiltzen denean genero orokor gisa, genero gramatikal femeninoaren berariazko aipamena egin beharko da, edo bikoizketa hori saihesteko, sexu biak biltzen dituen esamolde bat bilatuko da, komunztadura gramatikaletan arreta berezia jarriko da. Adibideak:
 - "ciudadanía" erabili "ciudadano" beharrez; "personal técnico", "los técnicos" beharrez; "infancia", "los niños" beharrez, edo "los niños y las niñas", etab.
- Genero markarik ez duten terminoak erabiltzen direnean, horiekin batera doazen artikulua eta determinatzaileetan jarri behar da arreta, horiek ematen baitiete jatorrian ez duten generoa.
 - Adibideak: "los y las profesionales", "los profesionales" beharrez; etab.

GENERO IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO DEN ARAU BATEN GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAREN EREDUA

ARAUAREN IZENBURUA: adibidez, HAUR ETA NERABEEN ARRETARAKO BATZORDEAREN OSAERA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ONARTZEKO DEKRETUA.

TXOSTENAREN OINARRIAK ETA HELBURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera, eta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoaren, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko xedapenen aurreproiektuak egiteko prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

(Arauaren aurreproiektua, plana edo programa proposatzen duen departamentuaren edo zuzendaritzaren izena)k txosten hau igortzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiaztapen erakundeari ... *proiektuaren* genero inpaktua ebaluatu eta egoki diren oharrak egin ditzan, ondoren organo honi itzuli

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

eta, beharrezkoa izango balitz, aldaketak egin ditzan, arau onartu ondoren eragina positiboa izango dela bermatzeko.

**1. GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO
DEN IDENTIFIKATZEA**

Izaera orokorrarekin, jorratzen ari garen arauak pertsonengan, emakume nahiz gizonengan, *eragin zuzena* duenez, Kontseiluko kide eta horrek eskainitako zerbitzu eta baliabideen balizko erabiltzaile direnez, araua: genero berdintasunaren printzipioa integratzeko KONTUAN HARTU BEHARREKOA da.

2. GENERO INPAKTUAREN BALORAZIOA

2.1. Desberdintasunak identifikatzea

Aztertutako arauaren genero inpaktua ezagutzeko, beharrezkoa da alde zuzenetik *emakume eta gizonen duten egoera eta estatusa adierazten duen informazioa* arauaren edukaren inguruan aztertu eta, ondoren, informazio hori genero ikuspegitik aztertzea, arauak erregulatzen duen gaiko generoen arteko tartea identifikatzeko.

Horrela bada, **4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 6. artikulua**, foru administrazioek berdintasunaren alorrean dituzten erantzukizunak ezartzen ditu, eta d atalean zehazten da administrazio horiei dagokiela "estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez foru-eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko". Artikulu hori aplikatzeak eragiten du **sexuaren arabera bereizitako honako informazio hau ematea** txostenean:

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- Arau honen xedea kontseilu baten osaera arautzea denez, eta batzuk karguaren ondorioz izango direnez kide, organoak osaera horren aurreikuspena sexuaren arabera egiteko konpromisoa hartzen du, emakumeen kopurua eta ehunekoa eta gizonen kopurua eta ehunekoa adierazita.
- Informazio horrek aukera emango digu egiaztatzeke genero desorekarik ba ote dagoen kontseiluko parte-hartzeari dagokionez, eta beharrezkoa ote den neurriren bat hartzea emakume eta gizonen parte-hartze orekatua ziurtatzeko.

2.2. Inpaktua baloratzea

Antzemandako desberdintasunetatik abiatuta, eta arauaren edukia aztertuta, baieztatu daitezke *Dekretuaren* proiektuak, Haur eta Nerabeen arretarako Batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamendua onartzekoak, **honako eragin hau izan dezakeela:**

- **eragin negatiboa genero berdintasunaren gainean, egungo genero desberdintasuneko egoera iraunarazten du**, ez baitu edukian emakume eta gizonen arteko berdintasuna kontuan hartzera behartzen duen erreferentziarik egiten eta itxuraz ikuspegi neutrotik idatzita dagoelako; "berdin" tratatzen deitu emakumeak eta gizonak, bien egoera eta estatusa berdina izango balitz bezala.
- (Eragin **Positiboa** izango balu, genero berdintasuna sustatzeko neurriak bilduta, txostenean genero

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

berdintasuna arauaren zein artikulutan aipatzen den identifikatu beharko litzateke).

3. ALDAKETAK PROPOSATZEA

3.1. Lehenengo, otsailaren 18ko **4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 6. artikulua arabera**, Euskal Autonomia Erkidegoko **foru administrazioek** dute **genero ikuspegia beren jardura administratiboan** sartzeko betebeharra, eta horrek esan nahi du zeharkakotasun printzipioa aplikatzea beharrezkoa dela.

Helburuetan honako hau zehaztu beharko litzateke: "berdintasunaren alorrean indarrean dagoen legeriaren arabera, arauaren edukia emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioaren arabera da, eta printzipio hori aplikatzen dela bermatzea du helburu..."

3.2. Bestalde, eragin negatiboa aurreikusten bada, emakume eta gizonen arteko berdintasunari erreferentzia egin beharko litzaiokeen arauaren zatiak aldatu beharko dira. Kasu horretan, Kontseiluaren osakeraz gain, funtzioetan ere jarri beharko genuke arreta, berdintasun printzipioa zeharka sartu behar baita horietan, ekintza guztiek sexu bien arteko aukera berdintasuna laguntzen dutela bermatzeko.

4. HIZKERA






2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, *"Euskal herri-agintek ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan"*. Gai honi dagokionez, eta euskarak genero gramatikalarik ez duenez,, gaztelaniazko testuan irizpide orokor hauek hartu beharko dira kontuan.

Testuan genero gramatikal maskulinoa erabiltzen denean genero orokor gisa, genero gramatikal femeninoaren berariazko aipamena egin beharko da, edo bikoizketa hori saihesteko, sexu biak biltzen dituen esamolde bat bilatuko da, komunztadura gramatikaletan arreta berezia jarriko da.


- Adibideak: "ciudadanía" erabili "ciudadano" beharrean; "personal técnico", "los técnicos" beharrean; "infancia", "los niños" beharrean, edo "los niños y las niñas", etab.


- Genero markarik ez duten terminoak erabiltzen direnean, horiekin batera doazen artikulua eta determinatzaileetan jarri behar da arreta, horiek ematen baitiete jatorrian ez duten generoa.
 - Adibideak: "los y las profesionales", "los profesionales" beharrean; etab.


3. OINARRIZKO TERMINOEN GLOSATEGIA.


-  **Sexua:** emakume eta gizonak giza espeziearen ar eta eme gisa bereizten dituzten ezaugarri biologikoak (adibidez, erditzea eta ernaltzea).
-  **Generoa:** gizartea desberdintasun biologikoetatik abiatuta eraikitzen duen antolamendu soziala. Horren bitartez, emakume eta gizonen jarrera, gaitasun eta jokabide desberdinak esleitzen zaizkie (adibidez, amatasuna eta aitatasuna).
-  **Genero rola:** emakumei (etxeke eta zaintzako ardurak) eta gizonen (produktzioaren inguruko ardurak) esleitzen zaizkien funtzio, jarduera eta ardurak, sexu biek gizartearen esparru desberdinetan duten parte-hartzea baldintzatzen dutenak.
-  **Genero estereotipoak:** emakume eta gizonen esleitzen zaizkien eta genero rola ikasi eta barneratzearen ondorioz azaltzen diren ezaugarriak (adibidez, indarra, adorea, independentzia eta anbizioa gizonen; samurtasuna, zaintza, lasaitasuna, mendekotasuna edo otzantasuna emakumeen).
-  **Androzentrismoa:** gizonen munduaren erdigune gisa hartzen dituen ikuspegi soziala. Horren ondorioz, errealitatea gizonen balio, jarrera, jokabide, bizipen eta interesen arabera interpretatzen da, emakumeen tratua desberdina eta diskriminazio soziala eragiten duelarik.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

 **Generoen arteko tartea:** sexu baten eta bestearen artean dagoen tartea, baliabide bat eskuratu, erabili edo kontrolatzeari dagokionez. Desorekaren eta desberdintasunaren maila kuantitatiboki neurtzeko aukera ematen du. Adibidez, azken udal hauteskundeetan hautatutako alkateen % 18tan badira emakumeak eta % 82 gizonak, generoen arteko tartea zifra bien arteko diferentzia da. Beraz, gai honetan 64 puntukoa da, gizonen alde.


 **Lanaren sexuaren arabera banaketa:** gizarteko eta etxeko zereginak sexuaren arabera banatzea, eta, ondorioz, lan jarduerak ere bai.


 **Lanbideen bereizketa horizontala:** emakumeak eta gizonak lanbide edo adar jakinetan biltzea, sexu batekoak edo bestekoak direnaren arabera. Emakumeak etxeko eta zaintzako zereginen inguruan bildu ohi dira, tradizionalki hala esleitu izan zaizkielako (osasuna, hezkuntza, erizaintza, etab.), eta gizonak espazio publikoan egin beharreko produkzioko zereginen inguruko jarduera sektoreetan (teknologia, ingeniariaritz, informatika, etab.).


 **Lanbideen bereizketa horizontala:** emakume eta gizonek presentzia desberdina izatea erabakiak hartzeko baliabide edo postuetan; goi karguak eta erantzukizuneko postuak, gehienetan, gizonek izan ohi dituzte. Erakunde baten hierarkia eskalan gora egiten den heinean, emakumeek geroz eta isla gutxiago dute,


**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**


lan merkatuak oztopo handiak jartzen baitizkie erantzukizun handiagoko postuak lortzeko.

 **Genero ikuspegia:** errealitatea aztertzea, emakume eta gizonen arteko desberdintasun sozialak oinarri hartuta eta sexu bien arteko genero desorekak eta desberdintasunak identifikatuta.


 **Genero mainstreaminga:** prozesu politikoak berrantolatu, hobetu, garatu eta ebaluatzea, genero berdintasuna sar dezaten erabakiak hartzen dituzten eta politikak praktikan jartzeaz arduratzen diren eragile inplikatuak jarduera esparru guztietan, maila eta aldi guztietan.

 **Ekintza positiboak:** desabantaila sozialak dituen taldea, kasu honetan emakumeena, baldintza beretan abiatuko dela bermatzeko aldi baterako neurriak, baliabideak aukera berdintasunean eskuratuko dituztela ziurtatzeko.

 **Berdintasun ekintzak:** sexu bati edo biei zuzendutako neurriak, benetako parekotasuna lortzea dutenak helburu, genero baldintzek emakumeak gizonak baino egoera ahulagoan uztea saihesteko. Diskriminazioaren arrazoia desagerraraztera zuzentzen dira, alegia, genero aurreiritzia desagerraraztera. Iraunkorrak dira.

 **Diskriminazio zuzena:** ordenamendu juridikoak berariaz debekatutako arrazoiren baten ondoriozko tratu desberdina.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

 **Zeharkako diskriminazioa:** itxuran neutroa den xedapen, irizpide edo praktika bat aplikatzeak sexu bateko pertsonak beste sexukoekiko desabantailan jartzen dituen egoera.

4. ADIBIDEAK

FORU ARAUA

ADIBIDE GISA ERABILITAKO ARAU ERABAKIAREN TESTU OSOA.

HERRITARREN PARTAIDETZARI BURUZKO FORU ARAUAREN PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

I. IDAZPURUA. XEDAPEN OROKORRAK

- 1. artikulua. Xedea.**
- 2. artikulua. Aplikazio esparrua.**
- 3. artikulua. Helburuak.**
- 4. artikulua. Herritarren partaidetzaren eraginkortasuna.**

II. IDAZPURUA. HERRITARREN PARTE-HARTZEARI LOTUTAKO ESKUBIDEAK.

- 5. artikulua. Partaidetza eskubidea.**
- 6. artikulua. Partaidetza prozesuetarako informazio eskubidea.**
- 7. artikulua. Partaidetza prozesuak garatzeko eskari eskubidea.**
- 8. artikulua. Ekimen eskubidea.**

III. IDAZPURUA. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO TRESNAK.

LEHEN KAPITULUA. PARTAIDETZAZKO DELIBERAZIO PROZESUAK.

**9. artikulua. Partaidetzazko deliberazio
prozesuaren definizioa eta edukia.**

**10. artikulua. Partaidetzazko deliberazio
prozesuen eremua.**

**11. artikulua. Partaidetzazko deliberazio
prozesuetako Protokoloa.**

**12. artikulua. Foru Aldundiaren eta Batzar
Nagusien ekimena partaidetzazko deliberazio
prozesuetan.**

**13. artikulua. Partaidetzazko deliberazio
prozesuak egiteko herritarren ekimena.**

**14. artikulua. Partaidetzazko deliberazio
prozesuak egiteko toki entitateen ekimena.**

**15. artikulua. Partaidetzazko deliberazio
prozesuaren garapena eta ondorioak.**

**16. artikulua. Partaidetzazko deliberazio
prozesuaren amaiera eta ondorioak.**

BIGARREN KAPITULUA. HERRI KONTSULTAK.

17. artikulua. Herri kontsulten definizioa eta edukia.

18. artikulua. Herri kontsultak egiteko ekimena.

19. artikulua. Herri kontsultak egiteko ekimenari buruzko erabakia.

20. artikulua. Herri kontsulten emaitzak argitaratzea.

21 artikulua. Herri kontsulten ondorioak.

**HIRUGARREN KAPITULUA. FORU ARAUEN
AURREPROIEKTUEN PRESTAKUNTZAN PARTE
HARTZEA.**

**22. artikulua. Herritarren partaidetza foru arauen
aurreproiektuen prestakuntzan.**

**LAUGARREN KAPITULUA. HERRITARREN
PARTAIDETZA PARTAIDETZAZKO DELIBERAZIOKO
BESTE TRESNA OSAGARRI BATZUEZ.**

**23. artikulua. Partaidetzarako tresnen
malgutasuna.**

24. artikulua. Partaidetzarako tresna osagarriak.

IV. IDAZPURUA. HERRITAR ERAKUNDEAK PARTAIDETZA PROZESUAN.

LEHEN KAPITULUA. HERRITAR ERAKUNDEAK

25. artikulua. Definizioa.

26. artikulua. Aintzatespena.

BIGARREN KAPITULUA. PARTAIDETZARAKO HERRITAR ERAKUNDEEN FORU ERREGISTROA.

**27. artikulua. Partaidetzarako Herritar
Erakundeen Foru Erregistroa sortzea.**

**28. artikulua. Partaidetzarako Herritar
Erakundeen Foru Erregistroaren
funtzionamendua.**

HIRUGARREN KAPITULUA. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO JARDUERA SUSTATZEA.

**29. artikulua. Partaidetzarako herritar
erakundeen jarduera sustatzeko dirulaguntzak.**

**30. artikulua. Partaidetzarako herritar
erakundeen jarduera sustatzeko hitzarmenak.**

31. artikulua. Herritarren prestakuntza partaidetzarako.

32. artikulua. Foru Aldundiaren zerbitzuko langileak partaidetzarako prestatzea.

V. IDAZPURUA. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ANTOLAKETA.

LEHEN KAPITULUA. PARTAIDETZA PROGRAMA.

33 artikulua.. Partaidetza Programa.

BIGARREN KAPITULUA. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITAREN PARTAIDETZARAKO GIZARTE KONTSEILUA.

34. artikulua. Sorrera eta xedea.

HIRUGARREN KAPITULUA. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO FORU BATZORDEA.

35. artikulua. Sorrera eta xedea.

36. artikulua Osaketa.

37. artikulua. Funtzionamendu erregimena.

38. artikulua. Eginkizunak.

LAUGARREN KAPITULUA. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO FORU ZUZENDARITZA

39. artikulua. Sorrera.

40. artikulua. Antolaketa.

41 artikulua. Eginkizunak.

**VI. IDAZPURUA. HERRITARREN PARTAIDETZA UDAL
MAILAN SUSTATZEA.**

**42. artikulua. Toki entitateetan partaidetza
sustatzea.**

**43. artikulua. Toki mailako partaidetza
praktikarako foru laguntza teknikoa.**

**44. artikulua. Partaidetza prozesuak eskatzea
toki mailako foru proiektuetan.**

**VII. IDAZPURUA. PARTAIDETZA SISTEMAREN ETA
PARTAIDETZA PROZESUEN EBALUAZIOA.**

**45. artikulua. Partaidetza prozesuen banakako
ebaluazioa.**

**46. artikulua. Herritarren partaidetzarako
sistemaren ebaluazio orokorra.**

XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehen xedapen iragankorra. Partaidetza sistema
ezartzeko trantsizio epea.**

Bigarren xedapen iragankorra. Herritarren partaidetzarako prozedurak eta tresnak modu iragankorrean aplikatzeko arloak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena. Erregelamenduzko garapena.

Amaierako bigarren xedapena. Indarrean sartzea.

ZIOEN AZALPENA

Gure inguruko ordezkari bidezko sistemak sendo finkatuta badaude ere, eta horietako instituzioen garapena erabateko normaltasunez gauzatu arren, ezinbestekoa da dituzten mugei aurre egitea, eta demokrazia-esperientzia partaidetzarako beste modu batzuetara zabaltzea, osagarri izan daitezke eta sistema demokratikoa aberasteko, are honen oinarriak tinkoago egiteko ere.

Gizarte gero eta konplexuagoak sortzen ari direla, eta horietan gizarte behar berriak agertzen direla, areagotu egiten da gizartearen eta instituzioen arteko tartea handiagotzeko arriskua, eta aldi berean ageriko egiten dira herritarrek parte hartzeko egiten dituzten eskari berriak.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Azken aldi honetan, instituzio eta foro nazional zein internazional esanguratsuenetan, agerian geratzen ari da herritarren partaidetza zuzenerako formak bultzatzeko beharra, hain zuzen ere, demokrazia ordezkagarriaren instituzioen osagarri modura eta gure gizartearen izaera demokratikoa sakontzearen. Honek bere isla du gure oinarritzko testu juridikoetan ere. Berrien eta berritzaileen artean, gogora ekarri behar ditugu Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Kartan jasotako printzipioak, Europar Batzordearen "Europar Gobernantza" liburu zurian, 2001eko uztailaren 25ekoan, jasoak, eta honi jarraipena eman dioten lanak, bazterrean uzteke, inolaz ere, Europar Kontseiluaren Ministroen Batzordeak 2001eko abenduaren 6an egin Gomendioa [Gom(2001)19], herritarrek bizitza publiko lokalean izan beharreko partaidetzari buruzkoa.

Foru arau honek gogoetok ezarritako norabide berean egin nahi du aurrera. Eta horretarako lurralde historikoko herritarren partaidetza zuzenerako tresnak eta prozedura espezifikoak ezartzen ditu, zentzurik zabalenean.

Izan ere, arau honek berritzailea izan nahi du. Lehenik, partaidetza zuzenerako prozedurak eta tresnak jasotzen dituelako gauzatze prozedura administratiboen esparruan. Ezartzen diren partaidetza zuzenerako formak gobernu instituzio baten esparruan zabalduko dira, Foru Aldundiarenean alegia, eta hau oso garrantzitsua da, partaidetza zuzenerako formak gobernu instituzio exekutiboen esparrutik at geratu izan dira eta. Bigarrenik,

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

ezartzen diren partaidetzarako tresna espezifikoek ezaugarriengatik.

Foru Araua zazpi idazpurutan egituratua dago, eta ditu berrogeita sei artikulua, bi xedapen iragankor eta bi amaierako xedapen.

I. idazpuruak xedapen orokorrak biltzen ditu eta, bertan, Foru Arauaren xedea eta helburua zehazteaz gainera, zer aplikazioaren esparru objektibo eta subjektibo izango duten definitzen da, hauexek direla: Foru Aldundiari dagozkion gobernu eta administrazioaren eskumenen erabilera eta Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek eta Gipuzkoako entitateak, Foru Arauak berak ondorio hauetarako halakotzat hartuak. Halaber, jasotzen du, baita ere, zer eragin izango duten partaidetza prozesuon emaitzak Lurralde Historikoaren gobernu eta administrazio eginkizunaren erabileran.

II. idazpuruak herritarren partaidetzari buruzko eskubideak erregulatzen ditu, araubide juridikoan ezarrita dauden eran, eta zehazki: Foru Aldundiaren eskumenekoak diren gai publikoen kudeaketan, partaidetza prozesuak eginez, parte hartzeko eskubidea; tramitazioan dauden erabakien gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, Foru Aldundiaren beraren egoitza elektronikoan emandako zabalkunde publikoaren bitartez; lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek partaidetza prozesuak abian jartzeko eskaria

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

egiteko eskubidea; eta pertsona egoiliarrek, herritar erakundeek eta toki entitateek, Foru Arau honetan aurreikusten diren partaidetza prozesuak abian jartzea proposatzeko, duten ekimenerako eskubidea.

III. idazpuruak, berriz, lau kapitulu ditu, eta herritarren partaidetzarako bitartekoak erregulatzen ditu.

Foru arau honek partaidetzazko deliberazio prozesuen ezarpena jorratzen du, nabarmen; prozesu horiek Foru Aldundiari dagozkion politika publikoak erabakitze prozedura administratiboetan txertatuko dira. Teknika honek aukera ematen du gizarte interes eta igurikapenen aberastasun osoa erabakitze prozeduran txertatzeko, betiere erabakiak hartzeko prozedurarentzat onuragarria izango den moduan. Partaidetzazko deliberazio prozesuekin bat, beste instrumentu mota osagarri batzuk aurreikusten dira, hala nola herri kontsultak edota foru arauen aurreproiektuen prestakuntzako partaidetza, horrelakoetan posible baita beste hainbat esperientzia ere egokitzea, partaidetza bidezko aurrekontuena edota azken aldi honetan zenbait esparrutan probatzen ari diren beste batzuk, esaterako. Azkenean, bada gauzatze praktikoaren unean partaidetzarako instrumentuen ezaugarriei buruzko aurreikuspenak malgutzea ahalbidetzen duen aurreikuspen bat.

IV. idazpurua hiru kapitulutan egituratua dago, eta partaidetza prozesuetan esku har dezaketen herritar

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

erakundeei buruzkoa da. Herritar erakundeei dagokienez, aurreikusten da ondorio hauetarako errekonozituak izatea, eta, horretarako, izena eman beharko dute Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan, zeina Foru Arauaren beraren arabera eratzten baita, erregelamenduz garatzea eragotzi gabe bada ere. Era berean, herritarren partaidetza sustatzeko neurriak aurreikusten dira.

V. idazpuruak lau kapitulu ditu, eta herritarren partaidetzarako antolaketa erregulatzen du.

Lehenik eta behin, Partaidetza Programa erregulatzen da, Foru Aldundiaren jardueraren baitan herritarren partaidetzari dagokionez egiten diren proposamen guztiak biltzen dituen.

Gainera, herritarren partaidetzarako sistema berritzaile batek, foru arau honetan ezartzen dena bezalako batek alegia, lortu nahi diren helburuei eta jasotako berrikuntzei egokitutako gobernu sistema egoki bat ezartzea eskatzen du. Partaidetzarako sistema txertatzen da, hain zuzen ere Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren artean dagoen konfiantzazko harremanen eta erantzukizun politikoaren ardatzean. Egitura honetan Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilu bat txertatzen da, partaidetza arloko kontsulta organo gisa; honek, Foru Aldundiaren jarduera arloetan ospe handia duten pertsonak izango ditu kide.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Foru arau honetan ezartzen den herritarren partaidetzaren gobernurako beharrezkoa da zuzendaritza eta koordinazio organo bat edukitzea. Ondorio horietarako, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzorde bat antolatuko da, eta honetan Foru Aldundiaren departamentu guztiak egongo dira ordezkaturak. Baina, aldi berean, partaidetza prozesuak autonomia tekniko eta partaideen aurrean eta, oro har, herritarren aurrean sinesgarri izanez kudeatu behar dira. Horregatik, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza bat ezarriko da, eta honek autonomia hierarkikoa eta funtzionala izango du. Ostean, Zuzendaritza honek bere gain izango du partaidetza prozesuak garatzeko erantzukizuna.

Foru Arau honetan oso garrantzi handia du Foru Aldundiaren eta toki entitateen arteko lankidetzak, herritarren partaidetza sustatzera begira, eta, xede horretarako, toki entitateetan partaidetza sustatzeko era erregulatzen du VI. idazpuruak.

Azkenik, partaidetza prozesuak ebaluatu egin behar dira, gauzatzeko eran etengabeko hobekuntza prozesua ezarri ahal izateko. Ebaluazio honek, funtzionamenduan halako epe zentzuzko bat eman ondoren, foru arau honek ezartzen duen sistema osoari eragin behar dio era berean, Batzar Nagusiek aukera izan dezaten araua moldatzeko edo egokitzeko prozesuari oinarri sendoz ekiteko; horregatik, hain zuzen ere, VII. kapitulua partaidetza sistemaren eta partaidetza prozesuen ebaluazioari buruzkoa da.

Ondorioz, foru arau honen bidez hainbat arau helburu lortu nahi dira, zenbait arlotan: a) arlo politikoan: eskubideak garatzea eta demokrazia sendotzea eta legitimatzea); b) arlo

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

ekonomiko-administratiboan: eraginkortasunaren hobekuntza, inertzia zuzentzeko bultzadak, erabakiak hartzea sinplifikatzea; c) birbanaketaren arloan: interes eta subjektu sorta zabalago bat hartzea aintzat; d) erabakitzeko arloan: erabakiaren sostengu sendoagoa, eztabaida publikoari, informazio hobeari eta zuzendaritza politikoaren, gizarte esperientziaren eta teknikarien espezializazioaren konbinazioari esker; e) arlo juridikoan: prozedura administratiboaren kontzepzio berria, interes publikoaren eta jarduera administratiboaren arteko identifikazioa gaindituz horrela, prozeduraren emaitzak kontuan hartzeari esker; f) administrazio arloan: diskrezionalitate administratiboaren esparruan erabakiak hartzeko orduan baliabide osagarri gisa; g) demokraziaren arloan: esfera publikoaren hedapenaz eta ordezkari, kudeatzaile eta herritarren arteko lankidetzaz osatutako ordezkartza-eskemaren gainditze partziala.

Irekiera honen ondorio baliotsua, beraz, elkarrekiko aintzatespen bat da, alde batean instituzioak direla eta bestean, berriz, bere interesak zehazten dituen eta horiek aintzatesteko eta asetzeko prest dagoen gizarte aktiboa.

Foru arau hau Batzar Nagusiei dagokien eskumena baliatuta ematen da, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 9.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat, eta 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanari buruzkoak, 7.a).1 artikuluan dioenaren ildotik.

I. IDAZPURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

1. Foru arau honen xedea da tresnak eta prozedurak arautzea, Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek eta Gipuzkoako herritar erakundeek parte har dezaten Foru Aldundiaren gobernu eta administrazio eginkizunen erabileran, foru eskumenen esparruan.

2. Foru arau honetan xedatutakoak osatu egiten du oro har antolamendu juridikoan edo, berariaz, Gipuzkoako Lurralde Historikorenean finkatutako erregulazioa, eta ez du, inolaz ere, herritarren partaidetza eskubideak murrizterik edo ahultzerik eragingo.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Foru arau honen aplikazio esparru objektiboa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren gobernu eta administrazio eskumenen erabilerari dagokio. Gainera, foru arau honek arautzen du lurralde historikoko toki entitateekiko lankidetza herritarren partaidetza sustatzera begira, eta horretara zuzendutako hainbat tresna jartzen dizkio eskura.

2. Aplikazio esparru subjektiboa Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalerritako pertsona egoiliarrek dira, bai

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

eta herritar erakundeak ere, eragotzi gabe partaidetza eskubideetako batzuk erabiltzeko berariazko beharkizunak eskatu ahal izatea.

3. artikulua. Helburuak.

Foru arau honen helburuak hurrenak dira:

- a) Herritarren partaidetza sustatzea eta bultzatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko gai publikoetan, eta partaidetza hori ezartzea Foru Administrazioaren funtzionamenduan, beronen kudeaketa maila desberdinetan.
- b) Herritarren eta herritarrak antolatzen diren taldeen eskubide demokratikoak garatzea, demokrazia ordezkatzailerako eskubideak eta teknikak osatzen eta hobetzen dituzten partaidetzazko demokraziaren prozesu, praktika eta tresnak baliatuta.
- c) Herritarren partaidetzaren kultura sustatzea eta finkatzea.
- d) Herritarrak kudeaketa publikoan inplika daitezen bultzatzea, publikoa interesatzen zaien herritar aktiboak izatearren.
- e) Gobernuaren jarduera gardenago egitea eta gobernu jardueraren eta gizartearen arteko lotura egituratzea lurralde historikoan.
- f) Botere publikoak gizartearen behar eta dinamiketara zabal daitezen bultzatzea.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

g) Politika eta administrazio jardura eraginkorragoa izan dadin bultzatzea gizarte elkarlanaren bidez, hain zuzen politika publikoen prestakuntzan eta lortutako emaitzen balorazioan baliatu ahal izatearren herritarren ezaguerak eta esperientziak ematen duten aberastasuna.

h) Gizarte elkartasun eta integrazio maila handiagoak bermatzea, berariazko ekarpena eginez genero berdintasunaren, subjektu desfaboratu edo ahulenen interesen eta ordezkaritza-ahalmen txikienekoeren interesen defentsaren arloan.

i) Elkarte ehuna sustatzea eta partaidetzaren kultura eta ohiturak zabaltzea.

j) Lurralde historikoko toki entitateekin elkarlanean aritzea, herritarren partaidetza sustatzeko eta erakunde horien gobernu eta administrazio jardueran partaidetza prozesuak aurrera eramateko.

4. artikulua. Herritarren partaidetzaren eraginkortasuna.

1. Foru arau honetan arautzen den herritarren partaidetza ordezkaritza bidezko parte hartzearen tresna osagarri bat da, Foru Aldundiak hartzen dituen erabakietako aniztasuna sendotzera zuzendua.

2. Foru Aldundiaren erabakitze prozeduretan herritarren partaidetzarako tresnak ezartzeak ez du inolako aldaketarik,

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

ez murrizpenik ekarriko Foru Aldundiak dagozkion erabakiak hartzeko unean izango duen ahalmen eta erantzukizunean.

3. Partaidetza prozesuetatik ondorioztatzen diren emaitzak bere egin ahal izango ditu Foru Aldundiak, Lurralde historikoko gobernu eta administrazio jardueran. Dena den, foru arau honetan aurreikusitakoa aplikaturik partaidetza prozesu bat izan den prozeduren kasuan Foru Aldundiak ez baditu bere egiten, osorik edo zati batez, prozesu haren emaitzak, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

II. IDAZPURUA

HERRITARREN PARTE-HARTZEARI LOTUTAKO ESKUBIDEAK

5. artikulua. Partaidetza eskubidea.

1. Gipuzkoako lurralde historikoko egoiliarrek, bai zuzenean bai dagozkien herritar erakundeen bidez, eskubidea dute Foru Aldundiaren eskumen diren gai publikoen kudeaketan parte hartzeko, antolamendu juridikoan ezarritako baldintzetan eta, zehazki, foru arau honetan aurreikusten diren prozeduren bidez.

2. Foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako, herritar erakunde interesatuak izango dira Partaidetzarako Herritar Erakundeak Foru Erregistroan behar bezala izen emanda daudenak, betiere izen-emate horretan aditzera eman duten interes, lurralde edo gai esparruari dagokionez. Hala eta guztiz, Foru Erregistroan izena eman gabe egoteak ez du

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

eragotziko berariaz prestatutako prozeduraren bidez partaidetza prozesuetan parte hartu ahal izateko gaitasuna.

3. Foru arau honen esparruan, herritarren partaidetzak bi bide izango ditu gauzatzeko, batetik pertsona egoiliarren eskubide indibidualak erabiltzea eta, bestetik, partaidetza prozesuak garatzea. Prozesu hauek egituratzeko hainbat fase izango dira, informazioa, eztabaida, ondorioak, zabalkundea eta ebaluazioa alegia, eta pertsona egoiliarrek eta herritar erakundeek parte hartuko dute horietan.

6. artikulua. Partaidetza prozesuetarako informazio eskubidea.

1. Oro har, Foru Aldundiak pertsona egoiliar guztiei bermatuko die bere departamentuetako edozeinetan tramitazio bidean dauden erabakitze prozedurei buruzko informazio eskubidea, lege antolamenduan ezarritako mugen barnean betiere.

2. Foru arau honetan erregulatzen den herritarren partaidetza ahalbidetzera begira, Foru Aldundiak, bere departamentuetako bakoitzaren bidez, jendaurrera zabalduko du tramitatzea dagozkion erabakitze prozedurei buruzko informazioa. Horretarako, departamentu bakoitzak, Foru Aldundiaren informazio eta komunikazio sistemak baliatuta, prestatuko ditu tramitatzen ari den prozeduraren gaineko ezagutza eta jarraipen puntuala ahalbidetzen duten informazioa eta dokumentaziorako sarbidea. Foru departamentuek arreta berezia jarriko dute kolektibo

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

desfaboratuenean edo ahulenean informazioarako sarbide eraginkorra izan dezaten.

3. Prozedura baten barnean foru arau honetan berariaz aurreikusitako herritarren partaidetzarako tresnak txertatzen direnean, eskumena dagokion Foru Aldundiaren departamentuak prozeduraren hasierari buruzko informazioa eman beharko dio, derrigorrean, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari, gaia dela eta interesatuak diren herritar erakundeei informazioa bermatzearen, honetaz gain, bete egin beharko da kasuan-kasuan eskumena duen foru departamentuari dagokion informazio obligazio orokorra.

7. artikulua. Partaidetza prozesuak garatzeko eskari eskubidea.

1. Pertsona egoiliarrek eskari eskubidea baliatu ahal izango dute Foru Aldundiaren organoen aurrean, honen eskumenekoa eta beren interesekoa den edozein gairi dagokionez, lege antolamenduan ezarritako baldintzetan betiere.

2. Zehazki, foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako, pertsona egoiliarrek Foru Aldundiaren barneko edozein erabakitze prozeduratan partaidetza prozesua egiteko eskari eskubidea erabili ahal izango dute, foru arau honek ezarritako baldintzetan.

8. artikulua. Ekimen eskubidea.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

1. Zehazki, foru arau honetan aurreikusitako ondorioetarako eta berariaz ezartzen dituen baldintzetan, pertsona egoiliarrek edo herritar erakundeek eskubidea izango dute Foru Aldundiaren erabakitze prozeduretan partaidetza prozesu bat garatzeko ekimena erabiltzeko.
2. Toki entitateek ekimenerako ahalmena izango dute, halaber, foru arau honetan araututako partaidetza prozesuak irekitzea proposatzeko.

III. IDAZPURUA

HERRITARREN PARTAIDETZRAKO TRESNAK

LEHEN KAPITULUA

Partaidetzazko deliberazio prozesuak

9. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuaren definizioa eta edukia.

Partaidetzazko deliberazio prozesu bat da erabakitze edo politika publiko jakin bat zehazteko prozedura batean sartzen den egintza multzoa, zeinaren xedea baita hartu behar den erabakiari eta horren ezaugarriari edota, kasua bada, esparru horretan dauden alternatibei buruzko eztabaida publikoa egitea, zuzeneko partaide izanik hartu behar den erabakiari edo politikari dagokion esparruan egoiliar diren pertsonak edo diharduten herritar erakundeak.

10. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuen eremua.

1. Foru arau honetan arautzen diren partaidetzazko deliberazio prozesuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan garrantzi edo eragin berezia duten politika publikoak zehazteko prozeduren barruan baliatu ahal izango dira.

2. Deliberaziozko partaidetzarako prozesuak prozeduraren hasierako fasean baliatuko dira; fase hori Foru Aldundiak hartutako erabaki batez hasiko da, non ezarriko baititu, aurretiazko izaeraz, gauzatzeko asmoa dagoen politika publikoaren oinarritzko ezaugarriak.

3. Salbuespen gisa, prozeduraren hurrengo faseetan ere deliberaziozko partaidetzarako prozesuak gauzatu ahal izango dira, proiektu edo politika publiko jakin batek, tramitazioan zehar, hasieran aurreikusi gabeko garrantzia bereganatu duenean, edo horren ezaugarriak sakonean aldatu direnean. Kasu hauetan, deliberaziozko partaidetzako prozesu bat gauzatzeko ekimena berriaz onartu beharko du Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak. Foru Batzordeak ekimena ezetsiz gero, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

11. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuetako Protokoloa.

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren iritziz, eta gaiaren izaera edo berezitasunak aintzat harturik, egokienak diren forma eta ezaugarriak izango ditu

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

deliberaziozko partaidetzak kasu bakoitzean, lurraldea edo gaia dela-eta interesatuak diren eta Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena emanda dauden erakundeei aurrez kontsulta egin ostean.

2. Aurreko atalean adierazitako ondorioetarako, Foru Zuzendaritzak partaidetzazko deliberazio prozesuaren protokolo bat onartuko du prozesu jakin bakoitzerako. Protokoloan zehaztu egingo dira partaidetza prozesuaren izaera eta ezaugarriak, egitura eta helburuak, arau izango dituen erregelak, ondorioak lantzeko prozedura, eztabaidagai izango diren gaiak eta eztabaidatik kanpo geratuko direnak, gehienezko partaide kopurua, hauen izaera eta, hala egokitzuz gero, partaideen arteko kategoriak, parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko edo izendatzeko mekanismoak, eztabaida prozesuaren gehienezko iraupena, prozesuaren zuzendaritzaren ardura izango duen pertsona eta Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak beharrezko iritzitako bestelako guztiak.

3. Deliberaziozko partaidetzarako ezinbestekoa izango da herritar erakundeak prozesuan parte hartzeko gonbidatzea, hain zuzen ere prozeduran hartu behar den politikari lurraldearen edo gaiaren ikuspegitik dagokion esparruan diharduten erakundeak, Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan egindako izen-ematean adierazia dutenarekin bat betiere.

4. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak izena emateko epe bat gaituko du Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena eman gabeak izan arren

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

partaidetza prozesuan esku hartzeko interesa duten herritar erakundeentzat. Honetaz gain, erakunde horien ordezkari gisa parte hartuko duen pertsona kopurua zehaztuko du eta, behar izanez gero, erakunde horietatik prozesuan parte hartuko duten pertsonak izendatuko ditu, protokoloan zehaztutako moduan betiere.

5. Prozeduran interes berezia duten norbanakoek ere parte hartu ahal izango dute partaidetzazko deliberazio prozesuetan. Partaidetza prozesu bat abian jarri aurretik, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak izen-emate epe bat gaituko du prozeduran interesa duten pertsona egoiliarrei zuzendurik, pertsona hauen ordezkari gisa jardungo duen pertsona kopurua finkatuko du, eta, Protokoloak zehazten duen prozedurarekin bat, ordezkari horiek izendatuko ditu.

6. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak, kasuan-kasuan dagokion esparruan Partaidetzarako Herritar Erakundearen Erregistroan izena emandako herritar erakundeei aurrez kontsulta eginik, aukera izango du partaidetzazko deliberazio prozesuan aztertu behar den gairako pertsona adituak sartzeko, hain zuzen ere partaideek baliatu ahal izan dezaten adituek ematen duten sostengu teknikoa.

12. artikulua. Foru Aldundiaren eta Batzar Nagusien ekimena partaidetzako deliberazio prozesuetan.

1. Foru Aldundiak ekimenerako ahalmena du partaidetzako deliberazio prozesuak egingo diren gai edo prozedurak finkatzeko.
2. Era berean Batzar Nagusiek, beren ekimenez, erabaki ahal izango dute Foru Aldundiak partaidetzako deliberazio prozesuak garatzea.

13. artikulua. Partaidetzako deliberazio prozesuak egiteko herritarren ekimena.

1. Partaidetzarako Herritar Erakundeek Foru Erregistroan izen emandako herritar erakundeek ekimen eskubidea baliatu ahal izango dute Foru Aldundiaren departamentuetako edozein tramitatzen hasitako erabakitze prozeduretan partaidetzako deliberazio prozesua egiteko, prozedura horiek, alderdi materialean edo lurraldeari dagokionez, beren interes eremuari eragiten diotenean, aipatu Foru Erregistroko izen-ematean jasota dagoen identifikazioarekin bat.
2. Era berean, partaidetzako deliberazio prozesuak gauzatzeko ekimenerako eskubidea izango dute Foru Aldundiak garatu behar duen politikak edo hartu behar duen erabakiak eragiten diela deritzoten Gipuzkoako lurralde historikoko pertsona egoiliarrek, baldin eta politika edo erabaki horrek modu bereziki nabarmenean eragiten dion lurralde historikoko, udalerriko edo eskualdeko adinez

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

nagusiko egoiliarretatik gutxienez ehuneko bi ordezkatzeko badute. Ondorio hauetarako, Foru Aldundiak zehaztuko du zein lurralde eremuri eragiten dion. Partaidetzazko deliberazio prozesu baten ekimena baliatzen dutenak bat ez badatoz foru organoak eragindakotzat jotzen duen lurralde eremuarekin, aditzera emango diote Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari, eta honexek erabaki beharko du gai hori, era arrazoituan.

3. Partaidetzazko deliberazio prozesu bat irekitzera begira norbanakoek duten ekimen eskubidea baliatu aurretik, honen berri eman beharko diote sustatzaileek Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari, prozedura hasi eta lehen hamabost eguneko epean, arau honetako 15.3 artikuluan aurreikusten diren eten eraginetarako. Jakinarazpen horretatik aurrera, sustatzaileek bi hilabeteko epea izango dute ekimena formalizatzeko.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko dira herritarren ekimenei, partaidetzazko deliberazio prozesuak erabiltzera begira, bete behar dituzten baldintza formalak.

5. Foru Aldundiak, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak proposatuta, gehienez ere hilabeteko epean hartuko du partaidetzazko deliberazio prozesua erabiltzeko ekimenaren gaineko erabakia. Proposamena ezetsiz gero, erabaki arrazoitua beharko da, ekimenaren gai izandako partaidetzazko deliberazio prozesua erabiltzeari egoki ez irizteko arrazoiak zehaztuta.

14. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuak egiteko toki entitateen ekimena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak garatu behar dituen politikak edo hartu behar dituen erabakiak eragiten dien toki entitateek ere partaidetzazko deliberazio prozesuak erabiltzeko ekimenerako eskubidea izango dute.
2. Honetarako erabakia eskumena duen organoak hartu beharko du, legearekin eta toki entitatearen erregelamendu organikoarekin bat.
3. Ekimena erabiltzeko erabakiak adierazi beharko ditu ekimena baliatzen duen toki entitatea bereziki eraginda izateko arrazoiak, partaidetzazko deliberazio prozesuak izan beharko lituzkeen ezaugarriekin eta, ekimenak aurrera eginez gero, prozesu honetan parte hartzeko proposatzen dituen pertsonekin batera.

15. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuaren garapena eta ondorioak.

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak erabakiko du zein unetan irekitzen den partaidetzazko deliberazio prozesua.
2. Partaidetzazko deliberazio prozesuaren irekitzeko unea erabaki ondoren, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak gehienez hilabeteko epea izango du partaidetza prozesuko protokoloa onartzeko.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

3. Politika publiko jakin bati loturik partaidetzazko deliberazio prozesu bat irekitzeak etenda utziko ditu hartu behar den azken erabakia baldintza dezaketen jarduketak, tramiteko ekintzak izan ezik.

4. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak bermatuko du prozedurak ukitzen dituen pertsona egoiliarren artean partaidetzazko deliberazio prozesuaren irekierari eta garapenari buruzko informazioari ahalik eta zabalkunde handiena ematea, herritarren partaidetzarik zabalena sustatzearen. Edonola ere, partaidetza prozesuaren protokoloa onartzeko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

16. artikulua. Partaidetzazko deliberazio prozesuaren amaiera eta ondorioak.

1. Partaidetzazko deliberazio prozesua amaiturik, honen ardura duen pertsonak prozesuko aktak igorriko dizkio Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari, hala egokitzuz gero lortu diren ondorioak adierazita.

2. Jasotako dokumentazioan oinarriturik, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak partaidetza prozesuari buruzko txosten bat prestatuko du, eta bertan jasoko ditu eztabaidatu diren gaiei buruzko proposamenak, hurrena Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari eta eskumena duen departamentuari helarazteko. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak jendaurrera aterako du

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

txostena, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango dio Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez. Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena emanda dauden herritar erakundeei aditzera emango zaie txostena argitaratu dela, eta baita, hala egokituz gero, prozesuan interesa zutela formalki adierazi duten erakunde eta pertsoneri ere.

3. Hiru hilabeteko epean, Foru Aldundiak, gaia dela eta eskumena dagokion departamentuak aurrez txostena eginik, erabakiko du partaidetzazko deliberazio prozesuak ekarritako ondorioek nola eragingo dioten hartu beharreko erabakiari edo politikari. Zehazki, Foru Aldundiak erabaki beharko du ekarritako ondorioek proiektuari uko egitea, proiektu alternatibo bat aurkeztea edo proiektua aldatzea dakarten edo, aitzitik, proiektua hasieran proposatu zen baldintza berberetan aurrera eramateko asmoa duen. Proiektua aldatzea erabakitzen badu, zehatz adierazi beharko du zein aldaketa erantsiko dizkion. Foru Aldundiak hartzen duen erabakiak arrazoituta egon beharko du, eta partaidetzazko deliberazio prozesuaren ondorioek ezarritakotik jotzen ez badu, horretarako arrazoiak eman beharko ditu.

4. Foru Aldundiak partaidetzazko deliberazioaren faseari amaiera emanez hartzen duen erabakiak prozeduraren tramitazioak aurrera segitzea ahalbidetzen du.

BIGARREN KAPITULUA

Herri kontsultak

17. artikulua. Herri kontsulten definizioa eta edukia.

1. Herri kontsultak herritarren partaidetzarako modu bat izango dira Gipuzkoako lurralde historikoan.
2. Foru Aldundiak, indarrean dagoen legediaren barnean eta foru eskumenen esparruan, herri kontsultak egin ahal izango ditu hartu beharreko erabakiaren edo politikaren baten gainean lurralde historikoko herritarren, guztien edo herritar talderen baten, iritzia zein den jakiteari egoki irizten dion kasuetan.
3. Foru arau honetan erregulatutako herri kontsultak modalitate guztietakoak izan daitezke, erreferenduma izan ezik; beraz, kontsultak ez dira izango hauteskunde-prozesuetako berezko betebeharrak eta bermeekin gairen bati buruzko iritzia eman dezan hautesleriarik zuzendutako deialdi formal bat.
4. Herri kontsultak egiteko, egoera bakoitzean egokien irizitako prozedura demoskopikoak erabili ahal izango dira, gaiaren izaera edo ezaugarriak aintzat harturik, pertsona egoiliarren partaidetza ahalik eta gardenena izan dadin, kasuan kasuko gaiari buruz duten iritzia emanaz.

18. artikulua. Herri kontsultak egiteko ekimena.

1. Foru arau honetan araututako herri kontsultak Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren ekimenez egin ahal izango dira.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

2. Era berean, foru arau honetan aurreikusitako herri kontsultak egiteko ekimenerako eskubidea izango dute Partaidetzarako Herritar Erakundeek Foru Erregistroan izena emandako herritar erakundeek, Erregistro honetan adierazitako jardueraren esparruan betiere. Ekimena idazki batean formalizatu beharko da; honetan, kontsultaren gaia adierazi beharko da, hartuko duen lurralde eremuarekin eta proposamengileen iritziz gaiaren zertzeladetarako egokiena den kontsulta formarekin batera.

3. Era berean, foru arau honetan aurreikusitako herri kontsultak egiteko ekimenerako eskubidea izango dute pertsona egoiliarrek, maila indibidualean, baldin Gipuzkoako lurralde historiko osoko edo Foru Aldundiak jorratu behar duen politikak edo hartu behar duen erabakiak modu bereziki nabarmenean eragiten dion udalerrri edo eskualdeko egoiliar adin nagusietatik gutxienez ehuneko bi ordezkatzeko badute.

4. Foru Aldundiak jorratu behar duen politikak edo hartu behar duen erabakiak eragiten dien toki entitateek ere herri kontsultak egiteko ekimena erabili ahal izango dute, Udaltzaren erabaki baten bidez; horretarako, ekimena erabiltzeko hartzen duten erabakian adierazi beharko dute zein den haiek toki entitateari era berezian sortzen dioten afektazioa, eta zein ezaugarri eduki beharko lituzkeen herri kontsultak.

5. Herri kontsultak egiteko ekimenaren erabilera erregelamenduz zehaztuko da.

19. artikulua. Herri kontsultak egiteko ekimenari buruzko erabakia.

1. Herri kontsultak egiteko ekimena Partaidetzarako Herritar Erakundeek Foru Erregistroan izena emandako herritar erakundeei edota, era indibidualean, pertsona egoiliarrei, edo toki entitateei dagokienean, Foru Aldundiak hiru hilabeteko epea izango du ekimenaren gaineko erabakia hartzeko. Erabaki arrazoitua eman beharko du, eta ekimena ezetsiz gero, adierazi egin beharko ditu Foru Aldundiak herri kontsulta egiteari egoki ez irizteko dituen arrazoiak.
2. Herritar erakundeek, egoiliarrek edo toki entitateek herri kontsultak egiteko baliatu ekimenari buruz Foru Aldundiak hartzen duen erabakiari publizitatea eman beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.
3. Edonola ere, Foru Aldundiak herri kontsulta bat egitea onartzeko hartzen duen erabakiak adierazi egingo ditu kontsultaren xedea, erabiliko den prozedura teknikoa, dagokion lurralde eremua, kontsulta egingo den unea eta egingo den kontsulta mota dela eta garrantzitsuak izan daitezkeen bestelako ezaugarri teknikoak edo beste mota batzuetakoak.
4. Foru Aldundiak hartu beharreko erabaki edo politika bati buruzko herri kontsulta egitea onartzen duen erabakiak etenik utziko du hartuko den azken erabakia baldintzatu dezakeen beste edozein tramite, herri kontsultaren prozesua amaitu arte.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

5. Foru Aldundiak herri kontsulta bat egin ahal izango du foru arau honetan aurreikusitako partaidetzazko deliberazio prozesu baten amaiera gisa.

20. artikulua. Herri kontsulten emaitzak argitaratzea.

Foru arau honetan aurreikusitako herri kontsulta bat egin ostean, Foru Aldundiak argitaratu egin beharko ditu ateratako emaitzak, kontsulta identifikatzeko datu tekniko guztiak zehaztuta.

21. artikulua. Herri kontsulten ondorioak.

1. Herri kontsulta baten emaitzak zehaztu ondoren, eta gaia dela eta eskumena duen departamentuak aurrez txostena egin ondoren, Foru Aldundiak, hiru hilabeteko epean, akordio baten bidez argitu beharko du lortutako emaitzek nola eragingo dioten hartu beharreko erabakiari edo politikari. Zehazki, Foru Aldundiak ezarri egin beharko du herri kontsultaren bidez lortutako emaitzek proiektuari uko egitea, proiektu alternatibo bat aurkeztea edo proiektua aldatzea dakarten edo, aitzitik, proiektua proposatu zen baldintza berberetan aurrera eramateko asmoa duen. Proiektua aldatzea erabakitzen badu, zehatz adierazi beharko du zein aldaketa erantsiko dizkion.

2. Foru Aldundiak hartzen duen akordioak arrazoituta egon beharko du, eta akordio hori ez bazaie herri kontsultaren

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

emaitzei egokitzen, hauek ez hartzearen arrazoiak eman beharko ditu.

3. Foru Aldundiaren akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan argitaratuko da.

4. Foru Aldundiak herri kontsultaren faseari amaiera emanaz hartzen duen akordioak prozeduraren tramitazioak aurrera segitzea ahalbidetzen du.

HIRUGARREN KAPITULUA

Foru arauen aurreproiektuen prestakuntzan parte hartzea

22. artikulua. Herritarren partaidetza foru arauen aurreproiektuen prestakuntzan.

1. Foru arauen aurreproiektuak prestatzeko lanetan herritarrek parte hartzeko formak ezarriko ditu Foru Aldundiak, horien xedea garrantzi bereziko gaiak direnean.

2. Foru arauen aurreproiektuak prestatzeko unean, herritarren partaidetza egoiliarren edo herritar erakundeen partaidetzaz gauzatuko da; pertsona edo erakunde horien jarduera eremuak, lurraldearen edo gaiaren ikuspegitik bereziki ukituta geratu beharko du prestatzen ari den arau aurreproiektuaz.

3. Herritar erakundeek edo egoiliarrek foru arau baten aurreproiektu jakin bat prestatzeko prozesuan parte hartzea

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

eskatu ahal izango dute, dagokien jarduera esparruan edo interesetan eragin berezia duela irizten diotenean. Foru Aldundiak partaidetza eskariaren gaineko erabaki arrazoitua hartuko du.

4. Artikulu honetan ezartzen diren herritarren partaidetzarako formak txertatzeko era egokituko da diputatu nagusiak, Batzar Nagusien aurrean, betetzeko konpromisoa hartzen duen legegintzaldiko egutegira.

LAUGARREN KAPITULUA

Herritarren partaidetza partaidetzazko deliberazioko beste tresna osagarri batzuek

23. artikulua. Partaidetzarako tresnen malgutasuna.

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak, bere ekimenez, eta prozedura jakin baten barnean partaidetza prozesu bat egiteko interesa duten herritar erakundeei aurrez kontsulta eginik, edota erakunde horietakoren baten ekimenez, ezarri ahal izango du partaidetza prozesua beste modalitate edo tresna batzuen bidez garatzea, edo beste aldagai batzuk sartu ahal izango ditu foru arau honetan oro har ezarrita dagoen partaidetzazko deliberazio prozesuan.

24. artikulua. Partaidetzarako tresna osagarriak.

1. Foru arau honetan jaso gabeko partaidetzarako tresna berriak ezarri ahal izango ditu Foru Aldundiak, herritarren

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

partaidetza helburuak betetzeko egokiak direla frogatuta baldin badago.

2. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak proposaturik, Foru Aldundiak ezarri ahal izango du Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak partaidetzarako tresna berria aplikatu ahal izatea ekarriko duen erregulazioa.

IV. IDAZPURUA

HERRITAR ERAKUNDEAK PARTAIDETZA PROZESUAN

LEHEN KAPITULUA

Herritar erakundeak

25. artikulua. Definizioa.

1. Foru arau honetan arautzen den partaidetzaren ondorioetarako, herritar erakundetzat hartzen dira pertsona juridikoak, irabazi asmorik gabeak, duten forma juridikoa eta izaera dena dela, baldin eta interes kolektiboen, hala orokorren nola sektorialen, defentsa badute xede, eta beren jarduerak, modu eskusiboan izan ala ez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatzen badituzte, bai lurralde osoa bai lurraldearen zati bat hartuta.

2. Foru arau honen ondorioetarako, kanpoan geratuko dira erakunde politikoak.

26. artikulua. Aintzatespena.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren herritar erakundeak herritarren partaidetzarako subjektutzat hartuko dira, foru arau honetan ezarritako moduan, eta partaidetza prozesuetan esku hartzeko eta hemen ezarritako eskubideak erabiltzeko ahalmena izango dute, foru arau honetan ezartzen eta erregulatzen den partaidetzarako Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena emanda Foru Aldundiak ondorio hauetarako aintzatesten dituenean.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako ondorioetarako, herritar erakundeek beren jarduera esparrua zehaztu beharko dute; alor batera mugatutako esparrua izan daiteke, edo lurralde mailakoa eta, kasu honetan, orokorra edo lurralde eremu jakin batera mugatua.

BIGAREN KAPITULUA

Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroa

27. artikulua. Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroa sortzea.

1. Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroa sortzen da. Foru Erregistro honen kudeaketa foru arau honetan sortzen eta erregulatzen den Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari dagokio.

2. Aurreko atalean ezarritako Foru Erregistroak bakar-bakarrik foru arau honetan erregulatzen den herritarren

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

partaidetzari lotutako eskubideak erabiltzeko subjektu izaera aintzatesteko ondorioetarako izango du indarra.

28. artikulua. Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroaren funtzionamendua.

1. Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroa bakarra izango da.
2. Erakunde bakoitzarentzat orri bat irekiko da, eta honetan jasota geratuko dira izen emateari buruzko datu guztiak; hasierako izen ematetik aurrera Foru Erregistroari aditzera ematen zaizkion aldaketa guztiak ere orri honetan jasoko dira. Erakunde bakoitzari dagokion orriari, protokolo baten bidez, bertan jasota dauden datuak aipatzen dituzten dokumentu guztiak erantsiko zaizkio.
3. Foru Erregistroan izena emateko eskariarekin batera erakundea eratzeko aktaren kopia kautotu bat aurkeztu beharko da, bere izaeragatik dagokion erregistroan izena eman izanari buruzko ziurtagiriarekin batera, horrelakorik baldin bada. Era berean, erakundeak Gipuzkoako lurralde historikoan duen helbidea jasota utzi beharko da, dituen zuzendaritza karguekin edo ordezkariarekin batera. Erakundearen ordezkariak edo zuzendaritzako kideek jasota utzi behar dituzte erakundearen egoerari eta zertzeladei buruz garrantzitsuak diren bestelako datu edo gertakari guztiak.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

4. Foru Erregistroan izena emateko eskarian jasota utzi beharko da, ezinbestean, erakundearen jarduera esparrua, foru arau honetako 26. artikuluan aipatua.

5. Foru Erregistroan izena emandako erakundearen ordezkariak edo zuzendaritzako kideek gaurkoturik mantendu behar dituzte, derrigorrean, erakundeari buruzko datuak. Erakundearen egoerari lotutako gertakariak edo datu garrantzitsuak ez jakinarazteak Foru Erregistroko izen-ematea etenik uztea ekar dezake, eta foru arau honen esparruan erakundeari egoki dakizkikeen eskubideak galtzea halaber, jakinarazpen falta hori konpondu arte.

6. Izen-emateetarako epea bi hilabetekoa izango da, eskaria eta eskatzen den dokumentazioa behar bezala aurkezten direnetik kontatzen hasita. Adierazitako epean berariazko ebazpenik ez bada, eskaria onartua dela ulertuko da. Epe hori, dena den, etenik geratuko da, izen-emateari buruzko edozein datu edo dokumentu konpontzeko edo argitzeko egiten den errekerimenduren bat izanez gero.

7. Izen-ematea ukatzeko erabakiak arrazoituta egon beharko du.

HIRUGARREN KAPITULUA

Herritarren partaidetzarako jarduera sustatzea

29. artikulua. Partaidetzarako herritar erakundeen jarduera sustatzeko dirulaguntzak.

1. Lurralde Historikoko Aurrekontuetan, urtero programa bat txertatuko da, herritarren partaidetza sustatzera begira.
2. Arlo honetan, Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izen emandako herritar erakundeentzako dirulaguntzak ezarri ahal izango dira, partaidetzari, partaidetzaren kulturaren sustapenari edo partaidetzarako prestakuntzari lotutako jarduerak sustatzearren.
3. Artikulu honetan aipatzen diren dirulaguntzak batez ere gizarte kolektibo desfaboratuenen, babesgabeenen edo gizarte bazterketa jasateko arrisku handienez dauden jarduerak bultzatzera zuzenduko dira. Era berean kontuan hartuko da, bereziki, genero berdintasunaren eta adineko pertsonen zein gazteen jardueraren sustapena.
4. Artikulu honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko unean, deialdiko oinarriak, aurrekontuko erregelak eta dirulaguntzen araubide juridikoan jasoak izango dira arau.

30. artikulua. Partaidetzarako herritar erakundeen jarduera sustatzeko hitzarmenak.

1. Foru Aldundiak eta herritar erakundeek lankidetzarako hitzarmenak egin ahal izango dituzte, baldin eta erakunde hauek gizartearen ordezkaritza garrantzitsua badaukate eta esperientzia badute partaidetza prozesuak bultzatzeko eta aurrera eramateko lanean. Herritar erakundeek beren gain

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

hartzen dituzten betekizunen edukia herritarren partaidetzaren inguruko jardueri buruzkoa izango da, esaterako partaidetza prozesuen sustapen, zabalkunde eta gauzatzea, horietarako prestakuntza eta ikaskuntzarekin batera.

2. Foru Aldundiak herritar erakundeei lagundu egingo die hitzarmenean finkatutako obligazioak bete ahal izateko beharrezko baliabide eta tresnak eduki ditzaten.

31. artikulua. Herritarren prestakuntza partaidetzarako.

1. Foru Aldundiak hainbat zabalkunde jarduera garatuko ditu, egoiliarrek jakin dezaten, batetik, lurralde historikoan herritarren partaidetza bultzatzeko politika garatzen ari dela, eta bestetik, zein diren foru arau honetan ezarritako herritarren partaidetzarako tresnak.

2. Foru Aldundiak herritarren partaidetzarako prestakuntza programak egitea sustatuko du, egoiliarren artean oro har, eta lurralde historikoan jardueraren bat duten herritar erakunde eta taldeen artean zehazki, herritarren partaidetzaren kultura sustatzearen.

3. Foru Aldundiak, era berean, pertsonen prestakuntza sustatuko du, herritarren partaidetzarako teknikak, tresnak eta prozesuak garatzeko eta aplikatzeko, hain zuzen foru arau honetan aurreikusten diren partaidetza prozesuak baldintza egokietan aplikatu eta martxan jarri ahal izan daitezen.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Horretarako, lurralde historikoan prestakuntza programa eta jarduera espezifikoak egitea sustatu ahal izango du, edo erakunde edo instituzio espezializatuek horrelakoak egin ditzaten lagundu, edo laguntzak eman lurralde historikoko herritarrek arlo honetan diren prestakuntza programarik egokienak jarraitu ahal izan ditzaten.

32. artikulua. Foru Aldundiaren zerbitzuko langileak partaidetzarako prestatzea.

1. Foru Aldundiak partaidetzaren kulturaren garapena sustatuko du bere langileen artean.
2. Partaidetza praktikorik egokienak bultzatzearen, Foru Aldundiak partaidetza prozesuetako teknika eta kudeaketa mailako prestakuntza sustatuko du bere zerbitzuko langileen artean; horretarako, partaidetzarako prestakuntza ikastaroak egingo ditu, edo horietan parte hartuko, foru arau honetan jasotako xedapenen aplikazioa bide eta baldintza egokiz gauzatu ahal izan dadin.

V. IDAZPURUA

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ANTOLAKETA

LEHEN KAPITULUA

Partaidetza Programa

33. artikulua. Partaidetza Programa.

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen proposamenez, Partaidetza Programa onartuko du Foru Aldundiak.
2. Diputatu nagusiak Batzar Nagusiei aditzera emango die programa, politika orokorrari buruzko urteko adierazpena dela-eta.
3. Partaidetza Programak jasoko ditu herritarren partaidetzari buruzko proposamen guztiak, Foru Aldundiaren agintaldirako foru organoen jardueran kokatuko direnak, eta, halaber, zehaztuko du zer partaidetza prozesu, tresna eta metodo erabiliko diren foru politikak egiteko, aplikatzeko eta berrikusteko garaian.
4. Partaidetza Programaren bitartez, Foru Aldundiak tresna bat baliatzen du, ahalbidetuko diona, batetik, herritarren partaidetzaren subjektu direnei eskaintzen dituen parte hartzeko aukeren berri ematea, eta, bestetik, herritarren ahalik eta lankidetzarik handiena ziurtatzeko partaidetza prozesu desberdinak antolatzea.
5. Partaidetza Programa igorriko zaie Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena emandako herritar erakundeei, eta argitaratuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.
6. Partaidetza Programak ez du ahulduko foru departamentuen ekimenerako ahalmena, ez eta herritarren

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

partaidetzarako beren proposamen espezifikoak egin ditzaketen pertsonena eta herritar erakundeena.

BIGAREN KAPITULUA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako
Gizarte Kontseilua

34. artikulua. Sorrera eta xedea.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua sortzen da, oro har herritarren partaidetzarako kontsulta organo gisa, eta, bereziki, foru arau honetan aurreikusitako tresnak garatzeko eta aplikatzeko.
2. Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak irizpena emango du Foru Aldundiak herritarren partaidetzaren arloan garatu behar dituen jardueraz eta, zehazki, Partaidetza Programarako proposamenaz.
3. Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilu honek, arauz zehazten den moduan betiere, Foru Aldundiaren jarduera-arlo desberdinetan egindako ibilbidean ospea eta izena irabazitako pertsonak izango ditu kide.

HIRUGARREN KAPITULUA

Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea

35. artikulua. Sorrera eta xedea.

Foru Aldundiaren barnean Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea sortzen da. Herritarren partaidetzaren arloan Foru Aldundiaren jarduerak koordinatzea izango du xede, eta, zehatzago, foru arau honetan erregulatzen diren partaidetza prozesuak garatzeko jarduerak, arlo honetan foru departamentuen jardueraren koherentzia eta osagarritasuna bermatu eta zaintzearekin batera.

36. artikulua. Osaketa.

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea osatuko dute Diputatu Nagusiaren Kabineteko buruak edo herritarren partaidetzaren gaian eskumena duen departamentuak izendatutako pertsonak, zeina batzordeburua izango baita, eta foru departamentuen ordezkari banak.

2. Egoki irizitako adituek parte hartu ahal izango dute Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen saioetan, hain zuzen honek garatu behar dituen eginkizunetan aholkularitza eskaintzearen. Hauxe gain, kasuan-kasuan ukitutako toki entitateen ordezkariak ere parte hartu ahal izango dute.

37. artikulua. Funtzionamendu erregimena.

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea urtean bitan bilduko da, gutxienez.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

2. Foru Aldundiaren agintaldia hasirik, Foru Batzordeak gehienez ere sei hilabeteko epean zehaztuko ditu Partaidetza Programaren edukiak.

38. artikulua. Eginkizunak.

Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen eginkizunak honakoak dira:

- a) Foru Aldundiak onartuko duen Partaidetza Programaren proposamena egitea.
- b) Ekimenak bultzatzea eta foru departamentuen elkarrekiko jardueren koherentzia, osagarritasuna eta koordinazioa ziurtatzea, foru arau honetan ezarritako ondorioetarako.
- c) Herritarren partaidetzaren emaitzak sustatzeko eta horiek zabaltzeko kanpainak bultzatzea, eta partaidetzazko esperientziatako eztabaidei eta emaitzei zabalkundea ematea.
- d) Toki entitateekin elkarlanean aritzea partaidetza ekimenak bultzatzeko unean, eta hala egokituz gero elkarrekiko ekimenak abiatzea eta partaidetza esperientziak sustatzera zuzendutako ekimenak bultzatzea.
- e) Administrazioaren eta herritarren prestakuntza sustatzea herritarren partaidetzarako esperientzien eta metodoen inguruan, eta hala egokituz gero adituekiko jardunaldi eta eztabaidetarako deialdiak egitea, herritarren partaidetzarako eskubidearen subjektuek prestakuntza hobea izan dezaten.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

f) Lurralde historikoko pertsona egoiliarrek hasitako partaidetzazko deliberazio prozesuetan, Foru Aldundiak landu behar duen politikak edo hartu behar duen erabakiak eragiten dion lurralde esparrua mugatzerakoan egon daitezkeen desadostasunak ebaztea.

LAUGARREN KAPITULUA

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza

39. artikulua. Sorrera.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza sortzen da, herritarren partaidetza bultzatzeko organo gisa..
2. Zuzendaritzak Foru Administrazioarekiko autonomia osoaz beteko ditu bere eginkizunak, eta, Foru Administrazioaren egitura hierarkikoan sartu gabe, Diputatu Nagusiaren Kabineteari edota herritarren partaidetzaren esparruan eskumena duen departamentuari atxikita egongo da.

40. artikulua. Antolaketa.

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza pertsona bakarreko organoa da, esparru publikoan gaitasun eta esperientzia frogatua duten, herritarren partaidetzarako prozesuak bultzatzeko eta garatzeko interesatuta dauden, eta

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

partaidetza prozesuen garapenaren gaineko ezagutza duten pertsonen artean izendatua.

2. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza bere gain duen pertsonak autonomia, gardentasun eta neutraltasun irizpidez jokatu du eta Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari emango dio bere jardueren berri.

3. Diputatuen Kontseiluak izendatuko du Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzan arituko den pertsona, lau urteko eperako. Agintaldia berriztagarria izango da.

4. Diputatuen Kontseiluak kargutik kendu ahal izango du pertsona izendatua, baldin eta hau egiten ari den lanari egoki irizten ez badio lurralde historikoan herritarren partaidetza garatzera begira.

5. Foru Zuzendaritzari atxikitako pertsonala Foru Administrazioaren zerbitzura dauden behin-behineko langileak eta funtzionarioek osatu dezakete.

6. Foru Aldundiak urteko Aurrekontu Orokorretan xedatuko ditu Foru Zuzendaritza finantzatzeko behar diren diru baliabideak.

41. artikulua. Eginkizunak.

1. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari dagokio Partaidetza Programa gauzatzea.

2. Zehazki, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren eginkizunak hurrenak izango dira:

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- a) Partaidetza Programan aurreikusitako partaidetza prozesuak eta foru departamentuek sustatutako ekimenak aurrera eramatea.
- b) Gizarte proposamenak baloratzea, antolatzea eta horietan jardutea.
- c) Foru Batzordeak herritarren partaidetzaren onura eta lorpenei zabalkundea emateko ezartzen dituen aurreikuspenak gauzatzea.
- d) Partaidetza prozesuak gauzatzeko irizpideak finkatzea.
- e) Gizarte partaidetzaren aplikazioaren eta emaitzen balorazioa.
- f) Partaidetza jarduerari eta partaidetza prozesuak hobetzeko iradokizunei buruzko urteko txostena egitea.
- g) Egoiliarrekiko eta herritar erakundeekiko etengabeko lotura, horiei partaidetza prozesuak gauzatzeko beharrezko informazioa ematearren.
- h) Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroa kudeatzea.
- i) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak funtzionatzeko behar dituen giza baliabideak eta materialak ematea.
- h) Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak ematen dion bestelako edozein.

VI. IDAZPURUA

HERRITARREN PARTAIDETZA UDAL MAILAN SUSTATZEA

42. artikulua. Toki entitateetan partaidetza sustatzea.

1. Foru Aldundiak bultzatuko du toki entitateekin lankidetzak hitzarmenak izenpetzea, hauen eskumen eta interes esparruan herritarren partaidetza sustatzera begira. Hitzarmen hauek toki entitateekin banaka izenpetu ahal izango dira, edo erakundeok biltzen dituen/dituzten elkartearekin edo elkarteekin.
2. Lankidetzarako hitzarmenek ezarriko dituzte Foru Aldundiak partaidetzaren kultura garatzeko eta partaidetzazko jarduerak garatzeko toki entitateei emango dizkien dirulaguntzak.
3. Lankidetzak hitzarmenen helburuetako bat toki mailan herritar erakundeen sorrerari bultzada ematea izango da, edo dagoeneko badirenen jarduerak eta partaidetza jardueretako inplikazioa areagotzea.
4. Foru Aldundiak toki entitateen eskura jarriko ditu, hauen zerbitzuko langileen eskura zehazki, partaidetzarako prestakuntza programak eta programa horiek gauzatzeko ezartzen duen laguntza sistema.

43. artikulua. Toki mailako partaidetza praktikarako foru laguntza teknikoa.

1. Foru Aldundiak beharrezko laguntza teknikoa eskainiko die toki entitateei, hauei dagokien esparruan partaidetza prozesuak gauzatu ahal izateko.
2. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak eskainiko du laguntza teknikoa.

44. artikulua. Partaidetza prozesuak eskatzea toki mailako foru proiektuetan.

Toki ekimeneko proiektuen kasuan, foru esku-hartzea badenetan, toki entitate interesatuari aurrez entzun ondoren Foru Aldundiak partaidetza prozesu bat egitea eskatu ahal izango du, proiektuaren garrantzia edo ezaugarriak direla eta komeni denean

VII. IDAZPURUA

**PARTAIDETZA SISTEMAREN ETA PARTAIDETZA PROZESUEN
EBALUAZIOA**

45. artikulua. Partaidetza prozesuen banakako ebaluazioa.

1. Foru arau honetan aurreikusitakoa aplikatuta praktikara eraman den partaidetza prozesu bakoitza amaitzen denean,

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak prozesu horren ebaluaziorako prozedura jarriko du abian.

2. Partaidetza prozesuaren ebaluazioan, bertan parte hartu duten guztiei entzungo zaie, tramitazio fasean partaidetza prozesua txertatu den prozeduraren kudeaketaren ardura duen Foru Aldundiko zerbitzuko pertsonalari bezalaxe.

3. Era berean, partaidetza prozesuaren ebaluazio prozedurak partaidetzaren arloko adituek egindako kanpo auditoria bat ere izango du.

4. Ebaluazio prozeduran bildutako iritzi eta txostenetan oinarriturik, partaidetzarako Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak ondorio batzuk prestatuko ditu, eta hauetan aditzera emango ditu partaidetza prozesuan agerian geratutako elementu egokiak eta akatsak, etorkizuneko prozesuetarako egoki irizten dien hobekuntzarako proposamenekin batera.

5. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak ebaluazio txostena eta konklusioak aurkeztuko dizkio Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeari. Honek jendaurrean azalduko ditu Zuzendaritzaren konklusioak, bere iritziarekin batera, inolaz ere, beharrezko ikusiz gero.

46. artikulua. Herritarren partaidetzarako sistemaren ebaluazio orokorra.

1. Foru arau hau indarrean jartzen denetik bost urte igarota, Foru Aldundiak, Herritarren Partaidetzarako Foru

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Batzordearen bidez, eta Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren laguntzaz betiere, foru arau honetan ezarritako herritarren partaidetzarako sistemaren ebaluazio orokorreko txosten bat egingo du, eta Batzar Nagusietara bidaliko du hurrena.

2. Batzar Nagusiek, Foru Aldundiak bidalitako txostenean oinarriturik, foru arau honetan ezartzen diren partaidetzarako tresna eta prozeduren aplikazioaren ebaluazio orokor bat egingo dute.

3. Partaidetza sistemaren ebaluazioa partaidetza prozesuetako aditu profesionalen laguntza teknikoaz egingo da.

4. Partaidetza sistemaren ebaluazio orokorrerako prozesuan, edonola ere, entzun egingo zaie Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena emandako herritar erakundeei, partaidetza prozesuetan esku-hartze bereziki aktiboa izan duten pertsonei, eta toki entitateei.

5. Foru arau honetan aurreikusitako partaidetzarako tresna eta prozeduren ebaluazio orokorra egin ostean, Batzar Nagusiek egokien irizten dieten akordioak hartuko dituzte horiek mantentze, deuseztatze edo erreformatzera begira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra. Partaidetza sistema ezartzeko trantsizio epea.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

1. Foru arau hau indarrean sartzen denean, Foru Aldundiak urtebeteko epea izango du bertan jasotzen diren aurreikuspenak garatzeko, hain zuzen arauak ezartzen duen partaidetza sistema praktikara eraman ahal izateko moduan.
2. Diputatu nagusiak Batzar Nagusietan aurkeztuko du lehen Partaidetza Programa, aurreko atalean ezarritako urtebeteko epea igaro ondoren politika orokorrari buruzko urteko adierazpena aurkezten duen lehenbizikoan.
3. Xedapen iragankor honen lehenengo atalean ezarritako urtebeteko epean zehar aurkezten diren ekimenek ez dute eraginik izango tramitatzen ari diren prozeduretan, non eta gaiaren garrantzia dela eta Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak horrela izatea erabakitzen ez duen, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak arrazoi bidez egin proposamenaren ildotik betiere, eta kudeaketaren eskumena duen departamentuari aurrez txostena eskatuta.

Bigarren xedapen iragankorra. Herritarren partaidetzarako prozedurak eta tresnak modu iragankorrean aplikatzeko arloak.

Foru arau hau indarrean jarri eta hurrengo bi urteetan zehar, hainbat arlotan jarri ahal izango dira abian partaidetza prozesuak; arloak honakoak dira:

- a) Lurraldearen plangintza.
- b) Herrilan eta azpiegiturak.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- c) Ingurumena eta hondakinen tratamendua.
- d) Kultura eta euskararen sustapena.
- e) Kirolak.
- f) Berrikuntza eta zientziaren garapenerako politika.
- g) Gizarte politika.
- h) Berdintasun politikak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako lehen xedapena. Erregelamenduzko garapena.

Foru Aldundiak behar diren erregelamendu xedapenak emango ditu, foru arau hau garatu eta aplikatzearen.

Amaierako bigarren xedapena. Indarrean sartzea.

Foru arau hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

EGINTZA ADMINISTRATIBOA

**DIRU LAGUNTZEN DEIALDI BATEN TESTU OSOA ETA GENERO ERAGINAREN
ALDEZ AURREKO EBALUAZIOAREN TXOSTENA**

**ERABAKIA, KRISIAREN AURKAKO PLANAREN
ESPARRUAN HAUSNARKETA PROZESUETAN DAUDEN
GIPUZKOAKO ENPRESA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK
LAGUNTZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN
DITUEN OINARRIAK ONARTZEN DITUENA.**

Une honetan, Gipuzkoa krisialdi orokor baten ondorioak jasaten ari da. Horren aurrean, ezinbestekoa da krisiak enpresetan zein pertsonengan duen eragina ahal den neurrian arintzeko neurriak bultzatzea, eta bide batez egoera hau baliatzea, produkzio ehunaren lehiakortasuna sendotzeko aukeratzat harturik, etorkizuneko ekonomia berriaren erronkei aurre egiteko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan izugarritzko pisua du industri sektoreak. Gipuzkoan, industria BPGren eta enpleguaren %34 da, eta eragin garrantzitsua du, ostea, beste hainbat sektoretan, garraioan eta zerbitzuetan besteak beste.

Horregatik, krisi orokorreko testuinguru honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2009ko irailaren 15eko Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez, dagoeneko hartutako beste neurri fiskal batzuez gain (Aparteko Kudeaketa Aurrekontua, zerga neurriak...), onartu egin zuen Krisiaren Kontrako Plana, 2010erako. Honek bere isla izan

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

du, aurrekontu mailan, Lurralde Historikoaren ekitaldi honetarako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 3/2009 Foru Arauan, abenduaren 23koan. Kriaren Kontrako Plan honen jardura ardatzak honakoak dira:

- 1. ardatza: Herrilan eta azpiegituretako inbertsioa bultzatzea.
- 2. ardatza: Zailtasun bereziak dauzkaten kolektiboetako laguntzea: Laneratzea.
- 3. ardatza: Enpresei laguntzea.
- 4. ardatza: Zientzia, teknologia eta berrikuntzako azpiegituretan inbertitzea.

Plan honen bidez lortu nahi dena zera da, Lurraldeari behar duen bultzada eta maila ekonomiko eta sozialeko laguntza ematea eta bertan dinamizazioa eragitea, krisia, dagoeneko aipatu bezala, gure gizartea eta gure ehun ekonomikoa atzera pentsatzeko aukera bat baita.

3. ardatza (enpresei laguntzea) garatze aldera, erabaki honen bidez honako xede hau duten diru laguntzen oinarriak eta dagokion deialdia onartzen dira: Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzea, hausnarketa prozesuak burutuz (plan estrategikoak, proiektuen bideragarritasuna ahalbidetzeko planak, itunak eta enpresa-elkartzeak, merkatuan egoera lehiakorra lortzea, internazionalizazioa)

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

betiere proiektuak bakarka edo elkarlanean gauzatzea erraztera bideratutakorik, lehiakortasun egoera hobea bilatuz.

Hala, bada, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta aurrez eztabaidaturik, honako hau.

ERABAKI DU

Lehena. Onartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Krisiaren Aurkako Planaren barruan, Gipuzkoako enpresa proiektu estrategikoak beren hausnarketa prozesuetan laguntzeko emango diren laguntzak arautuko dituzten oinarriak, erabaki honen I. eranskin gisa doazenak.

Bigarrena. Onartzea aipatu laguntzen 2010eko deialdia, erabaki honen II. eranskin gisa doana bera.

Hirugarrena. Baimena ematea milioi eta erdi euroko (1.500.000 €) gastua egiteko 2010eko deialdiarentzat, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretako 0110.100.470.00.01.2010 diru-sailaren kontura.

Laugarrena. Erabaki honek onartzen dituen oinarriek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

zuzenean Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeo hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzeoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2010eko otsailaren 26a.—Jorge Balerdi,
Lehendakariak eta Foru Administrazioko Departamentuko

I. ERANSKINA

Gipuzkoako enpresa proiektu estrategikoak beren hausnarketa prozesuetan laguntzeko emango diren diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak.

1. oinarria. Diru-laguntzaren xedea.

Oinarri hauek jasotzen dituzten diru-laguntzen xedea da Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzea, hausnarketa prozesuak burutuz (plan estrategikoak, proiektuen bideragarritasuna ahalbidetzeko planak, itunak

2. adibidea

4

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

eta enpresa-elkartzeak, merkatuan egoera lehiakorra lortzea, internazionalizazioa...), betiere proiektuak bakarka edo elkarlanean gauzatzea erraztera bideratutakorik, eta Gipuzkoako enpresen lehiakortasun egoera hobea bilatuz.

2. oinarria. Entitate onuradunek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Oinarri hauetan arautzen diren laguntzak, oinarri honetako 2.4 atalean aipatutako enpresek eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, bere 12. artikuluan jasotzen dituen galarazpenetako batek berak ere ukitzen ez baditu.

2.2. Entitate eskatzaileak, aurreko apartatuan adierazitako debekurik ez duela egiaztatzeke, ardurapeko adierazpena aurkeztu beharko du Diputatu Nagusiaren Kabinetean.

2.3. Ebazpen proposamena eman baino lehen, eskatzaileak zerga betekizunetan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu egin beharko du; eta gehienez ere bost laneguneko epea izango ditu horretarako. Egiaztatze dokumentazio hori aurkeztu beharrean, eskumena duten Herri Administrazioek laga ahal izango dizkiote, zuzenean, beharrezko datuak Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuari, erakunde eskatzaileak aurrez berariaz emandako baimenarekin betiere.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

2.4. Oinarri hauetan ezartzen diren diru-laguntzetarako enpresa onuradunak honakoak izango dira:

- Enpresa txiki eta ertainak (ETE) (bakarka edo beste ETEekin edo enpresa handiekin elkarlanean).

- Enpresa handiak (bakarka edo beste enpresa handiekin edo ETEekin elkarlanean).

2.5. Aurreko apartatuan aipatutako enpresek, Gipuzkoako Lurralde Historikoan izan beharko dituzte bai beren helbide soziala eta baita fiskala ere.

2.6. Oinarri hauen ondorioetarako, enpresa txiki eta ertaintzat joko dira 250 langile baino gutxiago dituzten eta urteko negozio bolumena gehienez 50 milioi eurokoa duten enpresak, edota urteko balantze orokorra gehienez ere 43 milioi eurokoa dutenak.

Eskudiruak, zenbateko finantzarioak eta erreferentziako epealdia kalkulatzekoan gerta litekeen edozein zalantza argitzeko, Europar Batzordearen 800/2008 Erregelamenduaren I. Eranskinean xedatutakora joko da (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2008ko abuztuaren 9ko L 214/38).

3. Oinarria. Diru-laguntzaren xede diren jarduerak.

3.1. Diruz lagundu ahal izango dira:

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

— Lehiakortasuna hobetzeko hausnarketa prozesuetan (plan estrategikoak, proiektuen bideragarritasuna ahalbidetzeko planak, itunak eta enpresa-elkartzeak, merkatuan egoera lehiakorra lortzea, internazionalizazioa,) sortutako gastuak, hala nola prozesu horietatik etorritako jarduerak definitzerakoan eragindako gastuak, kanpotik kontratatutako lan eta zerbitzuak direla-eta.

— Laguntza emateko dauden langileek bi ETE edo gehiagorekin elkarlanean burutzeko proiektuetan aritzeak sortutako barne gastuak.

3.2. Aurkezten diren proiektuek ezin izango dute aurreikusi, inolaz ere, lehiakideen jarduna murriztu dezakeen jarduerarik; beraz, Europar Batasunaren Ituneko 81. eta 82. artikuluetan xedatutakoa beteko dute ildo honetan.

3.3. Aurreko 3.1 atalaren 1 paragrafoan aipatu gastuei dagokienez, hausnarketa estrategikoko bere prozesuan onduradunari aholku ematen dion profesional edo enpresak ez du inolako loturarik izango, ez zuzenean eta ez zeharka, ez akzioen bitartez eta ez partaidetzen kariaz, onuradun horrekin.

Horrez gain, oinarri hauetan araututako laguntzak lortzeko aukera izateko, aholkularitza emateko kontratatzen den profesional edo enpresak ondorengo hauek egiaztatu behar ditu:

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- Oinarri hauetan aurreikusi lanen edukiaren eta garrantziaren pareko lanetan gutxienez 5 urteko eskarmentua edukitzea, epe horretan egindako lanen zerrenda bidez egiaztatua (lan horien edukia zehaztuta).
- Proiektuari atxikitako taldeko langileen eskarmentua, gutxienez 3 urtekoa, aholkularitza lanetan edo analista edo senior aholkulari gisa.
- Aholkularitza estrategikoko zerbitzuetan edota antolaketa edo sistemen aholkularitzan gutxienez 2 milioi eurotako fakturazioa diruz lagundutako lanaren aurreko 3 urteetan.
- Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, dagokion organo eskudunak egindako ziurtagiri administratiboen bidez egiaztatuta.

3.4. Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko:

- Zeharkako zergak, berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak direnean.
- Laguntza jasoko duen jarduerarekin ezbairik gabe identifikatzen ez diren gastu guztiak, edota deialdian ezarritako epean gauzatu ez direnak.

4. Oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

4.1. Entitate eskatzaile bakoitzak eskaera bat aurkeztuko du diru-laguntzaren gai izan daitekeen proiektu bakoitzeko. Eta proiektu horietako bakoitzak, hirugarren oinarrian diruz laguntzeko jardueratzat deskribatutako jarduera motetakoren bati erantzun beharko dio.

Elkarlaneko proiektuak direnean, enpresa eskatzaileek laguntza-eskaera bakar bat aurkeztuko dute proiektu bakoitzeko. Eta eskabide horretan, enpresa bakoitzak aplikatu beharreko laguntzaren zenbatekoa adieraziko dute, guztiak ere enpresa onuradunak izango baitira.

Edozein kasutan ere, elkarlearen ordezkari edo ahalorde bakar bat izendatu beharko da, eta ordezkari horrek behar hainbateko ahalmena izango du, dagozkion betebeharrak egikaritzeko. Ordezkari hori izango da proiektuaren liderra, proiektuaren garapenez eta kudeaketaz arduratzeari dagokionez, eta proiektuaren martxa onerako beharrezkoak diren solaskide eta harreman zereginak betetzerakoan.

4.2. Zuzenbidez baliozkoa den edozein modutan erakunde interesatuaren ordezkaria dela frogatzen duen pertsonak izenpetuko du eskaria.

4.3. Eskariak, deialdian ezartzen den bestelako dokumentazio guztiarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Zentralean (Gipuzkoa Plaza, z/g, Donostia) aurkeztu ahal izango dira, edota Herri Administrazioen Zuzenbide Arauei eta Administrazio

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

Jardunbide Arruntari buruzko 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 38.4 artikuluan aurreikusten duen baliabideetako edozeinen bidez.

4.4. Eskaerak aurkezteko epea deialdiak berak finkatuko du.

4.5. Entitate eskatzaileek ez dute zertan aurkeztu eskariak tramitatzeke eskumena duen organoak dagoeneko badituen dokumentuak, hain zuzen ere 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 35.f) artikuluan aurreikusten duenarekin bat; dena den, eskarian adierazi egin beharko dute horiek zein datatan eta zein organotan aurkeztu edo egin ziren, hala egokituz gero, baldin eta bost urte baino gehiago igaro ez badira dokumentu horiei zegokien prozedura amaitu zenetik. Dokumentazioa lortzeko ezintasun materiala gertatzen den kasuetan, organo eskumendunak horiek aurkeztea edo, besterik ezean, dokumentuak jasotzen dituen baldintzak beste baliabide batzuen bidez egiaztatzea eskatu ahal izango dio erakunde eskatzaileari.

4.6. Eskariak edo honekin batera joan behar duen dokumentazioak ez baditu identifikazio datu guztiak, edo akatsen bat baldin badu, edo osatzeke baldin badago, akats horiek guztiak konpontzea eskatuko zaio enpresa eskatzaileari, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 71.1 artikuluan ezarritakoarekin bat; eta hamar eguneko epea emango zaio antzemandako akatsak konpontzeko. Bide batez, aditzera emango zaio ezen, eskatua egin ezean,

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

eskaria atzera bota duela ulertuko dela, aipatutako legearen 42.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

5. Oinarria. Diru-laguntza emateko prozedura.

5.1. Diru-laguntza emateko prozedura lehiakortasuneko konkurrentzia izango da.

5.2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz abiatuko da, organo eskumendunak onartu ondoren Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den deialdi publikoaren bidez.

6. Oinarria. Balorazio irizpideak.

Eskaeren hautaketa eta emango diren laguntzen zenbatekoa, honako balorazio irizpide hauei jarraituz erabakiko dira:

— Enpresaren lehiakortasuna eta egoera estrategikoa hobetzea: 35 puntu.

— Proposatutako jardueren berezitasuna eta garrantzia: 30 puntu.

— Enpresak elkartzea, lehiakortasun handiagoa lortzearren.

— Enpresa estrategikoen balio proposamena epe ertainera nabarmen aldatuko duten proiektuak, baldin eta gure

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

lurraldeko enpresa-ehunaren garapena hobetzen lagunduko badute.

— Sozietate baten edo gehiagoren (enpresa multzoak) ondorengotza eta jarraipena ahalbidetuko duten, eta Gipuzkoaren erabakitzeko ahalmenari eusten lagunduko dioten sozietate-eragiketak.

— Merkatu berrietara edo nabarmentzen ari diren sektoreetara zabaltzea.

— Merkatuan, sektorean eta arlo ekonomiko berrietan izango duen eragina: 25 puntu.

– Enpresaren ahalegin ekonomiko erlatiboa: 10 puntu.

7. oinarria. Finantzaketa.

7.1. Ematen diren diru-laguntzak, ematen badira behintzat, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko dira. Diru-laguntzak finantzatzeko erabiliko diren aurrekontu-kredituak deialdian ezarriko dira.

7.2. Oinarri erregulatzailerik haurtan aurreikusitako jarduerak erakundeen arteko jarduketari dagozkion esparruetan sartzen badira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak esparru horietatik aipaturako xederako finantzaketa osagarria jasotzen badu, kopuru hau kasuan kasuko diru-sailetara

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

bideratuko da, hau da, oinarri hauetan araututako diru-laguntzak finantzatzeko erabiliko diren diru-sailetara.

7.3. Diru-laguntzek ez dute gaindituko, inolaz ere, lagundutako jardueraren kostu osoa.

8. Cinarria. Diru-laguntzen zenbatekoa.

8.1. Lagundu daitezkeen zenbatekoa eta emango den laguntza, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera zehaztuko dira, betiere erabili daitezkeen aurrekontuak aintzat hartuta eta oinarri hauetan finkatutako balorazio-irizpideei jarraituz.

8.2. Hauek dira gehienez emango diren diru-laguntzak:

— Elkarlaneko proiektuak. Gastu lagungarrien %75 arte, urtean bakarkako entitate onuradun bakoitzeko 100.000 euro eta proiektu osorako 250.000 euro gainditu gabe. Laguntza emateko dauden langileek bi ETE edo gehiagoren elkarlaneko proiektuetan jarduteak eragindako gastuak ere gastu lagungarri horien barruan sartuko dira, eta proiektuaren kostu osoaren %25 arte lagunduko dira.

— Bakarkako proiektuak. %75 arte, urtean bakarkako entitate onuradun bakoitzeko 100.000 euro gainditu gabe.

8.3. Diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa zehazteko, entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua, edo

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

aurrekontu horri gerora egindako aldaketak hartuko dira kontuan. Eta zenbateko hori, jardueraren behin betiko kostuaren portzentaje gisa kalkulatu da, azkenean emandako diru-laguntzak hasieran onartutako kopurua gaindituko ez duen moduan. Emandako diru-laguntza zenbateko ziurtzat joko da; beraz, lagundutako jarduera guztiz gauzatzeko behar den finantzaketaren gainerakoa, enpresa onuradunaren kontura erabaki beharko da.

9. Oinarria. Prozedura agintzeko eta abiarazteko eskumena duen organoa.

9.1. Prozedurako organo instruktorea Diputatu Nagusiaren Kabineteko Laguntza eta Koordinaziorako atala izango da. Honek egingo ditu, bere kabuz, ebazpen proposamena emateko erabili beharreko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak.

9.2. Batzorde Ebaluatzaile bat arduratuko da datuak ebaluatzeaz eta ebazpen proposamena emateaz. Proposamen horretan, egindako azterketaren emaitza zehaztuko du, eta diputatu nagusiari bidaliko dio, onar dezan.

9.3. Batzorde Ebaluatzailea Diputatu Nagusiaren Kabineteko buruak zuzenduko du; eta batzordekideak, berriz:

— Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusia.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

— Diputatu Nagusiaren Kabineteko Laguntza eta Koordinaziorako atalburua.

— Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaitza eta Auditoretzako zerbitziburua.

9.4. Batzorde horrek, aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratzeko beharrezko aholkularitza eta txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

9.5. Egindako ebaluaketaren emaitza diru-laguntza ematearen aurkakoa bada, edo laguntzaren zenbatekoa eskatutako kopurua baino nabarmen gutxiago bada, ebazpena eman aurretik interesdunei entzungo zaie, eta hauek hamar eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko. Gainera, eskaera berriro egiteko esan diezaieke, erantzun beharreko konpromisoak eta eman daitekeen laguntzaren baldintzak egokitu ahal izateko.

10. Oinarria. Laguntzaren ebazpena.

10.1. Diputatu nagusiari dagokio eskatutako laguntzak ematea ala ezeztatzea erabakitzea.

10.2. Laguntza emateko edo ezeztatzeko ebazpena eskatzaile bakoitzari banaka jakinaraziko zaio. Hala eta guztiz ere, ebazpena eman duen organoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzak arautzen dituen 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 17. artikuluan ezarritakoari

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

jarraituz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko ditu emandako laguntzak.

10.3. Ebazpen horretan honakoak adieraziko dira zehazki: Helburua, laguntza onartu zaion pertsona eskatzailearen edo eskatzaileen zerrenda, laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, eta oinarri hauetan nahiz deialdian ezarritako gainerako baldintza eta betekizunak.

10.4. Ebazpenean, diru-laguntza onartu zaien eskatzaileen zerrenda eta gainerako eskaeren berariazko ezespenez aparte, beste zerrenda bat txertatuko da, hau da, onuradun izateko, oinarri hauetan ezarritako baldintza administratibo eta tekniko guztiak bete arren, deialdian ezarritako zenbatekoa gainditu dela-eta, onartu ez direnen zerrenda ordenatua. Zerrenda horretan, 6. oinarrian aurreikusitako balorazio irizpideen arabera bakoitzari egokitu zaion puntuazioa adieraziko da.

Onuradun batek emandako laguntzari uko egiten badio, laguntza hori puntuazioaren arabera onuradun horren ondoren dagoen edo dauden eskatzaileei ematea erabaki dezake organo eskudunak, baldin eta onuradunen batek laguntzari uko egitearekin, ezetsitako eskaeraren bati behintzat erantzuteko adinako kreditua geratu bada.

10.5. Deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita sei hilabete igaro ondoren, berariazko ebazpenaren

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

berririk jaso ez bada, eskaera ezetsizat jo beharko da administrazioaren isiltasuna dela-eta.

11. Oinarria. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

11.1. Enpresa onuradunek, diru-laguntzak onartzean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak eta hori garatzeko emandako araudiak (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutakoak) ezarritako obligazio orokorrak hartuko dituzte bere gain, oinarri hauetatik ondorioztatzen direnak bezalaxe.

11.2. Hartu beharreko hedapen neurriei dagokienez, lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda orotan, mintzairaren erabilera ez-sexista bermatu beharko da, eta betiere, euskararen erabilera ziurtatuko den moduan egingo da. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza adierazi beharko da.

12. Oinarria. Beste laguntzekiko bateragarritasun edo bateraezintasuna.

12.1. Oinarri hauetan erregulatutako laguntzak bateragarriak izango dira estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuetatik etorri diren edota nazioarteko erakundeetatik jaso diren eta xede berbererako erabiliko diren beste laguntza, sarrera edo baliabideekin. Baina, edozein kasutan ere, horrek ez du

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

baldintzatuko bestelako laguntza horiek erregulatzen dituen araudiak ezarritakoa.

12.2. Oinarri hauetan ezarritakoaren babesean emandako laguntzekin bateragarria den beste laguntzaren bat jaso duen enpresa onuradunak, berorren berri eman beharko dio, argi eta garbi, organo eskudunari. Eta jakinarazpen horrekin batera, egindako itzulketaren ordainagiriaren kopia aurkeztuko dio, halakorik izanez gero.

12.3. Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak bateraezinak izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiak xede berekin emandako beste edozein diru laguntzekin.

12.4. Oinarri hauetan erregulatutako laguntzek, Europako Batzordeak 2006ko abenduaren 15ean emandako 1998/2006 Erregelamenduan - «minimis» laguntzei buruzko Europar Batasunaren Itunaren 87 eta 88. artikulua aplikatzeari buruzkoa- ezarritako «minimis» arauak beteko dituzte. Laguntzek, halaber, Europar Batzordearen kategorien araberrako salbuespenari buruzko 800/2008 Erregelamendu Orokorra (2008ko abuztuaren 9ko EBAO, L214) errespetatu beharko dute, eta baita gaur egungo krisialdi ekonomiko eta finantzario honetan finantzaketa ahalbidetzeko xedez ezarritako estatu mailako laguntzei aplikatu dakiekeen batasuneko denbora esparrua ere (2009ko urtarrilaren 22ko EBAO, C16).

13. Oinarria. Diru-laguntzen ordainketa.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

13.1. Diru-laguntzak, interesduna zerga alorreko betekizunetan eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua aurkeztu ondoren ordainduko dira. Dena den, dokumentazio horren orde, diru-laguntzaren organo kudeatzaileari berriazko baimena eman dakioke, kasu bakoitzean eskumena duen agintaritzak kasuan kasuko datuak zuzenean eman dakizkion.

13.2. Diru-laguntzak era honetan ordainduko dira:

— %60, diru laguntza ematen den unean hasitako proiektuen kasuan; eta proiektuari ekiten zaionean, gainerakoetan. Bi kasuetan hasiera hori aurrez eta behar bezala zuritu beharko da.

— Gainerako %40, laguntzaren xede diren jarduerak bukatzen direnean. Aurrez, dena den, 14. oinarrian zehaztutako dokumentazioa jasotzen duen kontu justifikagarria aurkeztu beharko da.

13.3. Lagundutako jarduera gauzaten bukatu aurretik, konturako ordainketak egin ahal izango dira, jarduketa hori agirien bitartez egiaztatzen den neurrian.

14. Oinarria. Laguntza jaso dezaketen gastuak eta jasotako laguntzaren justifikazioa.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

14.1. Entitate onuradunak, diruz lagundutako jarduera gauzatu duela egiaztatu beharko du, jarduera horrek eragindako gastuak bezalaxe.

14.2. Enpresa onuradunak, diruz lagundutako proiektua edo jarduera bukatu ostean eta deialdian hori justifikatzeko zehaztu epean, hori arrazoitzen duen kontua aurkeztu beharko du, honako dokumentazioa erantsita:

— Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen jarduera memoria.

— Burututako jardueren kostua egiaztatzen duen memoria ekonomikoa. Honako hauek jasoko ditu:

a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua. Honakoak adieraziko ditu: Pertsona hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, egin deneko data eta ordainketaren data, halakorik izanez gero. Era berean, eskaerarekin batera aurkeztutako aurrekontuan egindako desbideratzeak adieraziko dira.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako agiriekin alderatuta, merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio berdina duten, edo eraginkortasun administratibo baliokidea fakturak edo dokumentuak; edo, ordainketaren ziurtagiria, halakorik izanez gero.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, sarrera horien zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

d) Entitate onuradunak 12.000 eurotik gora ordaindu baditu diruz lagundu daitezkeen gastuetan, zehazki, ekipo ondasunen horniduretan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoa ematen duten enpresetatik jasotako zerbitzuetan, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluari jarraikiz eskatu behar izan dituen 3 aurrekontuak, baldin eta gastu hori, diru-laguntza eskatu aurretik egina ez bada behintzat.

14.3. Jasotako diru-laguntza justifikatzeko ezarritako epea bete arren, aurreko pasartean aipatutako dokumentazioa ez bada aurkeztu, organo eskudunak 15 eguneko epea emango dio enpresa onuradunari, agiri horiek aurkezteko. Epe berri horretan ere gastuen justifikagiria aurkeztu ezean, diru-laguntza jasotzen hasteko eskubidea galduko du onuradunak, edo bestela, 16. oinarrian aurreikusitako itzulketa prozedura jarriko da abian.

14.4. Diru-laguntzaren entitate onuradunak, laguntza ematea bultzatu zuen jarduera burutu izanaren eta jasotako fondoak aplikatu izanaren egiaztatgiriak gutxienez 4 urtez gorde beharko ditu nahitaez. Epe hori, enpresa onuradunak aipatutako egiaztatgiriak aurkezteko duen epea amaitzen den egunetik aurrera kontatuko da.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

14.5. Oinarri honetako 2. apartatuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ostean, espedientearen organo instruktoreak bidezko egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztatze lan horiek egitean ondorioztatzen bada diruz lagun zitekeen kostua benetan emandako laguntza baino gutxiago izan dela, edo diru-laguntza arrazoitzeko ezarritako baldintzak, edota laguntzaren xede diren helburuak ez direla bete, guztiz edo hein batean, berorren berri emango zaio interesdunari. Eta, jakinarazpen horrekin batera, egindako egiaztatze lanen emaitza bidaliko zaio. Gainera, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratzeko prozedura abiaraziko da; edo bestela, bidezko bada, laguntza guztiz edo partzialki itzultzeko 16. oinarrian aurreikusitako prozedura jarriko da martxan.

15. Oinarria. Ebazpena aldatzea.

15.1. Entitate onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, diru-laguntza emateko ebazpenean aldaketak egitea eskatu ahal izango diote organo eskudunari, finkatutako epeak luzatzeko, emandako kopurua murrizteko edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatu ahal izateko. Aldaketa hauek baimendu egingo dira, aurreikusi gabeko zertzeladak dituztenean sorburu, edo jarduera behar bezala bideratzeko beharrezkoak direnean, diru-laguntzaren xede edo helburua aldatzen eta hirugarren batzuen eskubideak kaltetzen ez badira betiere. Jardueraren

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

aurrekontuan zenbatespen hutsak diren kontzeptuetan aldaketak egiteko, ez da eskaririk aurkeztu beharrik izango.

15.2. Organo eskudunak ofizioz aldatu ahal izango du diru-laguntza emateko ebazpena, erakunde interesatuari aurrez entzunda eta fondoak aplikatu aurretik, diru-laguntza emateko unean kontuan izandako baldintzak aldatu direla-eta ezinezkoa edo zaila denean erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

15.3. Erakunde onuradunak, diru-laguntzaren justifikazioan, aditzera ematen badu hainbat aldaketa gertatu dela diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, aldaketa horietarako beharrezkoa zen baimen administratiboaren tramitera jotzeke, eta ikusten bada aldaketa horiek kontuan hartuz gero ebazpenaren emaitza agian beste bat izango zela, diru-laguntza ematen duen organoak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, baldin eta onartze horrek ez badu hirugarren pertsona batzuen eskubideak kaltetzea eragiten.

16. Oinarria. Ez-betetzeak eta itzulketak.

16.1. Erakunde onuradunak ez badu betetzen oinarri hauetan, 3/2007 Foru Arauan, martxoaren 27koan, eta aplikagarriak diren bestelako araudietan ezarritako betekizun edo baldintzetako edozein, diru-laguntza jasotzeko eskubidea erabat edo zati batez galduko du, eta diru-laguntza osorik

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

edo zati batez itzuli beharko du, dagozkion berandutza-
interesak ordaintzeaz batera, aipatu Foru Arauaren 35.
artikuluaren xedatutakoarekin bat. Osterantzean, honetatik
ondoriozta daitezkeen erantzukizunak egokituko zaizkio, Foru
Arau horretako 49. artikuluan eta hurrengoetan
xedatutakoaren ildotik.

16.2. Ez-betetze horien maila zehazteko, proportzionaltasun
irizpideak erabiliko dira. Irizpide hauek organo izapidegileak
aplikatuko ditu, proiektu osoarekiko egiaz gauzatutako lanen
eta interesatuak dagoeneko jaso dituen kopuruen arabera.

16.3. Lan honetan jarraitzeko modurik ez dagoenean edo
dagoeneko interesik ez dagoenean, bai proiektuaren
bideragarritasunari edo izaerari darizkion arrazoiengatik edo
behar bezala justifikatutako beste batzuegatik izan, bertan
behera utzi eta diru-laguntza etetea erabaki ahal izango dute
alderdi biek, elkarrekiko adostasunez.

17. Oinarria. Araubide juridikoa.

Oinarri hauen xede diren diru-laguntzak arautzeko, lerro
hauetan xedatuaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko
3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, xedatzen duena
jarraituko da, berau garatzera begira 24/2008 Foru
Dekretuak, apirilaren 29koak, onartu zuen
erregelamenduarekin eta diru-laguntzen arloan aplika
daitezkeen araudiarekin batera.

II. ERANSKINA

Gipuzkoako enpresa proiektu estrategikoak beren hausnarketa prozesuetan laguntzeko diru-laguntzen 2010eko deialdia.

1. Finantzaketa.

1.1. Deialdi honetan emango diren laguntzen kopurua milioi eta erdi eurokoa (1.500.000 €) izango da guztira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2010eko aurrekontu orokorretako 0110.100.470.00.01.2010 diru-sailaren kontura.

1.2. Goian aipatu kopuru hori kreditu gehigarri batez handitu ahal izango da deialdia ebatzi aurretik eta beste deialdi bat egiteko beharrik gabe. Kreditu hori eskumena duen organoak baimendu behar du, aurretik dagokion aurrekontu aldaketa onartuta, halakorik egin beharrik balego.

Kopuru gehigarri hori eraginkorra izateko baldintza da diru laguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri dagoela adieraztea.

2. Deialdian eskaerak aurkeztea.

Eskaerak aurkezteko epea, deialdia argitaratzen den egunean hasiko da, eta 2010eko martxoaren 30ean bukatuko.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

3. Proiektuei ekiteko epea.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitakoak izan beharko dute.

4.4. Proiektuak zuritzeko epea (14.2. oinarria).

Proiektuak zuritzeko epea 2010eko azaroaren 30era artekoa izango da gehienez ere.

5. Eskararekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

a) Eskaera izenpetu duen pertsonaren ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Proiektuaren edo jardueraren memoria, deialdi honen 1. eranskinean adierazitako ereduaren arabera egina. Honakoak jasoko ditu:

— Enpresa eskatzailearen edo eskatzaileen aurkezpen edo memoria. Bertan, jarduerari dagokion sektorea, langile kopurua, fakturazioa eta antzeko datu interesgarriak zehaztuko dira.

— Eskaera bultzatu duen proiektua azaltzen duen memoria, proiektuko jardueren deskripzioa, fasez faseko kronograma, proiektuari ekiteko eta bukatzeko aurreikusi diren datak, eta proiektuak merkatuan izan lezakeen eragina.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

— Laguntza-eskaera bultzatu duen proiektuaren aurrekontu zehatua, gastu lagungarriak zehatz-mehatz banakatuta.

c) Entitate eskatzaileak, estatuko edo nazioarteko administrazio edo entitate publiko zein pribatuetatik, xede berbererako jaso dituen edo eskatu dituen laguntza, sarrera edo baliabideen adierazpena, honako deialdi honetan eskatutakoekin bateraezinak diren laguntzak garbi adieraziz.

d) Onuradun izaera lortzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 12. artikuluan aipatutako debeku bat bera ere ez duela egiaztatzen duen ardurapeko adierazpena, deialdi honen 2. eranskinean jasotako ereduaren arabera egina. Adierazpen horretan espresuki jasoko da zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Diputatu Nagusiaren Kabineteak, aurkeztutako proiektuak behar bezala ebaluatzeko eta erabakitzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarri oro eskatu ahal izango du.

GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENA

0 PAUSOA. TXOSTENAREN OINARRIAK ETA HELBURUA

ARAUAREN IZENBURUA: *Hausnarketa prozesuetan dauden Gipuzkoako enpresa proiektu estrategikoak laguntzeko diru laguntzak ematea arautzen dituen oinarriak onartzeko erabaki proiektua, ... (erabakia ematen duen organoaren edo zuzendaritzaren izena, kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatu Nagusiaren Kabinetea)k emana.*

LEGEGINTZAKO TESTUINGURUA: Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoaren, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera, eta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoaren, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko xedapenen aurreproiektuak egiteko prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

**ARUA EMATEN DUEN ORGANOA, TXOSTENAREN
HELBURUA ETA HARTZAILE DUEN ORGANOA:**

Eskakizun horiei jarraiki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Kabineteak txosten hau ematen du *Hausnarketa prozesuetan dauden Gipuzkoako enpresa proiektu estrategikoak laguntzeko diru laguntzak emateari* buruzko Foru Arau Proiektuaren genero inpaktua ebaluatzeko, egoki diren oharrak egin eta txostena jaulki duen organoari igortzeko, beharrezko balitz, aldatzeko, arau onartu ondoren genero inpaktua positiboa izango dela bermatzeko.

**1. PAUSOA. ARAUA GENEROAREN IKUSPEGITIK
KONTUAN HARTZEKO DEN IDENTIFIKATZEA.**

ARAUAREN XEDEA: arauaren helburua da ETE eta enpresa handiei proiektu estrategikoak egiteko diru-laguntzak emateko oinarriak ezartzea, enpresen lehiakortasuna hobetu eta, horrela, lurraldearen garapen ekonomikoa laguntzeko.

EGOKITASUNA: arauaren *hartzaileak* egoitza sozial edo fiskala Gipuzkoako lurralde historikoan duten ETEak eta enpresa handiak dira, beraz, enpresa horien titular diren pertsonen *zuzenean eragingo* die, bai eta horietako langileei ere, eta, *zeharka* bada ere, enpresak diruz lagundutako proiektua burutzeko edo aholkularitza teknikoa jasotzeko balia ditzaketen profesional edota aholkularitza erakundeak. Beraz, izaera orokorrarekin, aztertzen ari garen *Erabaki* proiektuak hartzailezat emakume eta gizonak dituenez:

GENEROAREN IKUSPEGITIK KONTUAN HARTZEKO DA.

2. PAUSOA. GENERO INPAKTUAREN BALORAZIOA

2.1. DESBERDINTASUNAK IDENTIFIKATZEA

⇒ **Informazio garrantzitsua biltzea.** Erabakiaren helburuaren eta arautzen duenaren arabera, jarraian ematen dira arauak eragiten dien gizon eta emakumeen egoerari eta estatusari buruzko datuak, sexuaren arabera bereizita:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko ETEak eta enpresa handiak: oro har, enpresak sortzeko erritmoa handiagoa da gizonen artean, nahiz eta geroz eta gehiago diren lurraldeko emakume ekintzaileak. Emakume okupatuen % 9 (autonomia erkidegoan) autonomoak dira; gizonak, aldiz, % 13. Bestalde, enpresen % 60 inguru gizonen eskuetan daude.
- Enpresa sarea, jarduera adarren arabera: jarduera adarren arabera, enpresen portzentajerik handiena (% 38) merkataritzan, ostalaritzan eta garraioan jarduten da eta % 22 bankaren, aseguruaren eta enpresentzako zerbitzuen sektorean.
- Enpresa sarea, *jarduera sektoreen eta sexuen* arabera: emakumeen titulartasuneko enpresak zerbitzuen eta merkataritzaren sektorekoak izan ohi dira (% 30 inguru); aldiz, gizonek beren enpresa jarduera, neurri handi batean, industriaren, bankaren, aseguruaren eta ostalaritzaren sektorean burutu ohi dute (% 34 inguru).

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

- Enpresen tamaina: oro har, autonomia erkidegoko enpresen tamaina Espainiako batezbestekoa baino zertxobait handiagoa da, 10 langile baino gehiagoko enpresen portzentajea handiagoa baita Euskadin (% 6,5, Espainiako % 6ren aldean). Sexuaren arabera berezita, emakumeen eskuetan dauden enpresak txikiagoak dira, batez beste, gizonazko enpresaburuek baino langile gutxiago izan ohi dituzte. Izan ere, beren kargura langileak dituztenen % 74 gizonak dira.
- Azkenik, ez dugu daturik genero berdintasuna sustatzeko neurriak zituzten edo dituzten edo berdintasun planen bat duten enpresen kopuruari eta motari buruz; hala ere, araua egin ondoren biltzea aurreikusten da, hori izango baita diru-laguntza emateko ezarritako irizpideetarikoa bat.

⇒ **Antzemandako desberdintasunak deskribatu eta identifikatzea:**

- Generoen arteko tartea antzematen da lurraldeko jarduera ekintzailean, enpresa gehienek titularrak gizonak baitira.
- Halaber, desberdintasunak ikusten dira emakumeen eta gizonen enpresa sarean, jarduera sektoreari, tamainari eta enpresa bolumenari dagokienez. Desberdintasun horiek plan estrategikoak garatu eta merkatuan duten lehiakortasuna handitzeko duten gaitasunean eragiten dute.

2.2. ARAUAK ZENBATERAINO ERANTZUTEN DIEN DESBERDINTASUNEI

Arauk ez du emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioa aipatzen, eta emakumeen eta gizonen enpresa jardueraren arteko abiapuntuko genero desberdintasunak ere ez ditu kontuan hartzen. Bestalde, arauaren azken helburua enpresa lehiakortasuna denez, garrantzitsua da adieraztea ez duela genero berdintasuna biltzen diruz lagun daitezkeen enpresa jarduerak baloratzeko irizpideen artean.

2.3. INPAKTUA BALORATZEA

Emakume eta gizonen arteko abiapuntuko desberdintasuna aztertuta eta arauaren edukia eta desberdintasun horiei ematen dien erantzuna ikusita, honako hau ondoriozta daiteke: araua planteatu den moduan, aurreikusi daitezkeen genero inpaktua negatiboa da, ez baititu kontuan izan abiapuntuko genero desberdintasunak eta ez baitu berdintasun printzipioa aipatzen edo antzemandako genero desberdintasunak konpentsatzeko neurririk garatzen.

3. PAUSOA. ARAUAK ERAGIN POSITIBOA IZANGO DUELA BERMATZEKO PROPOSATUTAKO ALDAKETAK.

Jarraian, generoan izan dezakeen eragina bideratzeko araurako proposatutako aldaketak adierazten dira:

- **Erabakiaren lehen puntuan, arauaren helburua xedatzen den lekuan:** erabakiaren proiektuak

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

esplizituki aipatu beharko luke *berdintasun printzipioa zeharka sartzeko* konpromisoa, beraz, testua honela aldatzea proposatzen da: "*hausnarketa prozesuetan dauden Gipuzkoako enpresa proiektu estrategikoak (plan estrategikoak, bideragarritasun planak, etab.) laguntzeko diru laguntzak ematea arautzen duten oinarriak onartzea, betiere proiektuak bakarka edo elkarlanean gauzatzea erraztera bideratutakorik, lehiakortasun egoera hobea bilatuz.*

- Honako hauek dira sar daitezkeen **neurriak**:
 - **Entitate eskatzaileek bete beharreko baldintzak** aipatzen direnean, zehaztea positiboki baloratuko dela erakundean genero berdintasuna sustatzeko neurriak garatu izana edo garatzea. Halaber, ez zaie diru-laguntzarik emango emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa ez betetzeagatik zigortu dituzten enpresei. Bestalde, klausula bat sartuko da emakume eta gizon eskatzaileen genero berdintasuna bermatzeko, enpresaren titular gisa, zehaztuko duena horretarako beharrezko neurriak hartuko direla.
 - **Diruz lagun daitezkeen jardueri** dagokienez, diruz lagundu ahal izango dira berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten plan estrategikoak, bai eta berdintasun planak eta entitateak genero berdintasunaren printzipioa erakundean sartzearen inguruko egoera diagnostikatzeko azterlanak ere.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN
GENERO INPAKTUA EBALUATZEKO TXOSTENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK.**

<p align="center">⑦</p> <p>RESPONSABILIDAD SOCIAL EFECTO TRACTOR DE LA IGUALDAD</p>	<p>7.1. Implicación a las familias de las personas usuarias. Sensibilización hacia la corresponsabilidad.</p> <p>7.2. Impulso de la gestión de la igualdad en las empresas proveedoras y contratadas. (Adoptar principios recogidos en el acuerdo regulador de las condiciones de empleo del personal de la Diputación Foral de Gipuzkoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Campaña a favor de la corresponsabilidad. ▪ Tener en consideración a las empresas que tengan elaborado un Plan de Igualdad o lleven a cabo acciones en este campo. 	<p>2010/2011</p> <p>2010/2011</p>

6. MECANISMOS DE SEGUIMIENTO Y CONTROL DEL PLAN DE IGUALDAD

El seguimiento y control del Plan se realizará junto, y de la misma forma, que el plan de gestión bianual, analizando los resultados obtenidos (indicadores) y revisando las actuaciones del Plan.

En el caso de detectarse desviaciones, se establecerán, si procede, acciones correctivas encaminadas a reconducir la situación y el cumplimiento de los objetivos planificados.

Cuándo....	Qué.....
------------	----------

■ La planificación de las acciones para verificar que:

Revisión inicial (al inicio)	<ul style="list-style-type: none"> ● El plan es aplicable a la realidad de la organización. ● Los objetivos son adecuados. ● Las acciones previstas son coherentes con los objetivos marcados. ● Se dispone de los recursos necesarios.
---------------------------------	---

■ El seguimiento y la gestión del Plan, para:

Revisiones trimestrales de seguimiento	<ul style="list-style-type: none"> ● Evaluar el progreso del Plan. Realización de acciones en el calendario previsto. ● Verificar si la metodología utilizada ha sido la correcta. ● Si la infraestructura ha sido adecuada. ● Detectar los problemas surgidos, con el objetivo de establecer las actuaciones necesarias para reconducir el plan y su cumplimiento. ● Sugerir mejoras.
--	---

Cuándo....	Qué.....
------------	----------

■ Los resultados obtenidos

Revisión final del Plan	<ul style="list-style-type: none"> ● Grado de realización de los objetivos y metas propuestas. ● Nivel de implicación y satisfacción de las personas participantes. ● Comparar la situación de partida frente a la final desde la igualdad de oportunidades en la Empresa. ● Detección de oportunidades de mejora para el plan siguiente, y estrategias de futuro.
-------------------------	--

IV. ERANSKINA
GENERO IKUSPEGIA FITXA



ANEXO IV

FICHA DE ENFOQUE DE GÉNERO

GENERO IKUSPEGIA / ENFOQUE DE GÉNERO

PROGRAMA / PROGRAMA:

Lege esparrua / Contexto legislativo:

Organo arduraduna / Órgano emisor:

1 – Genero egokitasuna identifikatzea /

Identificación de la pertinencia de género:

- **Pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta organo kolegiatuak dira programaren amaierako hartzaileak /
El programa tiene como grupo destinatario final a personas físicas, jurídicas u órganos colegiados.**
- **Programak emakumeei eta gizonei eragiten die zuzenean edo zeharka, baliabideen atzipen edota kontrolari dagokienez /
El programa afecta directa o indirectamente a mujeres y hombres, respecto al acceso y/o control de los recursos.**

(Genero ikuspegia ez bada egokia, argudiatu zergatik eta berrikusi testuan erabilitako hizkera) /

(Si no es pertinente, justificar porqué y revisar el lenguaje utilizado en la redacción)

(Genero ikuspegia egokia bada goian esandako irizpideengatik, garatu 2. puntua) /

(Si es pertinente en función de los dos criterios señaladas, desarrollar el punto 2)

2 – Generoaren eragina baloratzea / Valoración del impacto de género:

- **Programaren hartzaile diren gizon eta emakumeen abiapuntuko egoera /
Situación y posición de partida de los hombres y de las mujeres a quienes se dirige el programa:**
 - **Informazio garrantzitsua: sexuaren arabera bereizitako datuak /
Información relevante: datos desagregados por sexo.**
(informazio iturriak: zerbitzuaren edo departamentuaren estatistikak, Eustatenak edo INErenak) / (fuentes de información: estadísticas del propio servicio o Departamento, del Eustat o del INE)
 - **Genero diferentziak azaltzea eta eragiten dituzten desberdintasunak identifikatzea, halakorik bada /
Descripción de las diferencias de género identificando si derivan en desigualdades.**
- **Zenbateraino balio du programak detektatu diren desberdintasunei aurre egiteko:
Grado en que el programa da respuesta a las desigualdades detectadas:**

(Aztertu behar da programaren memoriak jasotzen dituen puntu nagusien artean sartuta ote dagoen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta bermatzea) /

(Analizar si en la memoria del programa se incluye entre los aspectos destacados el de promover o garantizar la igualdad entre hombres y mujeres)

(Aztertu behar da programaren helburuetariko bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu edo bermatzea den) /

(Analizar si en los objetivos del programa se incluye el de promover o garantizar la igualdad entre hombre y mujeres)

(Aztertu behar da programaren barruan berariazko ekintzak sartu diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu edo bermatzeko) /

(Analizar si en el programa se incluyen acciones específicas para promover o garantizar la igualdad entre hombre y mujeres)

(Erantsita doa aztertu beharreko irizpideen egiaztapen zerrenda) /

(Se adjunta lista de verificación de criterios a analizar)

- **Eragin positiboa edo negatiboa baloratzea** (programaren memoria, helburuak eta ekintzak aztertu ondoren) /
Valoración del impacto positivo o negativo (a la vista del análisis de la memoria, objetivos y acciones del programa)

3.- Aldaketak proposatzea programak eragin positiboa izan dezan /

Propuesta de modificaciones para garantizar un impacto positivo del programa

- **Programaren memorian / En la memoria del programa**
- **Programaren helburuetan / En los objetivos del programa**
- **Programaren ekintzetan / En las acciones del programa**
- **Hizkeran / En el lenguaje**

V. ERANSKINA

**GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA
GIPUZKOAN**



ANEXO V


**IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES
EN GIPUZKOA**




**Gizon eta emakumeen
arteko berdintasuna
Gipuzkoan**

**Aurrekontu-prozesurako
adierazleen analisia**

2010eko irailak 27



1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena.....	4
2. Ikuspegi orokorra	6
2.1. Ikuspegi orokorra.....	7
2.1.1. Gipuzkoako adierazleen egoera eta bilakaera.....	7
2.1.2. Gipuzkoako benchmarking-azterketa, Europar Batasuna erreferentziatzat hartuta	10
2.2. Gipuzkoako eta Europar Batasuneko adierazleak.....	12
2.3. Gipuzkoako adierazleak 2000-2009	13
3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik	14
3.1. Lan-merkatua	15
3.1.1. 15 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa	15
3.1.2. 55 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa	18
3.1.3. 15 urte eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasa.....	21
3.1.4. Lanaldi partzialeko enpleguaren eragina.....	25
3.2. Prestakuntza eta prestakuntzarako sarrera.....	27
3.2.1. Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20 eta 24 urte arteko biztanleria	27
3.2.2. Unibertsitateko ikasketak dituen biztanleria	30
3.3. Errenten desberdintasuna	32
3.3.1. Pobrezia-arriskuaren tasa	32
3.3.2. Errentetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea.....	34
3.3.3. Gizon eta emakumeen arteko aldea eta familia-errenta	39
3.3.4. Soldatetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea	40
3.4. Erabakiak hartzeko alorrak.....	42
3.4.1. Emakumeak Parlamentuan	42
3.4.2. Emakumeak Gobernuan	44
3.4.3. Emakumezkoak zuzendaritza-karguetan	46
A. eranskina Eranskin estatistikoa.....	48
B. eranskina Europako Batzordeko Adierazleak: Emakume eta Gizonen arteko berdintasuna	63
C. eranskina Laburdurak eta Europako herrialdeen kodeak	65



1. Aurkezpena

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Dokumentuak Gipuzkoako gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin zerikusia duten adierazleak aztertzen ditu.


Dokumentuaren ikuspegia Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko aurrekontu-prozesurako interesaren ikuspegitik planteatzen da (generoaren ikuspegia), baita Europar Batasunarekin eta kide diren estatuekin Europako Batzordeak hautatutako erreferentziazko adierazleetatik abiatuta nazioartean alderatzetik ere.

Gipuzkoako eta Europar Batasuneko benchmarking-eko azterketarako adierazleak, aurrekontu-prozesuko generoaren ikuspegiarako, lau bloke handitan egituratzen dira: lan-merkatua, prestakuntza eta prestakuntzarako irisgarritasuna, errenten desberdintasuna eta presentzia erabakiak hartzeko alorretan.

1. Aurkezpena

Hauek dira hautatutako 12 adierazleak:

- 15 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa
- 55 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa
- 15 urte eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasa
- Lanaldi partzialeko enpleguaren eragina
- Bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20 eta 24 urte arteko biztanleria
- Unibertsitateko ikasketak dituen biztanleria
- Pobrezia-arriskuaren tasa
- Errentetan eta familia-errentetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea
- Soldatetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea
- Emakumeak Parlamentu nazionalean
- Emakumeak gobernu nazionaletan
- Emakumezkoak zuzendaritza-karguetan



2. Ikuspegi orokorra

2. Ikuspegi orokorra

2.1. Ikuspegi orokorra

2.1.1. Gipuzkoako adierazleen egoera eta bilakaera

Azken urteetan, Gipuzkoako gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko erreferentziako adierazleen bilakaerak, oro har, ibilbide positiboa izan du, emakumezkoen kolektiboaren egoera kaltegarritik abiatuta.

Lehenik eta behin, lanaren alorra aztertuko dugu.

Enplegurako sarrera urriagoa da emakumeen artean, batez ere helduagoa den (55 eta 64 urte) biztanleria potentzialki aktiboaren taldean, nahiz eta krisi ekonomikoaren ondorioz langabeziaren eragina txikiagoa izan den emakumeen artean.

Era berean, emakumeek proportzio handiagoan burutzen dituzte lanaldi partzialeko lanak.

Azken urteetan, emakumeen enplegurako sarrera areagotu izana eta gizonekiko aldearen murrizketa nabarmendu dezakegu.

Hori horrela, langabezia-tasen arteko aldeak bateratzeko joera izan du, azken urtean emakumezkoen tasa baxuagoa izatera delarik.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago krisiak emakumeen enpleguan eragina izan duela, gizonezkoen baino arinago izan bada ere.

Emakumeen okupazioaren alorra aztertzeko erabilitako erreferentziako adierazleen artean, lanaldi partzialesan lanean ari diren emakumeen portzentajea murrizteko joera azpimarra dezakegu, nahiz eta gizonezkoen adierazlea baino askoz ere altuagoa izan.

Bigarren blokeak prestakuntzaren alorrari egiten dio erreferentzia. Alor horretan, prestakuntzarako sarbidea altuagoa da hezkuntza maila altuagoa lortzen duten emakumeen artean.

2. Ikuspegi orokorra

Era berean, Gipuzkoako emakumeek lortutako mailaren joera positiboa da.

Errenten blokeak desoreka nabarmena erakusten du gizon eta emakumeen artean. Emakumezkoek errenta txikiagoak jasotzen dituzte eta egindako lanagatik diru-sarrera gutxiago lortzen dute; beraz, kopuruari dagokionez, aldeak nabarmenak dira.

Horrekin lotuta, pobreziak neurri handiagoan eragiten die emakumeei, gizon eta emakume arteko aldea nabarmena izanik.

Erabakiak hartzeko alorrari dagokienez, esparru publikoan izandako aurrerapenak nabarmentzen dira, gertatu berri den bateratze sakonarekin, betiere, enpresaren eremuan dagoen desoreka egonkorra aintzat hartuta.

2. Ikuspegi orokorra

2.1 taula Laburpen Taula: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan

	Adierazlea	Gaurko egoera	Azken urteetako bilakaera(1)
LAN MERKATUA			
Emakumezkoen okupazio-tasa	%61,9	:	+
Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	13,7 p.p.	--	++
55-64 urteko emakumezkoen okupazio-tasa	%33,0	:	+
55-64 urteko biztanleen okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	25,8 p.p.	--	++
Emakumezkoen langabezia-tasa	%3,8	:	-
Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	0,9 p.p.	+	++
Lanaldi partzalean lan egiten duten emakumeak	%18,2	++	-
Lanaldi partziala: gizon eta emakumeen arteko arraila	16,2 p.p.	--	+
PRESTAKUNTZA ETA PRESTAKUNTZARAKO SARRERA			
Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20-24 urteko emakumeak	%82,7 ⁽²⁾	+	=
Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren banaketa: emakumeak	%55	+	+
ERRENTEN DESBERDINTASUNA			
Emakumezkoen pobrezia-arriskuaren tasa	%4,8	:	:
Pobrezia-arriskuaren tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	2,0 p.p.	--	:
Errentak: gizon eta emakumeen arteko arraila	26,9 p.p.	--	:
Soldatak: gizon eta emakumeen arteko arraila	5,7 p.p.	--	:
ERABAKIAK HARTZEKO ALORRAK			
Emakumezkoak Parlamentuan	%47,1	=	++
Emakumezkoak Gobernuan	%36,4	-	++
Emakumezkoak enpresa zuzendaritza-karguetan	%29,0 ⁽²⁾	--	=

(1) Azken 4 urteetan.

(2) Euskal A.E.ri dagokion emaitza.

Oharra: +/-/= ikurrak gizon eta emakumeen arteko berdintasunean gaur egungo egoera edo azken urteetako bilakaera aldeko/kontrako/berdina adierazten du. : Ez dago emaitzarik/ ezaugarri bereizgarririk gabeko emaitza.

Iturria: Eustat, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, eta EIN-k argitaratutako datuetan oinarritutako emaitzak.

2. Ikuspegi orokorra

2.1.2. Gipuzkoako benchmarking-azterketa, Europar Batasuna erreferentziazat hartuta

Gipuzkoaren eta Europar Batasuna-27ko batez bestekoaren arteko alderaketa-azterketak egoera desorekatua erakusten du.

Lanaren alorrean, enplegurako sarbidea eta langabezia-tasa txikiagoa positiboki nabarmentzen da, helduenen taldean salbu.

Bestalde, lanaldi partzialeko kontratazio murrizta nabarmentzen da Gipuzkoan.

Hezkuntzarako sarbideari dagokionez, alderaketa-egoera nahiko antzekoa da. Ez da hala gertatzen, ordea, pobrezia-egoera; egoera horretan gizon eta emakumeen arteko aldea nabarmenagoa baita Gipuzkoan.

Erabakiak hartzeari dagokionez, esfera politikoko egoera mesedegarria enpresaren alorreko egoera kaltegarriarekin alderatzen da.

2. Ikuspegi orokorra

2.2 taula Laburpen Taula: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan eta Europan

	Gipuzkoa	EB-27	Benchmarking
LAN MERKATUA			
Emakumezkoen okupazio-tasa	%61,9	%59,1	+
Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	13,7 p.p.	16,1 p.p.	+
55-64 urteko emakumezkoen okupazio-tasa	%33,0	%36,8	-
55-64 urteko biztanleen okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	25,8 p.p.	18,2 p.p.	--
Emakumezkoen langabezia-tasa	%3,8	%7,5	++
Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	0,9 p.p.	0,9 p.p.	=
Lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeak	%18,2	%31,1	--
Lanaldi partziala: gizon eta emakumeen arteko arraila	16,2 p.p.	23,2 p.p.	+
PRESTAKUNTZA ETA PRESTAKUNTZARAKO SARRERA			
Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten 20-24 urteko emakumeak	%82,7 ⁽²⁾	%81,3	=
Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren banaketa: emakumeak	%55	%59	-
ERRENTEN DESBERDINTASUNA			
Emakumezkoen pobrezia-arriskuaren tasa	%4,8	%5,4	+
Pobrezia-arriskuaren tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila	2,0 p.p.	0,2 p.p.	--
ERABAKIAK HARTZEKO ALORRAK			
Emakumezkoak Parlamentuan	%47,1	%24,0	++
Emakumezkoak Gobernuan	%36,4	%26,0	++
Emakumezkoak enpresa zuzendaritza-karguetan	%29,0	%33,0	-

Oharra: +/-/= ikurrak gizon eta emakumeen arteko berdintasunean gaur egungo egoera edo azken urteetako bilakaera aldeko/kontrako/berdina adierazten du. : Ez dago emaitzarik/ ezaugarri bereizgaririk gabeko emaitza.

Iturria: Eustat, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jarularitza eta EIN-k argitaratutako datuetan oinarritutako emaitzak.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan

2. Ikuspegi orokorra

2.2. Gipuzkoako eta Europar Batasuneko adierazleak

2.3 taula Laburpen Taula: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan, Europan eta Europako herrialde garrantzitsuenetan

	Gipuzkoa	EB-27	EB-top	EB-sub
Emakumezkoen okupazio-tasa. 2008	%61,9	%59,1	DK (%74,3) SE (%71,8) NL (%71,1)	MT (%37,4) IT (%47,2) GR (%48,7)
Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2008	13,7 p.p.	16,1 p.p.	FI (4,1 p.p.) SE (4,9 p.p.) LT (5,3 p.p.)	MT (%35,1 p.p.) GR (%26,3 p.p.) IT (%23,1 p.p.)
55-64 urteko emakumezkoen okupazio-tasa. 2008	%33,0	%36,8	SE (%66,7) EE (%60,3) LV (%56,7)	MT (%12,5) PO (%20,7) SI (%21,1)
55-64 urteko biztanleen okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2008	25,8 p.p.	18,2 p.p.	FI (1,3 p.p.) FR (4,5 p.p.) EE (4,9 p.p.)	MT (33,9 p.p.) SK (32,5 p.p.) CY (31,5 p.p.)
Emakumezkoen langabezia-tasa. 2008	%3,8	%7,5	NL (%3,0) DK (%3,7) AT (%4,1)	ES (%13,0) GR (%11,4) SK (%10,9)
Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2008	0,9 p.p.	0,9 p.p.	IE (-2,5 p.p.) RO (-2,0 p.p.) LV (-1,1 p.p.)	GR (2,9 p.p.) IT (3,0 p.p.) ES (2,9 p.p.)
Landi partziallean lan egiten duten emakumeak. 2008	%16,2	%31,1	NL (%75,3) DE (%45,4) UK (%41,8)	BG (%2,7) SK (%4,2) HU (%6,2)
Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten 20-24 urteko emakumeak. 2008	%82,7*	%81,3	SL (%93,6) SK (%93,6) PO (%93,3)	MT (%57,3) PO (%61,9) ES (%67,6)
Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren banaketa: emakumeak. 2008	%55	%59	LV (%72) EE (%69) LT (%67)	AT (%52) DE (%54) NL (%55)
Emakumezkoen pobrezia-arrikuaren tasa. 2008	%4,8*	%5,4	LV (%12,0) RO (%11,4) BG (%8,6)	CZ (%2,2) FI (%2,3) AT (%2,4)
Pobrezia-arrikuaren tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. 2008	2,0 p.p.	0,2 p.p.	DK (-0,9 p.p.) PO (-0,6 p.p.) FI (-0,4 p.p.)	LV (2,8 p.p.) CY (1,7 p.p.) LU (1,1 p.p.)
Emakumezkoak Parlamentuan. 2009	%47,1	%24,0	SE (%47) NL (%47) FI (%40)	MT (%9) RO (%11) HU (%11)
Emakumezkoak Gobernuan. 2009	%36,4	%26,0	FI (%60) ES (%50) SE (%45)	HU (%0) CY (%8) EE (%8)
Emakumezkoak enpresa zuzendaritza-karguetan. 2009	%29,0*	%33,0	FR (%40) LV (%35,3) EE (%35,1)	CY (%8,2) MT (%16,0) IE (%19,2)

* Euskal A.E.ri dagokion emaitza.

EB-top: Emaitza hobetoak dituzten Europako herrialdeak. EB-sub: Emaitza txarragoak dituzten Europako herrialdeak.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan


2. Ikuspegi orokorra

2.3. Gipuzkoako adierazleak 2000-2009

2.4 taula Laburpen Taula: Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna: Bilakaera Gipuzkoan

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Emakumezkoen okupazio-tasa (%)	46,7	49,0	53,6	55,7	58,0	58,4	60,0	60,6	61,9	61,3
Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila (p.p.)	28,5	26,8	23,3	21,9	17,9	20	19,3	18,9	16,1	11,8
55-64 urteko emakumezkoen okupazio-tasa (%)	:	:	:	:	:	:	30,8	31,1	33,0	31,9
55-64 urteko biztanleen okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila (p.p.)	:	:	:	:	:	:	29,6	28,3	25,8	24,1
Emakumezkoen langabezia-tasa (%)	13,9	12,1	9,6	11,0	8,8	5,3	3,3	3,1	3,8	5,4
Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila (p.p.)	7,3	6,4	4,9	5,5	2,4	1,9	0,6	0,9	0,9	-1,9
Lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeak (%)	:	:	:	:	:	:	19,5	20,3	18,2	16,9
Lanaldi partziala: gizon eta emakumeen arteko arraila (p.p.)	:	:	:	:	:	:	17,1	18,2	16,2	15,0
Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten 20-24 urteko emakumeak (%)	85,5	86,4	85,7	87,0	86,4	85,8	84,7	85,2	82,7	83,4
Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren banaketa: emakumeak (%)	:	59,7	58,1	59,6	59,7	56,8	56,5	54,2	54,6	59,7
Emakumezkoen pobrezia-arrikuaren tasa (%)	:	:	:	:	:	:	:	:	4,8	:
Pobrezia-arrikuaren tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila. (p.p.)	:	:	:	:	:	:	:	:	2,0	:
Batazbtk. errenta: gizon eta emakumeen arteko arraila erlatiboa (%)*	:	:	:	:	:	:	:	25,6	26,8	:
Laneko errenta: gizon eta emakumeen arteko arraila erlatiboa. (%)*	:	:	:	:	:	:	:	35,7	33,9	:
Batazbtk. errenta orduko: gizon eta emakumeen arteko arraila erlatiboa. (%)*	:	:	:	:	22,2	18,3	19,1	22,6	18,2	:
Batazbtk. urteko soldata: gizon eta emakumeen arteko arraila erlatiboa. (%)*	:	:	:	:	28,7	25,7	28,4	26,5	23,0	:
Emakumezkoak Parlamentuan (%)	:	:	:	:	:	:	:	31,4	:	47,1
Emakumezkoak Gobernuan (%)	:	:	:	:	:	:	:	18,2	:	36,4
Emakumezkoak enpresa zuzendaritza-karguetan (%)*	30,6	:	:	:	30,2	:	:	:	29,0	:

* Euskal A.E.ri dagokion emaitza.



3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.1. Lan-merkatua

3.1.1. 15 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa

Gipuzkoako adierazleek 2008an EB-27ko batez bestekoa baino okupazio-tasa altuagoak islatzen zituzten, bai emakumezkoen kasuan (% 62, % 59rekin alderatuta), bai gizonezkoen kasuan (% 78, % 73rekin alderatuta). Hori horrela, Gipuzkoako gizon eta emakumeen arteko aldeak (16,1 puntu portzentual) EB-27ko batez bestekoa gainditzen du (13,7 p.p.).

Okupazioaren egoerari herrialdeka begiratzen bazaio, emakumeen okupazio-tasarik altuena iparraldeko herrialdeei dagokie, Danimarka, Suedia eta Herbehereak nagusiki (%70 baino ratio altuagoekin). Erregistro txikiak mediterraneoko eremuari (Espainia, Grezia, Italia...) eta azken hedapeneko herrialdeei (Errumania, Polonia, Hungaria eta Malta) dagozkie, % 50 inguruko balioekin.

Krisi ekonomikoak Gipuzkoako enpleguan izan duen eragin negatiboa (2009. urtearen erdialdera arte) altuagoa izan da gizonezkoen okupazio-tasan; 2008 eta 2009 artean %5,7 egin du behera (bigarren hiru hilera datuak). Bestalde, emakumeen okupazio-tasak ia ez du galerarik izan epe berean (% 0,5). Europar Batasunean beherakada % 2,1ekoa eta % 0,3koa izan da, hurrenez hurren.


Beraz, azken datuek gizon eta emakumeen arteko aldearen murrizketa erakusten dute, bai Gipuzkoan, bai EBn, Gipuzkoan neurri handiagoan bada ere. Hala eta guztiz ere, aldea oraindik ere EBkoari dagokiona baino zertxobait gorago mantentzen da.

Emaitza hori nagusiki okupazioaren espezializazioaren ondorio da; gizonezkoen presentzia handiagoa da zenbait sektoretan, eraikuntzan eta industrian, esate baterako; biek ere krisiaren eragina izan dute. Bigarren mailan, emakumea lan-jardueran sartzearen bilakaeraren ondorio da, neurri handian zerbitzuen sektorerantz bideratua.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.1 grafikoa Okupazio-tasa, sexuaren arabera.


(15-64 urteko biztanleriaren %)



Iturria: Eurostat eta Eustat. 2008.

3.2 grafikoa Okupazio-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila

(Gizon eta emakumeen arteko arraila, portzentaje puntutan)




Iturria: Eurostat eta Eustat. 2008.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

Gipuzkoaren ibilbideari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko aldearen murrizketa nabarmena antzeman daiteke azken hamarkadan, Europako batez bestekoarekin bat eginez.

3.3 grafikoa Okupazio-tasaren bilakaera Gipuzkoan, sexuaren arabera.


(15-64 urteko biztanleriaren %)



Iturria: Eustat.

3.4 grafikoa Okupazio-tasa: Gizon eta emakumeen arteko arrailaren bilakaera Gipuzkoan.

(portzentaje puntuak)




Iturria: Eustat.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.5 grafikoa 15-64 urteko biztanleriaren okupazio-tasaren bilakaera, sexuaren arabera.

(porzentaje puntuak)



Iturria: Eurostat eta Biztanleriaren jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA) 2008ko II Hiruh. – 2009ko II Hiruh.

3.1.2. 55 eta 64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa

Gipuzkoako 55 eta 64 urte arteko emakumeen okupazio-tasa (% 33, 2008an) EB-27ko batez bestekoaren azpian kokatzen da (% 37).


55 eta 64 urte arteko Gipuzkoako biztanleriaren okupazio-tasan gizon eta emakumeen arteko aldea kontuan hartuz gero, Europako batez bestekoa baino nabarmen altuagoa dela ikusiko dugu (26 puntu Gipuzkoan 2008an; EB-27an, 18).

Emaitza hau Gipuzkoan emandako emakumearen okupazioaren bilakaerarekin lotuta dago eta datozen urteetan Europarekin bat egingo duela aurreikus daiteke.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.6 grafikoa 55-64 urteko biztanleriaren okupazio-tasa, sexuaren arabera.

(55-64 urteko biztanleriaren %)




Iturria: Eurostat eta Eustat. 2008.

Herrialdeka, Suedia, Estonia, Letonia eta Finlandia dira emakume helduenen okupazioan %50a gainditzen duten Europako herrialdeak. Polonia, Malta, Eslovenia, Italia eta Eslovakiak, berriz, %25a baino balio baxuagoak erregistratzen dituzte.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.7 grafikoa 55-64 urteko biztanleriaren okupazio-tasaren bilakaera Gipuzkoan, sexuaren arabera

(55-64 urte arteko biztanleriaren %)



Iturria: Eustat.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik


3.1.3. 15 urte eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasa

Gipuzkoan, 15 urte eta gehiagoko biztanleriaren langabezia-tasa Europako batez bestekoa baino txikiagoa da; bai gizonezkoen kasuan (2008an % 2,9; EB-27an, berriz, % 6,6), bai emakumezkoen kasuan (% 3,8 Gipuzkoan; EB-27ko % 7,5ekoaren aldean).

Gizon eta emakumeen arteko aldeari dagokionez (kasu horretan gizon eta emakumeen arteko langabezia-tasaren aldea neurtuta), Gipuzkoak EB-27ko batez bestekoa berdintzen du (% 0,9 bi kasuetan).

3.8 grafikoa Langabezia-tasa, sexuaren arabera.

(15 urte eta gehiagoko biztanleriaren %)



Iturria: Eurostat eta Eustat. 2008.


Herraldeka, Greziak, Italiak, Espainiak eta Eslovakiak azaltzen dituzte gizon eta emakumeen arteko alde handienak, guztietan, 3 puntutik gorakoak. Talde horretan Grezia nabarmentzen da eta sei puntutik gorako aldea du.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

Beste aldean daude, diferentzia negatiboekin, Irlanda, Errumania, Letonia, Erresuma Batua, Lituania eta Estonia, hau da, hauetan gizonezkoen langabezia-tasa altuagoa da.

3.9 grafikoa Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arraila.

(Gizon eta emakumeen arteko arraila portzentaje puntutan)



Iturria: Eurostat eta Eustat. 2008

Kasu horretan, okupazio-tasaren kasuan bezala, enpleguan krisiak izan duen eragina gizonezkoentzat kaltegarriagoa izan dela ikusten da.


Hain zuzen ere, 2008ko maiatzaren eta 2009ko irailaren artean, Gipuzkoako emakumeen langabezia-tasa 0,8 puntu igo da eta gizonezkoen artean, aldiz, 5,6 puntu. EB-27ko multzoan, 1,6 eta 2,9 puntukoa izan da aldaketa, hurrenez hurren.

Bilakaera horren ondorioz, Gipuzkoako gizonezkoen langabezia-tasa % 7,3ra heldu da; emakumeena, berriz, % 5,4koa; azken hamarkada bi kolektiboentzat onuragarria izan delarik.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.10 grafikoa Langabezia-tasaren bilakaera Gipuzkoan, sexuaren arabera.


(15 urte eta gehiagoko biztanleriaren %)



Iturria: Eustat.

3.11 grafikoa Langabezia-tasa: gizon eta emakumeen arteko arrailaren bilakaera Gipuzkoan.

(portzentaje puntuak)




Iturria: Eustat.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.12 grafikoa Langabezia-tasaren bilakaera: 2008ko II Hiruh. – 2009ko III Hiruh., sexuaren arabera

(2009-2008 urte arteko diferentzia, portzentaje puntutan)



Iturria: Eurostat eta Eustat. 2008-2009.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.1.4. Lanaldi partzialeko enpleguaren eragina

Lanaldi partzialeko enpleguaren eragina enplegu osoari egiten dion ekarpenaren portzentaje moduan neurtzen da. Gipuzkoan, lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeak guztizkoaren %18,2 dira (2008); Europan, berriz, batez bestekoa %31,1ekoa da.

Emakumeen lanaldi partzialeko enpleguaren eragina gizonezkoen batez bestekoaren oso gaineratik dago. Hain zuzen, Gipuzkoan adierazle horretako gizon eta emakumeen arteko aldea 16,2 puntu portzentualekoa da, Europako batez bestekoaren behetik dagoen arren (23,2 p.p.).

Emakumeen lanaldi partzialeko enplegu gehien duten Europako herrialdeak Herbehereak (%75), Alemania (%45) eta Erresuma Batua, Austria eta Suedia (%41) dira.

%10 baino baxuagoak diren zifrekin daude Grezia, Hungaria, Letonia eta Eslovakia; zifra hori emakumeen okupazio-tasan ere zertxobait baxuagoa da.


Azkenik, Gipuzkoaren kasuan, adierazle horrek azkenaldian beheranzko bilakaera izan du (2006-2009), eta gaur egun, % 17koa da egungo krisi-egoera dela-eta.

Hala eta guztiz ere, kasu guztietan lanaldi partzialeko enpleguaren eragina handiagoa da emakumezkoen kolektiboan gizonezkoen artean baino.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.13 grafikoa Lanaldi partzialeko enpleguaren eragina, sexuaren arabera.


(15 urte eta gehiagoko biztanleriaren %)



Iturria: Eurostat eta Eustat. 2008.

3.14 grafikoa Lanaldi partzialeko enpleguaren eraginaren bilakaera Gipuzkoan, sexuaren arabera.

(15 urte eta gehiagoko biztanleriaren %)



Iturria: Eustat.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.2. Prestakuntza eta prestakuntzarako sarrera

3.2.1. Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20 eta 24 urte arteko biztanleria

Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten 20 eta 24 urte arteko emakume euskaldunen (ez dago Gipuzkoako daturik) portzentajea %83koa da; gizonezkoena, berriz, %74koa.


EBko batez besteko balioak oso antzekoak dira, adierazle horretako gizon eta emakumeen arteko arraila txikiagoa izan arren (9 p.p. Euskadin; EB-27n, berriz, 5 p.p.).

Erregistro onenak dituzten herrialdeen artean Eslovakia, Polonia, Letonia eta Txekiar Errepublika nabarmentzen dira, emakumezkoen kasuan %90a gainditzen baitute; balio baxuenak, aldiz, Portugal, Espainia eta Maltak dituzte, %70tik behera.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.15 grafikoa Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20-24 urte arteko biztanleria, sexuaren arabera.

(20-54 urte arteko biztanleriaren %)




Iturria: Eurostat eta Eustat, 2008.

Adierazle honen azken bilakaera ez da positiboa izan Gipuzkoan, portzentaje hori emakumezkoen artean zertxobait murriztu baita 2003an lortutako gehieneko balioetik (% 87) egungo % 83ra.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.16 grafikoa Gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituen 20-24 urte arteko Gipuzkoako biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera.



Iturria: Eustat.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.2.2. Unibertsitateko ikasketak dituen biztanleria


Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren sexuaren araberako banaketa orekatuagoa dago Gipuzkoan (%55 emakumezkoak eta %45 gizonezkoak) EB-27ko batez bestekoan baino (%59 eta %41, hurrenez hurren).

Unibertsitateko ikasketak dituztenen portzentajea herrialde hauetan nabarmentzen da: Lituania, Estonia, Letonia, Hungaria, Polonia, Suedia, Finlandia, Eslovenia eta Eslovakia; %60a gainditzen dute, hain zuzen.

Gipuzkoan azken urteetan izandako bilakaerak Europako emaitzekin pixkanaka bat egitera darama, sexuen arteko emaitzak orekatu direlarik.

3.17 grafikoa Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren sexuaren araberako banaketa.

(unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren %)




Iturria: Eurostat eta Eustat. 2007.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.18 grafikoa Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren sexuaren arabeko banaketaren bilakaera Gipuzkoan.

(unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren %)



Iturria: Eustat.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.3. Errenten desberdintasuna

3.3.1. Pobrezia-arriskuaren tasa

Euskadiko emakumeen %4,8 pobrezia-arriskuan dago¹ ; gizonezkoak, berriz, %2,8 dira kasu horretan daudenak. EB-27an bi pobrezia-arrisku tasak handiagoak dira, baina gizon eta emakumeen arteko arraila txikiagoa da (2 p.p. EAEn, Europako 0,2 p.p.rekin alderatuta).

Hori horrela, garapen ekonomikoa, enplegua, laneko integrazioa eta pobrezia-arriskuaren arteko korrelazioa nabarmendu behar da. Bi sexuen kasuan, pobrezia-arrisku handieneko Europako ekonomiak dira garapen sozio-ekonomiko txikiena dutenak.


Horrez gain, emakumezkoen pobrezia-arrisku handiagoa duten herrialdeak bat datoz emakumezkoen okupazio-tasa txikiena duten herrialdeekin; hala nola, Lituania, Errumania, Bulgaria eta Italia.

¹ Pobrezia-arriskua: diru-sarreraren banaketaren medianaren %40 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituen biztanleriaren portzentajea

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.19 grafikoa Pobrezia-arriskua, sexuaren arabera (diru-sarreraren medianaren %40 baino gutxiago)

(biztanleria guztizkoaren %)




Iturria: Eurostat eta Eustat. 2008.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.3.2. Errentetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea

Gipuzkoan, emakumezkoen batez besteko errenta gizonzkoen batez besteko errentaren %73,1koa da (2008ko PFEZ kanpaina). Termino absolututan, aldea urteko 7.423 eurora heltzen da.

3.20 grafikoa Banakako errenta-aitorpenen batez besteko errenta, sexuaren arabera. Emakumeen batez besteko errenta gizonzkoenaren gainean %. Gipuzkoa



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Departamentua.


Laneko errendimendutik datorren errenta kontuan hartuta, gizon eta emakumeen arteko aldea are handiagoa da. 2008an, hain zuzen, emakumeen errendimenduak gizonzkoen batez besteko errendimenduaren %66,1 suposatzen du; urteko 8.200 euroko aldea, zehazki.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

Alde horren garrantziaz jabetuta, esanguratsua da errentaren sorrerarekin lotutako hiru gertakari kontuan hartzea:

- lehenik eta behin, emakumezkoen okupazio-tasa urriagoa, lanik egiten ez duen edota kotizaziopeko pentsiorik jasotzen ez duen 55 urte eta gehiagoko emakumeen kolektiboa handia izanik.
- bigarren, lanaldi partzialeko enpleguaren eragin handiagoa (emakumeen %18tik gizonazkoen %2ra); horrek sortutako errentaren murrizketa proportzionala dakar zuzenean.
- presentzia handiagoa hirugarren sektoreko jardueretan, zeinetan negozio-bolumen/balio erantsi eta enpleguaren ordainketa txikiagoak ematen diren.

3.21 grafikoa Laneko batez besteko etekinak, sexuaren arabera. Gipuzkoa



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Departamentua.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

Aurreko datuek PFEZ Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean aitortzen duten gipuzkoarrei egiten diete erreferentzia; hortaz, aitortpena egiteaz salbuetsitako biztanleriari buruzko informaziorik ez du biltzen, horien diru-sarrerak horretarako gutxieneko mugatik behera geratzen baitira.

Eustatek egindako errenta pertsonalari eta familiarrari buruzko inkestak² 18 urte eta gehiagoko biztanleek, sexuaren arabera, jasotako errentak biltzen ditu. Iturri horren arabera, Gipuzkoan batez besteko errenta totala 23.219 eurokoa da gizonezkoen kasuan eta 12.049 eurokoa emakumezkoen kasuan. Hau da, gizonezkoen urteko batez besteko errentak emakumezkoena bikoiztu egiten du.

Errenten jatorriari jarraiki, gizon eta emakumezkoen arteko gertutasun handiena kapital higikorrek (%79) eta higiezinak (%122) sortutako errentei dagokie. Tarte hau, aldiz, zabaldu egiten da laneko errentetan (%45), jardueretakoetan (%38) eta transferentzietan³ (% 58).

Hori horrela, batez besteko errenta totaleko⁴ gizon eta emakumeen arteko aldea %48,1ekoa zen 2006an eta bost urteko epean ia 6 puntutan murriztu da ehuneko hori, emakumearen lan-merkaturako txertaketaren hobekuntza positiboa islatuz.


² Hiru Foru Ogasunek emandako informaziotik abiatuta landu da.

³ Kotizaziopeko pentsioak eta kotizazio gabeko pentsioak, langabezia-sorospenak eta beste.

⁴ Gizonezkoen eta emakumezkoen errentaren arteko alde gisa lortu da, gizonezkoen errentari dagokionez

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.22 grafikoa 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren errenta pertsonala, sexuaren arabera. Gipuzkoa, 2006.




Iturria: Eustat.

Generoen arteko alde horiek are esanguratsuagoak dira biztanleriaren banaketa errenta pertsonalaren arabera eginez gero. Hortaz, emaitza hauek nabarmentzen dira:

- Adin nagusiko ia hiru emakumetik batek ez du inolako errentarik edo, jasotzen badu ere, ez ditu urteko 1.500 euroak gainditzen (emakumeen %32,8). Gizonezkoen kasuan, ehuneko hori %12,9koa da.
- Urtean 1.501 eta 9.000 euro arteko errenta jasotzen duen emakumeen proportzioa % 20,6koa da eta erraz bikoizten du gizonezkoen dagokien proportzioa (% 9,1).
- Aurkako muturrean, 18 urte eta gehiagoko gizon gipuzkoarren %8,3ak urtean 45.000 euro baino gehiagoko errenta jasotzen du; emakumezkoen % 2,7k lortzen du errenta hori.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.23 grafikoa 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren banaketa, errenta pertsonalaren eta sexuaren arabera (%). Gipuzkoa, 2006.



Iturria: Eustat.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik


3.3.3. Gizon eta emakumeen arteko aldea eta familia-errenta

Familia-errenta kontuan hartuta, gizon eta emakumeen arteko aldeak ere esanguratsuak dira, familiaren diru-sarrerak nabarmen aldatzen baitira hartzaile nagusia gizona edo emakumezkoa izatearen arabera.

Familiako hartzaile nagusia gizona denean, familiek 42.413 euroko batez besteko diru-sarrerak izan ohi dituzte eta gehiengoa errenta ertainen mailetan biltzen da.

Hartzaile nagusia emakumezkoa denean, aldiz, batez besteko familia-errenta 31.111 eurotan kokatzen da eta errenta maila baxuenetan biltzen da.

3.24 grafikoa Familia-errenta, hartzaile nagusiaren sexuaren arabera (%).Gipuzkoa, 2006



Iturria: Eustat.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.3.4. Soldatetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea


EINak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duen Soldata Egituraren Urteko Inkestaren emaitzen arabera, langilearen urteko batez besteko soldata gordina 25.547 eurokoa da 2008. urtean. Kasu honetan ere, sexuen arteko aldeak oso nabariak dira; izan ere, emakumeen urteko batez besteko soldata gordina (21.766 euro) gizonezkoen urteko batez besteko soldata gordinaren % 77koa da (28.264 euro). Hainbat motatako aldagaiek nabarmen eragiten dute aipatutako aldean, esate baterako: lan-jardunaldi motak, maila baxuagoko lanbideetan emakume gehiago egoteak, kontratu motak eta abar.

Lan egindako orduko jasotako soldata gordinak ere kontuan izan beharreko genero-desberdintasunak ditu. 2008. urtean, zehazki, gizonek, batez beste, lan egindako orduko 17,4 euro jasotzen zituzten eta emakumeek, berriz, 14,3 euroko batez bestekoa jasotzen zuten.

Urteko soldatetan gizon eta emakumeen artean dagoen aldea (gizonezkoen batez besteko soldata gordinaren eta emakumezkoenaren arteko aldea, gizonezkoen soldata gordinaren portzentaje gisa neurtuta), Euskadin, % 23koa da. Egindako lan-orduagatik jasotako batez besteko soldata gordina kontuan hartuta, aldea % 18,2 arte murizten da.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik


3.25 grafikoa Langileen batez besteko soldata (urteko batez bestekoa eta lan-orduko), sexuaren arabera. Euskal A.E.



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Departamentua.

Urteko soldatako aldearen bilakaerak 5,7 puntuko murrizketa izan du 2004-2008 aldian. Lan-orduko soldataren aldeari dagokionez, murrizketa 4 p.p.koa izan da.

3.26 grafikoa Urteko eta orduko soldata: gizon eta emakumeen arteko arraila (%). Euskal A.E.



Iturria: EIN.

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.4. Erabakiak hartzeko alorrak

3.4.1. Emakumeak Parlamentuan


Emakumeek Gipuzkoako Batzar Nagusietan duten presentzia areagotu egin da; 2004-2007 legegaldian %31 ziren, eta 2007-2011 legegaldian, berriz, %47. Bestalde, Eusko Legebiltzarrean bilakaera kontrakoa izan da, emakumezko legebiltzarkideak nabarmen murriztu dira (%57tik %44ra).

EBko herrialdeetako parlamentu nazionaletan, emakumezkoen ehunekoa, kasu gehienetan, Gipuzkoan ikusitakoa baino nabarmen urriagoa da; EB-27ko batez bestekoa %24koa da.

Oro har, erabakiak hartzeko organo horietan emakumezkoen presentzia herrialde bakoitzeko guztizko biztanleriarik egindako ekarpena baino txikiagoa da. Hala eta guztiz ere, emakumezkoen okupazio-tasa hobea duten herrialdeek parlamentuan ere emakumezkoen portzentaje handiagoa dutela ikusi da. Horien artean, Suedia, Herbehereak eta Finlandia nagusitzen dira.


3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.27 grafikoa Emakume eta gizonen presentzia Parlamentuan



Iturria: Eurostat, Eusko Legebiltzarra eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak (2010eko iraila). 2005-2009.

3.28 grafikoa Emakume eta gizonen presentziaren bilakaera Gipuzkoako Batzar Nagusietan.



Iturria: Gipuzkoako Batzar Nagusiak (2010eko iraila).

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik


3.4.2. Emakumeak Gobernuan

Oro har, organo exekutiboetan emakumeek duten portzentajea murriztu egiten da organo legegileetan adierazitako portzentajeekin alderatuta.

Hori horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuan emakumeen portzentajea %36koa da, batzarretan adierazitakoa baino 11p.p. baxuagoa; aurreko legegilditik zertxobait hobetu da, hala ere (2004-2007).

Europako datuek adierazten dutenez, gobernu exekutiboetan emakumezkoen partaidetza, kasu gehienetan, Gipuzkoan ikusitakoa baino urriagoa da; EB-27ko batez bestekoa %24 da.

3.29 grafikoa Emakumeak Gobernuan.



Iturria: Eurostat, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia. 2005-2009.


3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

Oro har, gobernuko organo horietan emakumezkoen presentzia herrialde bakoitzeko guztizko biztanleriari egindako ekarpena baino txikiagoa da. Hala eta guztiz ere, emakumezkoen okupazio-tasa hobea duten herrialdeetako gobernuetan ere emakumeak ugariago direla ikusi da, hala nola Suedian, Alemanian eta Finlandian.

Gobernuetan emakumezkoen presentziarik urriena Hungarian, Zipren, Estonian eta Grezian antzeman da, besteak beste.

3.30 grafikoa Emakume eta gizonen presentziaren bilakaera Gipuzkoako Foru Aldundian.

(Foru gobernu-kideen %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (2010eko iraila).

3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.4.3. Emakumezkoak zuzendaritza-karguetan

Lan-merkatuan sartzeko emakumeek egindako ibilbide desberdinak zuzendaritza organoetan duten partehartzea ere baldintzatu du.

EB-27an hiru zuzendaritza-kargutik bat emakumezkoena da. Portzentajea Frantziako %40aren eta Irlandako %20aren artekoa da.

Horrez gain, emakumezkoen okupazio-tasa handia duten herrialdeetan –Suedia (%26), Danimarka (%24) edo Finlandia (%22)–, zuzendaritza-karguetako emakumezkoen presentzia komunitateko batez bestekoa baino urriagoa dela ikusi da eta, aldiz, emakumezkoen okupazio-tasa txikiagoa duten herrialdeek gainditu egiten dutela –Errumania eta Txekiar Errepublika (%27), Grezia eta Hungaria (%28)–.


Zuzendaritza-karguetan dagoen emakumeen ehunekoa hainbat faktoreren emaitza da, besteen artean hauena:

- Emakumeen okupazio-tasa altuak zuzendaritza-karguetarako hautagai gehiago egotea esan nahi du.
- Europako iparraldeko herrialdeek islatzen duten moduan, ordea, lanaldi partzialeko enpleguaren eragin handiagoak aukera horiek murrizten ditu.
- Gainera, enplegu publikoaren proportzio handi batek (Frantzia) zuzendaritza-organoen emakumeen proportzioa ere altuagoa izan dadin bultzatzen du.

Faktore guzti horien konbinaketak, emakumeen presentziak lan-merkatuan izan duen ibilbide historikoaz gain, emandako emaitzen kasuistika ulertzen laguntzen du.


3. Adierazleak gizon eta emakumeen arteko aldearen ikuspegitik

3.31 grafikoa Emakumezkoak enpresen zuzendaritza-organoetan (%)




Iturria: Eurostat eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2008.

3.32 grafikoa Emakumezkoen presentziaren bilakaera enpresen zuzendaritza-organoetan. Euskal A.E.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.



A. eranskina Eranskin
estatistikoa

A. eranskina Eranskin estatistikoa

A.1 taula Okupazio-tasa, sexuaren arabera (2003-2008)

	Emakumeak		Gizonak		Sexuen arteko arraila	
	2003	2008	2003	2008	2003	2008
Danimarka	70,5	74,3	79,6	81,9	9,1	7,6
Suedia	71,5	71,8	74,2	76,7	2,7	4,9
Herbehereak	66,0	71,1	81,1	83,2	15,1	12,1
Finlandia	65,7	69,0	69,7	73,1	4,0	4,1
Estonia	59,0	66,3	67,2	73,6	8,2	7,3
Erresuma Batua	65,3	65,8	77,8	77,3	12,5	11,5
Austria	61,6	65,8	76,4	78,5	14,8	12,7
Letonia	57,9	65,4	66,1	72,1	8,2	6,7
Alemania	58,9	65,4	70,9	75,9	12,0	10,5
Eslovenia	57,6	64,2	67,4	72,7	9,8	8,5
Txipre	60,4	62,9	78,8	79,2	18,4	16,3
Portugal	61,4	62,5	75,0	74,0	13,6	11,5
Gipuzkoa	55,7	61,9	77,6	78,0	21,9	16,1
Lituania	58,4	61,8	64,0	67,1	5,6	5,3
Frantzia	58,2	60,4	69,9	69,6	11,7	9,2
Irlanda	55,7	60,2	75,2	74,9	19,5	14,7
Bulgaria	49,0	59,5	56,0	68,5	7,0	9,0
EB-27	54,9	59,1	70,3	72,8	15,4	13,7
Euskal A.E.	51,6	58,9	75,4	76,2	23,8	17,3
Txekiar Errep.	56,3	57,6	73,1	75,4	16,8	17,8
Belgika	51,8	56,2	67,3	68,6	15,5	12,4
Luxenburgo	50,9	55,1	73,3	71,5	22,4	16,4
Espania	46,3	54,9	73,2	73,5	26,9	18,6
Eslovakia	52,2	54,6	63,3	70,0	11,1	15,4
Errumania	51,5	52,5	63,8	65,7	12,3	13,2
Polonia	46,0	52,4	56,5	66,3	10,5	13,9
Hungaria	50,9	50,6	63,5	63,0	12,6	12,4
Grezia	44,3	48,7	73,4	75,0	29,1	26,3
Italia	42,7	47,2	69,6	70,3	26,9	23,1
Malta	33,6	37,4	74,5	72,5	40,9	35,1

Iturria: Eurostat eta Eustat

A. eranskina Eranskin estatistikoa

A.2 taula 55-64 urte arteko biztanleriaren okupazio-tasa, sexuaren arabera (2003-2008)

	Emakumeak		Gizonak		Sexuen arteko arraila	
	2003	2008	2003	2008	2003	2008
Suedia	66,3	66,7	70,8	73,4	4,5	6,7
Estonia	47,3	60,3	58,9	65,2	11,6	4,9
Letonia	38,8	56,7	51,3	63,1	12,5	6,4
Finlandia	48,3	55,8	51,0	57,1	2,7	1,3
Danimarka	52,9	49,8	67,3	64,3	14,4	14,5
Erresuma Batua	46,3	49,0	64,8	67,3	18,5	18,3
Lituania	36,7	47,8	55,3	60,2	18,6	12,4
Alemania	31,6	46,1	48,2	61,8	16,6	15,7
Portugal	42,4	43,9	62,1	58,5	19,7	14,6
Holanda	31,8	42,2	56,7	63,7	24,9	21,5
Irlanda	33,1	41,1	64,6	66,1	31,5	25,0
Txipre	32,7	39,4	68,9	70,9	36,2	31,5
Bulgaria	21,0	37,7	40,5	55,8	19,5	18,1
EU 27	30,7	36,8	49,9	55,0	19,2	18,2
Frantzia	33,3	36,0	40,9	40,5	7,6	4,5
Errumania	33,3	34,4	43,5	53,0	10,2	18,6
Txekiar Errep.	28,4	34,4	57,5	61,9	29,1	27,5
Gipuzkoa	-	33,0	-	58,8	-	25,8
Espainia	23,3	31,1	59,2	60,9	35,9	29,8
Austria	20,8	30,8	40,4	51,8	19,6	21,0
Luxenburgo	20,6	29,3	39,7	38,7	19,1	9,4
Euskal A.E.	24,4	28,3	57,7	56,5	33,3	28,2
Grezia	25,5	27,5	58,7	59,1	33,2	31,6
Belgika	18,7	26,3	37,8	42,8	19,1	16,5
Hungaria	21,8	25,7	37,8	38,5	16,0	12,8
Eslovakia	11,2	24,2	41,0	56,7	29,8	32,5
Italia	18,5	24,0	42,8	45,5	24,3	21,5
Eslovenia	14,6	21,1	33,2	44,7	18,6	23,6
Polonia	19,8	20,7	35,2	44,1	15,4	23,4
Malta	13,0	12,5	53,8	46,4	40,8	33,9

Iturria: Eurostat eta Eustat

A. eranskina Eranskin estatistikoa

A.3 taula Langabezia-tasa, sexuaren arabera (2003-2008)

	Emakumeak		Gizonak		Sexuen arteko arraila	
	2003	2008	2003	2008	2003	2008
Herbehereak	3,8	3,0	3,4	2,5	-0,4	-0,5
Danimarka	5,7	3,7	5,1	3,0	-0,6	-0,7
Gipuzkoa	11,0	3,8	5,5	2,9	-5,5	-0,9
Austria	4,3	4,1	5,1	3,6	0,8	-0,5
Euskal A.E.	11,5	4,2	6,5	3,4	-5,0	-0,8
Txipre	4,6	4,2	3,8	3,2	-0,8	-1,0
Irlanda	4,0	4,6	4,8	7,1	0,8	2,5
Errumania	6,4	4,7	7,4	6,7	1,0	2,0
Eslovenia	7,0	4,8	6,0	4,0	-1,0	-0,8
Erresuma Batua	4,1	5,1	5,4	6,1	1,3	1,0
Estonia	10,4	5,3	11,0	5,8	0,6	0,5
Lituania	13,2	5,6	12,6	6,1	-0,6	0,5
Txekiar Errep.	9,6	5,6	5,9	3,5	-3,7	-2,1
Bulgaria	13,2	5,8	14,2	5,5	1,0	-0,3
Luxenburgo	4,7	6,0	3,0	4,3	-1,7	-1,7
Suedia	5,0	6,6	6,1	5,9	1,1	-0,7
Finlandia	9,9	6,7	11,0	6,1	1,1	-0,6
